



MANUEL LASARTE

LAZKAO-TXIKI
GOGOAN

AUSPOA LIBURUTEGIA

Lazkao-Txiki gogoan

Auspoa Liburutegia
221

SENDOA ARGITALDARIA

Ugaldetxo auzoa

Tel. (943) 49 35 51 - 49 35 52 - 49 35 53

Fax (943) 49 35 48

20180 OIARTZUN (Gipuzkoa)

Manuel Lasarte

Lazkao-Txiki gogoan

Auspoa Liburutegia
(1994)

© SENDOA ARGITALDARIA

Aurre-inprimaketa: EGIA, S.A.L., Donostia

Inprimatzaile: ITXAROPENA, S.A., Zarautz

ISBN: 84-89090-02-X

Legezko Gordailu: S.S. 854/94

Itzaurrea

LAZKAO-Txikiri buruz zerbait idazten asi nintzan neurri jakiñik edo mugarik aurrez izentatu gabe, poliki-poliki, denbora pasa nengoenez; eta azkenerako liburu batentzat aiña orri betetzera iritxi, naiz eta ari buruz askoz geiago idatzi diteken arren. Ara nola gertatzen diran gauzak batzuetan.

Orain zer eskatzen du diodan liburu onek? Itzaurre egoki antzeko bat, ortan asmatuko baldin banu. Neretzat ez da lanik errezena; baiña alegin-duko naiz Lazkao-Txikiren albisteak ematen eta bere nortasuna agertzen, merezi duen maillan eta nik ikusi dedan modura.

Ez nuke zurikeririk erabili nai iñundik iñola, Ezta irakurleari kalterik egingo dion arrokerizko itzik ere.

Beraz, aurrera jarraitu dezaiodan itzaurre au osatu arte. Ez baida luzegia ta gezurrezkoa izango. Labur samarra agian, baiña egiz ornitua eta nere sentimentuz jantzia, batere dudarik gabe.

Gaiñera, nik ez dakit eguneroko bizitzan nolako jokaerak zituen Lazkao-Txiki zanak. Ortan ezin nezake neurtu bear bezela ta gutxiagorik ere noski.

Bai, ordea, bertso-kontuan. Zuztarretik ezagutu genduen alkar, eta beti ongi konpondu.

Neretzat, azpi-janik gabeko gizon garbi bat izan zan Lazkao-Txiki. Au ez dit burutik iñork kenduko bizi naizen bitartean.

Egun batez onela entzun nion. Ez dakit zein erritatik seguru idazteko, baiña berdintsu dala derizkiot kasorako. Telefonoz deitu omen zioten: bertsotara ea joango zan, pestak bazetoztela-ta.

— Bai. Ni libre nago zuk diozun egun ortarako, ta pozik joango naiz zuen errira. Beste bertsolaria nor dan jakin nai nuke.

— Ez dakigu oraindik, seguru esateko. Emengo jendeak Lasarte nai du, iñundik al bada. Gu aspalditxoan bere atzetik gabiltza, baiña ez degu arrapatzen.

— Lasarterekin aurretik ibili bear da; ez atzetik —erantzun omen zion Lazkao-Txikik, telefonoz deitu zuenari.

Arrazoi dotorea bezin egokia. Gogoan artzeko modukoa noski.

Nik neronek Txirrita zanaren ondorengo bertsolari guztiak ezagutu ditudala esatearekin ez nuke asko utsegingo. Orain sei edo zortzi urte ezkeroztik sortu diran landare berri oiekin ez det tratatu. Baiña aurretik plazetan kantatzera iritxi ziranetan ez det uste iñor badanik, nik bertsorik entzun ez diodanik.

Eta Lazkao-Txikirena nere kaso bezelaxe juzkatzen det. Euskal-Erri osoko bertsolari denak eza-gunak zituela alegia. Ori badakit eta ez daukat ezkutuan gordetzeko asmorik.

Gure garaiko ta lenagoko bertsolarien izenak banan-banaka ematen asiko banintz, bateonbat edo agian geiago aztu ta aipatu gabe utzi nezazke; ta orixe izango litzake neretzat penarik aundiena. Len ere gertatu zait iñoiz orrelako zerbait, eta minberaturik nago.

Beraz, oraingo ontan, denak batera eskertu nai nituzke, ta lasaiago gelditu. Erriak gogoan edukiko baiditu plazetan kantari jardun diran bertsolarien izenak.

Liburuak irakurtzeko apiziorik duenak, aski du Aita Zabalaren *Auspoa*-ren sailleko batzuk esku-ratzea. Andik errez jakin lezake lengo bertsolari zarrak nortsu ziran. Eta, ori gutxi balitz, irratiz ematen dituzte beraien albiste garbiak. Aita Zabalak idatzita dauzkan bezela nik entzun ditut bein baiño geiagotan emen.

Mundu ontako bizitza bukatu zuten bertsolariak aipatzeko oitura nabaitu zaiote idazle batzuei, azken urte auetan batez ere; ta nik gauza berbera egin det Lazkao-Txikirekin gure garaiko bertsolarietan.

Basarri ta ni, Lasarte, bakarrik izango gera kantatzen ez degunak, gaur bizirik gauden bertsolarietan. Beste gaiñontzekoak oraindik badabiltzala erriz erri entzuten det zorionez. Beraz, jarraitu dezaiotela kantu-lanari luzaroan gure partez, auxe opa diotet eta.

Lazkao-Txikiren aipamen bereziak egitera nijoakizu zuri, irakurle maite orri. Beraren oroigarri bat eskuratu nai badezu, garai ederrean zaude. Bereaxe plazaratuko baida liburutxo xume au.

Joxe Migel Iztueta Lazkao-Txiki zana ta biok zenbat bertso-saio egiñak ote gera? Nere buruak ez du almenik ori ongi neurtzeko; ta gezurra esan baiño naiago det bere ortantxe uztea, bada ez bada ere, bestela batzuek ez luteke sinistuko ta.

Lazkao-Txiki gizon arretatsua ta argia zan bere izatez. Zerbait berri antzekorik edo gauza garrantzitsurik iñun ikusten baldin bazuen, zorroztasunez begiratuko zion. Ortik aparte, berriz, lagunarte aundikoa ta erretira txar ugari egiña.

Lazkao, Zaldibi, Ataun, Beasain ta Ordizi izentatuko nituzke, batzuk aipatzearren. Oietan sarritan ikusi nituen nola joaten zitzaizkion billa:

— I, Joxe Migel: alako egunetan famili arteko afaria zeukagu, ta irekin kontatu al genezake?

Ajenda txiki batean edukitzen zituen apunteak; eta, ari begiratu ondoren, erantzungo zion bakoitzari. Baiña ezezkorik nekez; baiezkoa geienetan.

Klase ortako ibillerak mesede aiña kalte badute gorputzarentzat. Lazkao-Txikik osasun ona zuela badakigu, azken aldira bitartean. Baiña lo gozo asko alperrik galdua zala ere bai, bere lagunak serbitzearren. Argatik maite zuten ainbesteraíño.

Bertsolaritzari dagokionez, berriz, doai aberatsak nabaitzen zitzaizkion.

Umorezko gaitan bizitasun izugarriz kantatzen zuen. Zulo bakoitzari neurriko ziria laixter sartuko zion dotore asko, ta entzule jendea bereganatu.

Baiña ez dira ortan bukatzen Lazkao-Txikiren almen guztiak. Gai serioetan sentimentu zoragariak erabiltzen zituen, bertsoak egiterakoan goxotasun arrigarriz itzegiñez.

Neretzat ere seriotasuna ongi zetorrenez, biok ederki konpontzen giñan.

Euskal-Erri osoan gozamen asko eman duen bertsolari bikain bat izan da Lazkao-Txiki, nere ustez.

Lazkao-Txiki, nere
lagun atsegiña,
leiala ta piña,
liburu txiki au da
zuretzat egiña.
Erakutsi nai nizun
nere maitemiña,
pena aundia det zu
íkusi eziña,
naiago nuke berriz
piztuko baziña.



Lazkao-Txiki.

Jose Migel Izutueta Kortajarena
(1926-IX-16 – 1993-IV-3).

Zaldibiko Bentaberri

IDATZ lanetarako gogo izugarririk ez badet ere, zerbait gitera bearturik aurkitzen naiz bein eta berriro. Beraz, ez dezala inork pentsatu denbora pasa ta arinkeri utsean nabillenik, nere sentimenduak diran bezela agertu naiean baizik.

Ortarako arrazoirik aski badedala uste det esku artean. Zer da motibo berezia? Samintasunez betarik esango det: Joxe Migel Iztueta, Lazkao-Txiki zana. Ez geiago ta ez gutxiago.

Ni ezin niteke aztu sekulan gizon artaz. Gogoan daukat, Euskal-Errian beste askok edukiko duten bezelaxe.

Gu mutil gazte giñan garaian, zabaldu zan otsa Lazkaomendin bazutela bertsolari ona zetorrena, aurrera jarraitzen baldin bazuen langintza ortan. Ori sarritan entzun genduen batean eta bestean.

Nik neronek Zaldibiko Bentaberri izeneko ostatuan ezagutu nuen. Ain zuzen ere, Lazkao-Txiki artean soldadutza pasa baiño len izango zan diodan au, oso oker ez banago beintzat.

Dakidana da gazterik asi nintzala zaldibitarren aurrean bertsoak kantatzen, eta orduan ere eginkizun

orixe eramán genduen. Uztapide zana ta biok joan giñan. Aurreko urte batzuetan Basarri erabili omen zuten Uztapiderekin. Baiña neregana pasa ziran beingo batean, eta geroztik Uztapidek eta nik, Lasartek, artzen genituen ango abixu guztiak edo geienak.

Egun batez, Joxe Lizasorekin ere izan nintzan, Uztapide libre etzegoelako noski. Alamoduz esan zidaten beintzat.

Dana dala, Bentaberrin, ostatuko balkoitik bi bertso saio egin arazten zizkiguten: eguerdian bat eta arratsaldean bestea, entzutera biltzen zan jendearentzat. Ortik aparte, berriz, ostatu barruan eten gabeko lana jartzen ziguten.

Goizean, ara iritxi orduko, gosaltzeko maia prestatu edukiko zuten guretzat. Baita jenero ederrik ere. Danetatik aukera, baiña ardi aragiz eta mondejuz batez ere, ta gustora jaten genituen. Nola ez?

Izan ere, ardi zarraren okela oso ona da. Alimantu aundia du, ta mondejuak zer esanik ez. Koipea izaten du ugari mondejuak, grasa alegia, ta bero dagoen bitartean jan bearreko gauza da. Bein oztu ezkeru ziatzen dakienez, astuna gelditzen da urdaillerako, ta grazi gutxikoa. Baiña Zaldibin eta Goierri aldean artzen diote galga edo neurria. Ortan mai-xuak dira.

Ardoa sendo edan erazteko ere ez da txarra mondejua. Piperrez bizi antzean jartzen baidute jeneralean.

Zaldibiko Bentaberri guretzat etxe ona zan, baiña ederki miatzen ginduzten nolako almazena gendukan. Goizean gosaldu orduko asi bear izaten genduen bertotan, maian exerita geunden lekuan bertan.

Amaiketako itxurazkoa egin ondoren, jendea entzuteko amorrus aurkitzen zala jakiñik, laixter aginduko zigun etxeko nagusiak, era ontantxe gutxi gora-bera:

— Ongi gobernatu bazerate, orain da, ba, kantatzeko garaia, denok zuen zai gaude ta.

Ori entzunik, bagenekigun lenengo zorra zegoela ordaindu bearra, gero artzekoa kobratzekotan, eta segituan ekingo genion lanari.

Baiña zenbat denborarako? Orrek etzuen neurri ta mugarik. Egun guztia ta gaua geientsua artantxe pasatzen genituen. Gure soldata etzan kosta gabe irabazia izaten. Eskerrak gaur baiño sasoi obean geunden edozertarako ere.

Nik, len diodan bezela, Lazkao-Txiki Bentaberrin ezagutu nuela seguru dakit, eta ara nola: illunabarran balkoitik kanpoko jendeari bertso mordoska bat eman da jangelara sartu giñan Uztapide ta biok, lengo tokira.

Ortarako, balkoiko leioa ixtea aski zan, bertan jangela egonik. Eta gurekin batera bazkaldu zutenak, maitik mugitu gabe entzun al izan zituzten bertsoak patxada ederrean.

Alaxe, gu ere exeri ta kontu kontari denbora pasa geundela, joan zitzaizkigun lau edo bost mutil gazte; ta, beste aldeko maian jarri ziranean, neri onela galdetu zidan aldamenean neukan lagunak:

— Lazkaomendiko bertsolaria ezagutzen al dezu, Lasarte?

— Ez. Oraindik ez —erantzun nion.

Ta:

— Arunzko maiaren ixkiñan exerita dagoen txiki uraxe da.

— Kontxo! Mutil argiaren itxura dauka. Txikia dala diozu zuk, baiña naikoa azi ere igoal egin liteke ori seguru asko —esan nionean, parrez gozatu zala zirudien.

Alaxe, lenengo ardo pixka bat edaten somatu nituen, eta gero bertan afaldu zutela ere badakit.

Baiña Lazkao-Txikik berak etzigun izketarako biderik eman, eta guk ere ez genion konpromisorik jarri, naiz eta luzaroan an egon zan gure bertso saioak entzuten.

Belarriz erne ta buruko pentsamentuz argi bezin arretatsu ikusten nuen, begiratzen nion bakoitzean. Ala iduritu zitzaidan beintzat.

Gu kantari ari giñan bitartean, Lazkao-Txikiren itzik etzuen iñork entzungo. Bi gauza garrantzi aundikoak zeuzkan bere baitan: errespetoa eta umiltasuna.

Oiek ixtimagarriak dira benetan. Bertsolariak, kantatzeko garaian, jendearen ixiltasuna eskatzen du, arritzekoa ez danez. Gaiñekoen bulla ta zaratak nastu ta aspertu arazi lezateke bestela.

Baiña Lazkao-Txikik ezagun zuen etzala artara joan, gauza txukun antzekorik entzuten baldin bazigun uraxe jasotzera baizik.

Izango zituen bakarren batzuk gogoan artuak. Seguru samar pentsatzen det au, ain memori aberatsa zuelako; ta, ortik aparte, berriz, azkenik gabeko apizioa ta zaletasuna zeuzkalako bertsogintzarako. Denborak erakutsi du garbiro. Ortan ez dago dudarik eta esplikazio luzerik eman bearrik ere, nere ustez.

Zaldibiko Bentaberrin noiznai antolatzen zituzten jaialdi politak edo beraien gustokoak, udaran bezela negu-partean. Soiñu jole onen bat eramango zuten, erriko jendeari gogozko zitzaiona, ta beste bi bertsolari kanturako. Ara or naiko pesta, igande alaia pasa nai zuenarentzat.

Zaldibin bertsoa maite etzutenak oso gutxi izango ziran garai aietan, nola gizon eta ala emakumezkoetan. Ikaragarrizko garrantzia ematen zitzaion bertsolaritzari zorioneko erri euskaldun ontan.

Gaur ez dakit nundik nora dijoazen gauzak. Baiña lengo bide beretik jarraitzea ez legoke gaizki izkuntza ta oitura zarren salbamenerako.

Ni Zaldibira lenengo joan nintzanean, da geroxeago ere, Joakin zan Bentaberri ostatuko nagusia, bertsozale purrukatua. Beste anai bat ere bazuen, bere etxean zeukana, Bixente izenekoa. Alkarrekin bizitu ziran, baiña biak illak dira, aspalditxo gaiñera.

Diodan Bixente onek bertsoa irentsi ta ausnartu egiten zekiela ondo dakigu. Nik oso banaka ikusi ditut gai ortan Bixenteren ulermena eta talentua izan duten gizonak.

Bertso saiorik luzena baldin bazan ere, buru makur jarri ta iñori etzion itzik egingo bukatu arte; eta azkenean ura txaloak jotzen astea seiñalerik onena, nolako langintza burutu zuten bertsolariak jakin al izateko.

Memoriz argi aparta eta asko zekien gizon ixtimagarri bat juzkatzen nuen nik neronek Bixente zana. Baita bere anai Joakin zana ere.

Lastima da: auen izenak gogoan neuzkan, baiña apellidorik ez, emen idazteko.

Ordiziko Gau-txori

DANA dala, diodan Joakin onek Bentaberri ostatua Zaldibiko Telleintxoko nagusiari saldu zion adibidez, eta berak Ordizin jatetxe berria iriki edo zabaldu, *Gau-txori* izenez bataiaturik, ain zuzen ere, ta berealaxe artu zuen izugarrizko fama ona.

Klase denetatik aukeran edukitzen omen zuten noski jateko eta edateko. Baiña batez ere baba txiki beltza jartzen artista sonatua zan. Ango etxeke andrea, Joakiñen emaztea alegia, emakume leiala ta borondate aundikoa.

Egun batez gogoratzen naiz 1963-an ikusitako, Ordiziko zinean edo antzokian gendukan bertso-saio bat egin bearra, eguerdiko amabietan asiera emanik.

Gu, Basarri ta biok, batera joango giñan alde ontatik Basarriren kotxean, eta an alkartu Uztapide ta Lazkao-Txikirekin, laurok kantatzekotan itz emanda geunden bezela. Ta goizean goiz antzean irten emendik eta Ordizira iritxi. Kotxea kale-baztarrerean utzi ta an goaz *Gau-txori*-ra zuzenean.

Sartu gera barrura, konturatu da nagusi Joakin, alkarri esku eman diogu ta segituan agindu zigun exeritzeko maiian lasai, ta andreari deitu zion. Ura

sukaldetik joan zitzaigun. Bere ongi etorria egin ere bai, ta zer artu nai genduen galdetu gaiñera.

Alaxe, Basarrik aukeratu zuen beretzako gosaria, ta urrengo neri galdetu zidan:

— Zuk erabaki al dezu, Lasarte, komeni zaizuna jateko?

Ta “bai” erantzun nionean:

— Zer ekarriko dizut, ba?

— Ezer ez. Illabete daramakit mokadurik jan gabe.

Ori entzun zuenean, buruari eldu zion esku biak gora jasota, guztiz arriturik, eta onela dio:

— Postura ortan egonik, bertso tara al zatoz?

— Bai; alaxe nator. Bestetarako ez naiz gauza; ta, ortik aparte, berriz, gure etxean badaude beste iru, nik mantendu bear ditudanak, eta ementxe nabil, al dedan moduan.

Une artan nagusia norabait joana edo falta zan; da, etorri zanean, Basarri bakarrik jaten ikusi ta:

— Zer da, Lasarte? Gosalduta etorri al zera edo gaixorik zaude? Planta txarra daukazu ta...

Orduan esplikatu nizkion pasadizo danak, eta esan zidan:

— Nik badaukat, ongi gordeta, ardo zarra kapritxotarako. Uraxe probatu bear dezu, baso batean bi arraultza gorringori nastuta.

— Ez dit onik egingo, Joakin.

— On egingo ez dizu, ba, ilda dagoena piztutzeko modukoa da ta? Itxogin pixka batean —esan da alde egin zuen. Baita laixter itzuli ere basokada eder askoarekin.

Artu nion, edan nuen, baiña berealaxe komone-ra joan da dana bertan botata, len baiño okerrago gelditu. Ara or eskarmentu dotorea.

Ala ta guztiz ere, zineko nere bertso-saiorik ez nuen galdu. Joakin entzuten antxe zanez, lanak bukatu genituenean, auxe esan zidan:

— Lasarte, gaur arritu naiz zurekin. Illabete jan gabe pasata, kantatu dezun bezela kantatzeko, aparteko zerbait bear du gizonak derrigor.

— Joakin, nigan ez dago ixpiritu pixka bat besterik ezer —erantzun nion.

Norberak jakiten baidu ongiena nolatan dabilen. Ni, aberatsa izan banintz, ez nintzan tankera artan Ordizira agertuko. Baiña txanpon batzuek eskuratu nai. Bestelako etorkizunik ezak eragiten zizkidan nolabaiteko ibillera pobre aiek.

Emen, Orion, taillar txiki bat baneukan; eta, neroni bakarrik moldatzen nintzan ezkerro, gaixotasunak menderatu ninduenean, iñor ez lanerako ta ogia irabazteko. Ala ere, familia mantendu nuen al zan bezela, ta neretzat ez det uste gutxi zanik bolada trixte artarako.

Dana dala, goazen lengo arrastora. Ordizin goizeko saio ura bukatu ta poliki-poliki osatu ta ostatu batzuk bixitatu ondoren, *Gau-txori* aldera jo genduen. An baizeukaten bazkaria prestaturik guretzat, eta beste askorentzako ere bai noski.

Bildu zan, beintzat, jende mordoska ederra. Maiak eta jarleku guztiak gutxiegi. Ori zergatik ote zan bixtan dago: bazkalondoko bertsoak entzutearren. Garai artan bezelako lagunarte gozorik ez dakit noiz ikusiko degun. Baliteke ni deskuidatzea, ezjakin bat naizenez; baiña oraingoz beintzat ezezkoan nago.

Beraz, goazen aurrera. *Gau-txori*-ko jangela dotorean agindu ziguten lekuan exeri orduko, asi zitzaizkigun gosearen asegarria mai gaiñera eramaten. Zer izango ta baba beltzak, baiña zoragarri egosiak, saieski, odolki ziztor pusketaz eta urdaiz gaiñezka nasturik gozatuak.

Nik neronek ez nuen batere jan, ez nintzan gauza ta. Baiña usaia artzeak inbidi ikaragarria ematen zidan.

Basarri aldemenean neukan apetitu ederrarekin. Platerkada aundi bat jan zuen berealaxe, ta berriro artu. Bete ezin edo ainbesteraíño gustatu nunbait; eta, bigarren aldiz artutakoa jaten ari zala, onela dio:

— Auek dituk baba gozoak, jaunak! Egunero baleude, obe!

Uztapide aurrean zeukan eta esan zion:

— Babak famatzen gogor ari aiz. Guk, gaztetan basoan lanean jardun giñanean, egunean irutan jaten genizkian babak, sarritan zugaitzen baten azpian, goitik bera ura tantaka zetorrela. Fuente zarrean salda ugaritzen uan. Aiek etziteken gaurko auek bezelako gozagarririk izaten. Iri alakoak jarriko balitzaizkik, laixter aspertuko intzake babaz. Zer esaten ari aiz emen?

Basarri ixilik gelditu zan; baiña gaiñontzeko jendeari grazi egin zion Uztapideren ateraldi serio arek. A zer nolako parre algarak entzun genituen! Lazkao-Txiki ere lertu bearrean ikusi nuen.

Alaxe, bazkaldu, kafe ta kopako on samarrez berotu ziran entzule guztiak bertso eske; ta, kantuan asterako, nere izena aipatzen zuten beste maietan zeudenak edo nola nengoen etzekitenak:

— Ea, ba, Lasarte, bertso batzuk oraintxe!

Ori entzunik, zutitu ta Basarrik esan zioten:

— Lasarte gaixorik dago. Bazkaltzeko garaian ez du mokadurik jan. Gosaltzen ere ez, eta illabete martxa ortan omen daramaki. Zineko bertso saioa osatzea naikoa egin du gaur Lasartek. Geiegi ere bai seguru asko, ta utzi dezaiozun pakean. Guk kantatuko ditugu bere parteak eta gureak.

Alaxe, ekin zioten irurak lanari sendo bezin trebe, ta oso bertso saio ederra irten zitzaioten gaiñera Basarri, Uztapide ta Lazkao-Txikiri. Entzule jendea pozik uzteko modukoa. Dudarik ez det ortan.

Gero, etxe alderako bidea artu genduen. Bakoi-tzak bere esku zeukan ori: noiz eta nola. Ni Basarri-ren kotxean etorri nintzan Oriora. Goizean Ordizira eramán bezelaxe ekarri ninduen bueltan.

Erosotasun aundiz ibili arren, naiko lanak baniu-tuen. Baiña urrengo egunean berriro boda edo ezkontza batean kantatu bearra gendukanez, ara joan giñan Uztapide ta biok, umore askorik gabe noski nere aldetik.

Esaten ari naizen auek, eta jaialdi geiagotan ere, parte artu nuela badakit, postura txar artan, galan-ki suprituaz.

1963-ko maiatzean edo apirillean utzi nion jate-ari, eta ekainean operatu ninduten. Irurogei egune-tan etzan mokadurik sartu nere sabelera. Nola ba? Urdaillerako pasoa zearo itxita neukan, da naranja zumu ta orrelakoak artzen saiatzen nintzan.

Baiña urdaillaren goiko sarrerán gelditzen ziz-tzaizkidan tope egiñik, eta gero txipiroi saltsa bezela beztu ta usteldurik aotik kanpora botatzen nituen.

Emen bertako medikuak sendatuko ninduela, ta nik sinistu, alperrik bazan ere. Sarritan orixe ger-tatzen zaigu: gaitzarentzat erremedio onik billatu eziñez gabiltzala, berandutu ta gero kontuak.

Gaixorik

EGUN batez, Lazkao-Txiki etorri zan gure etxera ni bixitatzera. Aulkian exeritzeko esaten nion, baiña artan ere etzuen asmatzen: zutik eta urduri, pentsamentuz beterik nunbait. Auskalo nolako itxura neukan.

Galdetu zidan ea nor zan nere medikua edo ez al nintzan iñora mugitu.

Erantzun nion:

— Errian bazeukagu asko dakiela uste duena. Baiña nerekin oker zebillek, Joxe Migel, ezin dik ezertan asmatu eta. Joxe Lizaso bertsolaria emen izan uan ereiñegun bixitatzen; da, mediku espezialista on batengana joateko desioa neukanez, berak billatuko zuela esan da aldegin zian, eta txanda artua omen zeukak etzi arratsalderako Donostin.

Ori entzun arren, trixtura aundi bat nabaitzen zitzaion Lazkao-Txiki gizarajoari bere aurpegian. Berez gizon alaia bazan ere, egun artan buru makur eta serio ikusi nuela sekulan etzait aztu. Arek etzeukan nerekin batere itxaropenik. Seguru asko, zerbait pentsatzeko aiña motibo ere izango zuen noski, ta:

— Suerte on bat opa diat, Lasarte —esanik, des-
peditu edo agurtu ninduen.

Negarra ere oso urrean zeramala iduritu zitzai-
dan, gure etxetik aldegiterrakoan.

Alaxe, lentxeago genion bezela, Azpeitiko Joxe
Lizaso, gure arreba ta alkarrekin joan giñan Oriotik
Donostira tasis batean medikuarengana. Don Kar-
los García del Río zan diodan mediku sonatu au.
Donostiko Amara partean zeukan despatxoa, ain
zuzen. Gaur ez dakit jarraitzen duen. Ogei ta amar
urtetan gauzak asko aldatzen diranez, ez litzake
arritzekoa izango erretiroa arturik egotea ere.

Dana dala, arenganako bidea lentxeago billatu
baldin banu, beste txori batek kantatuko zuelakoan
nago. Itz gutxiko gizon serio, argi aparta ote zan
daukat errezeloa. Neri, ongi miatu ondoren, arrazoi
auxe eman zidan:

— Ebakuntza egin bearrean zaude, ta azkar gai-
ñera. Ez dago ezertarako astirik, len denbora asko
alperrik galdu dezulako. Joan zaitez ospitalera segi-
tuan. Nik telefonoz ara deituko det, eta gela presta-
tuko dizute. Biar goizean bixita egingo dizut. Zu
lasai egon bitartean.

Alaxe, urrengo egunean an dijoakit beste medi-
ku batekin zuzen asko, bezperan agindu bezelaxe.
Biak sabel aldean eskuz miaketan jardun zitzaizki-
dan ea nun artzen nuen miñik geiena; ta, alkarren
artean itzegiñez, aldegin zuten gelatik kanpora.

Geroxeago eraman ninduten beko sala moduko
batera; an plakak atera, radiosetan ikusi zer neu-
kan, eta berriro goiko gelara; odola kendu analiza-
tzeko; askorik ez nuen edukiko noski; gero galanki
sartu zidaten, beintzat.

Ainbeste prueba egin ondoren, ebakuntza, ez
nolanaikoa ere. Baiña onik irten zanean, ez nintzan
asarre. Karlos Sanz Aziñek operatu omen ninduen.

Baiña etzan bera bakarrik; iru edo lau mediku alkarri laguntzen jardunak izango ziran. Adibidez: Azpiroz, Olaso, Julian Bereziartua ta abar.

Ondorengo egunetan bixitatzera joaten zitzaizkidan, eta bertsolaritzaren argibideak jakin nairik batez ere. Oso ongi portatu ziran nerekin mediku jaun jator aiek.

Ortik aparte, berriz, ospitalean bertan bazan moja atsegin bat. Zenbat mesede egin zidan, Jaungoikoak bakarrik daki. Ta enfermeroak berdin. Pasatakoaz aztutzea gertatzen dala esan oi da; baiña ez beti. Nik aiek gogoan ditut.

Dana dala, orduko ixtori guztiak idazteko denbora asko bearko nuke; ta, ontantxe utzirik, lengo tokira itzuliko naiz; berriro Zaldibi aldera, alegia.

Telleintxo

ORDIZIN *Gau-txori* ostatua antolatu aurretik, Zaldibiko Bentaberri, zegoen bezela, Telleintxori saldu ziola Joakiñek entzun genion ango jendeari bein baiño geiagotan. Nik erositako prezio berdiñean saltzen det pasadizo au.

Telleintxoren izenik eta apellidorik ez dakit, emen garbiro adierazteko. Zergatik ote da ori? Baserri bat bazuen berea Bentaberritik goraxeago, oso urrean, Telleintxo izenekoa. Ura izango zan, seguru asko, motibo berezia gizonari Telleintxo deitzeko.

Nik sekulan ez det oiturarik "Zuk nola dezu izena?" iñori galdetzeko; ta gero ezjakiñean aurkitzen naiz geientsuenetan.

Joxe Migel Iztueta Lazkao-Txiki zan ortan artista galdetzen eta gogoan artzen, bietan.

Beraz, goazen, ba, aurrera. Diodan Telleintxok, bere familiak lagundurik, ostatuko martxa erabili zuen Bentaberrin urte batzuetan.

Garai artan, soiñu jotzaille ona bazuten errian bertan: Arretxe. Alkarrekin pasatzen genituen eguna ta gaua edo goizaldera bitarteko orduak, motzak ez baziran ere, Telleintxoren aginduetara

makurturik. Soldata ordaintzen ona zan, baiña bai lana galanki eragin arazten ere. Eskerrak orduko sasoiari. Gaur pozik artuko nuke alakoa.

Telleintxok, bertsozale purrukatua zalako, noiz-nai moldatzen zituen jaialdi politikak, eta erriko jendeak joera aundia zeukan Bentaberrira. Kamioz oin-bide ederra zegoenez paseatzeko, aitzaki dotorea askorentzat, eta aprobetxatzen bazekiten.

Lazkao, Olaberri, Idiazabal, Segura, Zegama ta oietako ezagunak ere prankotan ikusi genituen, denbora pasa joanik; eta bertan gelditu gaiñera afaltzen. Ori gazte jendeak egin oi zuen jeneralean; zarrak nekez, etxerako kezka ere norbaitek bear baidu.

Zar batzuek egun osoa ta gauaren zati bat ere Bentaberritik aldegin gabe pasatzen zuten. Baiña oiek Zaldibin bizi ziranak eta gure lagun ixtimagarriak izaki, ordea. Bertsoaren maitale sutsu utsak. Era berean, langintza orren sustrai balioso guztiak eta diximuloko tranpak errez ezagutzen zituztenak.

Lazkao-Txikik, an ibili oi zanez, jasoko zituen banaka batzuk gogoan. Baita txarrak bezela onak apartatu ere dotore asko, bakoitzari bere prezioa emanez.

Baiña ixiltasunez eta errespeto osoan egonik bere tokian. Aren zalapartarik etzuen iñork entzungo. Ortaz konturatu nintzan ni lenengo ikusi nuen egun berean.

Dana dala, alaxe genbiltzala, Telleintxok egun batetik bestera itxi egin zuen Bentaberriko ostatua. Berak jakingo zuela zergatik edo nola uste det nik; eta andik denbora gutxiren barruan ostatu berri bat iriki baserrian bertan, Telleintxon alegia, eta lengo martxa berdiñean asi ez-ezik, jarraitu ere lanean.

Berebiziko jende-taldeak biltzen zitzaizkion. Guk, sarritan bertсотara joaten giñanez, ongi baiño obeki ikusten genduen ori.

Baserrian ganaduak ere edukitzen zituen. Ortik aparte, berriz, beiak ernaltzeko zezen ikaragarri bat etxeordekoan, ukuillutik aparte, tentaziorik gabe ta bakardadean lasai egoteko moduan. Bestela, gaitzo amorratuak jartzen dira sasoi betean dauden zezenak, iñun errenditu eziñik, beiak bixtan baldin badauzkate beintzat.

Telleintxoko ura, berriz, auskalo zenbat pentsu janik zegoen. Ikusgarrizko animalia iduritu zitzaidan, paraje artan edukitzeko. An inguruko baserrietako beiak estalita bakarrik etzeukan bere burua mantentzerik, kanpotik iñork eraman ezean. Baiña zezen ederra zeukala ta gustora aurkitzen zala zirudien etxeko nagusia, besterik gabe.

Gizon kapritxoso purrukatuaren antza artzen nion nik ari.

Langillea ere bildurgarri oietakoa omen zan, zaldibitar askoren iritziz; eta ez naiz batere arritzen, egun batez ikusi nuena gogoan izanik.

Goizeko ordubatean joan jangelara ta onela esan zigun belarriaren ondoan, baju antzean, beste iñork entzun etzezan:

— Aragi, mondeju ta oietatik oraindik badaukagu, baiña jende geiegi sartu zaigu afaltzera, berandu gaiñera, ta ogiaren faltan gaude. Zuek, bertso saio bat luze samarra egiñez, jendea entretenitzen saiatu zaitetze mesedez, nik ogia ekarri bitartean.

Alaxe, presaka aldegin zuen jangelatik. Nora ez genekigun eta asi giñan, ba, kantuan: nagusiak agindu zigula jendea kontentu edukitzeko ta abar. Nunbaitetik ekin bear derrigor, ezer berririk ateratzekotan, egun guztian eta gauean ixildu gabe bezelatsu artan jardunik geundenez.

Goizeko ordu batean oeratzeko garaia bazala esan zitekean noski; baiña, ala ere, ari giñan beintzat al zana egiten. Entzule faltarik etzegoen. Txalo

otsak ugari ziran, parre algara gozoak ez-ezik; eta nagusiarri, agertu orduko, galdetu zion Uztapidek:

— Nun izan zera?

— Ni? Ordizin.

— Zaldibin ez al zan ogirik?

— Ez dakit. Akaso bai. Baiña nik an daukat panadero ezaguna. Bein ere ez nau utsik utzi, ta gaurko ontan ere ekarri det zaku galanta, leporaiño beteta.

— Nola ekarri dezu: kotxean?

— Ez; bizikletaren gaiñean. Neroni jarri, ogi zakua bizkarrean artu ta berealaxe etorri naiz. Orain osaturik gaude. Etxe ontatik ez degu iñor gosez bialdu nai. Gu beste askori ematen dakigunak gera, geronek jango ez badegu ere.

Arrazoi dotorea Telleintxorena. Uztapidek zirikatu zuen kasoan, gustatu zitzaizkidan galderak eta erantzun zorrotz auek.

Onenbestean bukatzea obeko det, Lazkao-Txiki-ren saillean sartzeko.

Gaintza

ZALDIBIN alkar-izketak asi ziran gure artekoak, ain zuzen. Baiña bertsolari bezela Gaintzan ezagutu nuen, eta garbiro idatzirik utzi nai nuke orduko pasadizoa, bada ez bada ere, dudarik daukanak seguru jakin dezan.

Sarritan utsaren urrengo disputak sortzen baidira lagunarte batzuetan an edo emen, eta denak jakintsu bezela mintzatzen nabaitu izan ditut nik ainbat alditan.

Deskuidorik gabe iñor ez gera bizi, ordea. Neronek ere okerreko anka-sartzeren bat egin nezake, zuzen nabillelakoan. Ez litzake lendabizikoa izango gaiñera. Ori aitortu bearra daukat. Gizonari zentzunik ez diola beti berdin laguntzen ongi dakigu. Dana dala, goazen, ba, Gaintzan gertatu zanaren berri ematera.

Zein urte zan seguru ez dakit, ez illaren eta egunaren fetxik ere, Lazkao-Txikirekin artu-emanetan edo bertsoan asi nintzan ura. Baiña, nolana ere, aspaldiko kontua da: 1957-an edo orrelatsu agian.

Gaintzara Uztapide ta biok joan giñan, beste leku askotara bezelaxe; ta eguerdiko bertso-saioa plazan moldatu genduen, agindu zigutenean.

Uztapidek ezagun zuen eztarri aldetik juxtu antzean zebilela, katarroaren etorrera edo otzaldiren batek eraginda igoal. Umedadeak ere badaki ezterrira jotzen iñoiz. Neronek probatu det ori bein baiño geiagotan.

Alaxe, plazako lana bukatu ondoren, onela zion Uztapidek:

— Gaur ez diat gauz onik. Arratsaldean kantatzeko ez nauk gauzako. Ta ori bakarrik ez dek. Ostatu barruan ere naiko dizkik or biltzen dan jendeak bertsoak.

— Zu ez estutu beintzat. Ezin badezu, neronek bakarrik al dedana egingo det. Orain ez dago beste erremediorik.

— Ez; etzegok, ba —erantzun zidan penaz beterik.

Baiña bazkal ondoan an dijoakigu Lazkao-Txiki. Gure maian exeri ta kontu kontari gustora mutilla. Uztapidek poz aundia artu zuen, nik ere bai, ikusi utsez.

Geroxeago, kafez, patarrez, puruz eta danetara osatu ginduztenez, irurok kantuan asi giñan.

Baiña goizean dudan zeukan eztarria, erabat itxi zitzaion Uztapideri; ta an bateonbateg Lazkao-Txiki esan zion ea plazan kantatuko ote zuen Lasarteri laguntzeko.

Lenengo, ezezkoan bezela, jarrera serio samarra nabaitu genion. Baiña azkenerako konformatu gure Joxe Migel Iztueta.

Ordua iritxi zan garaian, igo balkoira ta ekin genion bertso osaketari gai librean, urte aietan oitura gendukan antzera; eta naiko saio polita irtengo zitzaigun, jendearen iritziz. Txalo mordoska entzun genduen beintzat, eta ori seiñale ona dala ez nuke dudarik jarriko.

Lazkao-Txikirenganako arreta berezia neukanez, nik ari begiratzen nion zorroztasunez, belarriak

erne zirala; ta, ateraldi dotore batzuk jaso nizkionean, erabaki nuen nere baitan:

— Au bertsolaria dek, eta ezagutuko dik jendeak denboraren bidez.

Beste gauza askotan deskuidatuko nintzan, baiña artan ez noski. Ortxe ikusi zan nik espero nuena.

Gaintzan plazako saioa bakarrik etzan izan. Afalondoan, sasoi ona gendukanez, aprobetxatu gabe ezin utzi ta segi kantuan, noiz ixildu ez genekiela.

Soiñu jotzaille bat ere lanerako gogotsu zegoen; eta, txandaka alkarri laguntzen geniola, parranda izugarria egin genduela gogoan det oraindik. Goizaldera artekoa an egon zan jendeak etzuen ipurdiko otzik, guk ez-ezik.

Geroztik Gaintzara joan giñanetan, ez nuen ikusi Lazkao-Txiki. Baiña ordurako txapelketan batean eta bestean zebillena omen zan, apizionatuetan edo bigarren maillakoetan seguru asko; eta geroago, berriz, 1962-garren urtean, lenengo mailara pasa zitzaigun, indartsu bezin trebe.

Nik Donostiko finalean ikusi al izan nuen, eta asko gustatu zitzaidan. Diodan au ez daukat ezkutatzerik, bakoitzari berea aitortzekotan. Beraz, ez det uste iñork gaizki artuko didanik nere iritzia.

1962-an egindako lan dotore arek frutu ugariak eman zizkion Joxe Migel Iztueta Lazkao-Txikiri, ta danak merezi zituen dudarik gabe. Andik aurrera asi baizan erriz erri bertsoan, lagun berriz osaturik eta txanpon ale batzuk eskuratzen.

Urte aietan, da gerora ere, ez genduen gaurko bertsolari auk bezela dirurik irabazten. Gauza gutxiren truke kantatzen oiturik baigeunden. Baiña berez zintzoa danari pezta batek duroa balio dio, ta Lazkao-Txikik etzuen alperrikako gasturik. Nik neronek ere ez. Ortan biok berdintsuak giñala pentsaturik egoten naiz.

Lagunartean, ordea, ongi portatzea gustatzen zitzaion. Etzuen bere bururik atzean gordeko ostatuetan. Baxo erdiak edo beste edozer izanik ere, mostradorearen ondora inguratu oi zan azkar, eta poltsatik dirua atera ango zorrak ordaintzeko, txanda zetorkion bakoitzean.

Orixe da gizon fiñak bear duena, nere iritziz beintzat; eta Lazkao-Txikik bazuen doai ortatik baten partea. Gazte denboran ezer gutxirekin ibilitako mutilla zanez, gaitz ikusia ta larre motzean oitua izaki, gu bezelaxe.

Dirua maitatzen ikasteko ez dago xixtima oberik. Nork bereari eutsi ta beste iñori ez kendu, al bada beintzat. Oiek dira bi gauza garrantzitsuak.

Lazkaomendi

LAZKAO-Txiki ta ni, Lasarte, garai txarrean jaio giñan. Gerratearen tristurak eta ondorengo gosete luzeak supritu arazi zigun ederki.

Orduko gurasoetan antzu gutxi ziranez, famili aundi asko ikusten zan, nola baserrietan ala kaleko etxerik geientsuenetan; eta denak ongi ezin mantendu, aukerarik ez dagoenean, Zenbat ama ondradu bizitu ote ziran naigabez beterik? Penagarria benetan aien izakera. Baiña, ala bear zalakoan, segi aurrera etsi-etsian. Esku artean diru gutxi ta lana galanki.

Beste aldetik begiratu ezkerro, ordea, aberastasun bikaiña seme-alabetan. Orrek ere badu noski bere meritua.

Joxe Migel Iztueta Lazkaomendiko Abaliñe base-rrian jaio ta azi omen zan. Nik ez dakit zenbat senide ziran. Ainbeste kontu erabili genduen alkarrekin, baiña nik sekulan ez nion galdetu, ta berak etzidan esan. Etxeko familiko gora-bera guztiak kolkoan gordeta edukitzen zituen diximuloz eta ixiltasun osoan. Ortan arrazoi zeukan.

Iñoren akatsak kanpora ateratzen ari danak errespetoa galtzen du, ta usai txarra zabaldu gaiñe-

ra utsaren truke. Kritika gutxiko gizona zan Lazkao-Txiki nerekin zebillenetan. Gaiñontzean ez dakit zertaraiño sartu ziteken, norbaitek zirikatzean edo abar.

Abaliñe baserrian Joxe Migel eta auek zenbat anai-arreba jaio ta azi ziran, gaur oraindik ezjakiñean nago. Ortik pentsatu zenezake, irakurle, Lazkao-Txiki zanak nola gordetzen zituen gauza asko. Ori oso inportantea da neretzat; errezkerian berriketan jardutea baiño obea. Galdetu ezkeru, argibidean jarriko ninduen; baiña ni ez nintzan ortaratu bein ere.

Oraindik urte asko ez dirala, etxeko arreba tratoreak azpian arrapatu ta il zitzaioten; eta antxe izan giñan, Lazkaoko elizan, beraren illetara joanik.

Nik Joxe Migel ikusi nuen gure ondotik pasatzerakoan, guztiz buru makur eta triste. Egun artan etzion iñori kasorik egin nai, arrazoibidez noski.

Gero, andik denbora gutxira, bertso-saio bat gendukanez, alkartzea egokitu zitzaigun; eta onela eman zidan izbidea:

— Lengo egunean Lazkaon intzan, Lasarte, gure arreba zanaren illetan.

— Bai. Beste lagun batek deitu zian telefonoz gure taillarrera, ta biok joan giñuzean aren kotxean.

— Naiko ongi portatu ziñaten da eskerrik asko.

— Ez daukak eskerrak eman bearrik, Joxe Migel. Oiek txandaka gertatzen dituk.

— Bai. Alaxe dek, Lasarte. Nik neretzat ama bezela juzkatzen nian arreba ura. Baiña il uan zoritxarrez, eta kito —erantzun zidan seriotasun aundiz Lazkao-Txikik.

Diximulatu eziñezko miña zeukan barruan, eta azalean nabarmen asko, naiz ta lagunartean beste-lako itxurak erabili arren. Ainbat ixtimatzen dan pertsona betiko ezkutatzek aztutzen zailla dan

moduko pena eman oi du sentikorraren biotzean dudarik gabe, ta Lazkao-Txiki ere ortatik osaturik zegoela zirudien.

Nerekin izketan ari zan bitartean, batez ere, ezagun zuen suprimentu dexentea zeramala gizarajoak; baiña alferrik, ordea. Emen bakoitzak zer destino daukan ez daki, ta ez jakitea obe gaiñera. Beste gaiñontzeko buruausteak aski dira bizitzarako.

Nik ezagutu nuen emakume ura. Egun batez Oriora etorri ziran senarra ta biak. Udara zan. Eguraldi ederra zegoen eta ortxe, erriko plazan, topo egin genduen alkarrekin. batere uste gabe. Beraiek inguratu zitzaizkidan, ikusi ninduten bezin laixter:

— Egun on, Lasarte —esanez. Eta:

— Bai zuei ere, etzaituztet ezagutzen baiña.

Ta gizonak onela dio:

— Au nere andrea da, zure lagun Lazkao-Txiki-
ren arreba, ta ni koñadoa.

— Ederki. Zorionak biori. Zer: Orio bixitatzera etorri al zerate?

— Bai. Aspalditxoan ari giñan esaten egun bat kosta aldean lasai pasa bear genduela, ta gaurko au artu degu gere kontura. Orain ondartzara joan nai genduke lenengo, ta gero nunbait bazkaldu.

— Ortarako ostatu onak billatuko dituzute emen —erantzun nioten.

Alaxe, kontu kontari jardun ondoren, apartatu giñan alkarrengandik, betiko noski. Nik dakidala, geroztik ez det itzegin andre-gizon aiekin, da onez-kero zailla izango da, biak illak omen dira ta.

Andrearena banekien, baiña gizona noiz il zan gaur oraindik ez dakit. Ez baidet iñori ezer galdetzeko oiturarik. Arretaren falta ote dan dirudi jokabide orrek. Lazkao-Txikik, berriz, etzuen etxeko konturik sekulan aipatzen.

Izan ere, nik bertso-lanari utzi niolako, azken urteetan oso gutxitan alkartu oi giñan. Noiz edo noiz bakarrik, eta aietan izketan aspertu ezin iñolako moduz. Lengo pasadizo zarrak berritzen astea aski, denborak aidean aldegitako.

Ara or gure arteko konfiantza zer klasetakoa zan. Nik pentsatzen dedanez beintzat —au nere aldetik diot—, Lazkao-Txikik berak ere berdintsu esango lukelakoan nago, gaur bizirik balego.

Dana dala, goazen aurrera, badago zer itzegiña noski ta.

Joxe Migel mutikotan, Lazkaomendin eskola txiki bat zeukatenez, an ibili izango zan ikasketak egiten andereño batekin. Denbora gutxian, ordea. Orixe zuen pena bakarra aztutzen etzitzaiona bein ere.

Bestela, ikasten eta entzundakoa gogoan artzen azkar purrukatua omen zan. Beraren aitormena da au; baiña ez arrokerizkoa, benetan sentitzen zuelako esana baizik. Eta arekin batera ibilitako beste norbaitek ere gauza berbera aitortu izan du: Lazkao-Txikik oso buru argia zuela.

Eskolarako alegia balio duenari laguntzea egokia litzake, ta merezi luke gaiñera. Baiña, ezin danean, ulertu bearra dago, ta kito.

Baserritarrak, fraile, apaiz eta mojak ugari antzean ezagutu genituen len garai batean. Arantzazura edo beste komentu batzuetara mutil da neska koskorretan eramaten zituzten gurasoak estudiatzera, errietako apaizen bidez eta abar. Baserri alde on samarretakoak geienetan.

Baiña den-denak etziran an aurrerako gelditzen. Bazekiten, eskolaz jantzitakoan, aspertu zirala ta komentutik kanpora aldegiten ere banaka batzuek. Aien pentsamentuaren berri jakiten errez ote zan? Zerbait erabiliko zutela buruan bixtan dago, diximulo dotore askoan, geroko etorkizuna

nundik eta nola eskuratuko al zan nekerik gutxi-
narekin noski.

Lan bat gustokoa ez danean, bestearen billa aste-
ko eskubide osoa omen du pertsona bakoitzak.
Orain, bigarrena nolakoa egokitzen zaion, ortxe egon
liteke koxka. Baiña estudiante jende ori ez da tontoa,
eta salbatuko dalakoan nago, iñun ezer baldin bada
beintzat, naiz eta urtetik urtera gauzak estuagotzen
dijoazen, eta aukera urriagoak dituzten arren.

Lazkao-Txiki gaztetan Arantzazura eramán balu-
te, ez dakit fraile egingo zan; baiña eskola galanta
artu edo ikasiko zuela bai, artarako almen aundia
zuenez.

Garai aietan, ordea, baserrietan aurrerapenak
falta ziranez, askorentzako sortu oi zan lana, eta
gutxirentzat zer jana. Ori orrela izanik, denbora ta
etorkizuna biak batera alperrik galtzen zituen ordu-
ko gaztediak.

Ez da derrigorrezkoa denak karreradun izatea,
ortik bakarrik ezin liteke gizarte bat bizi ta. Bai,
ordea, opizioen baten jabe egitea, al bada, bestela
beti nolabait eta penoso ibili bearuko du ta.

Len morroiak aukeran ikusten genituen bazta-
rretan. Peoiak ere bai. Zergatik erreza da ulertzen:
taillarretarako balio etzutelako, dudarik gabe.

Lazkao-Txiki, lenengo, igeltsero lanetan asi
omen zan errian bertako nagusi batekin. Ez dakit
opizio ura ikasten edo peontzan; baiña urte batzue-
tan artan iraun izango zuen seguru asko, nik en-
tzuera dedanez.

Igeltserotza ez da batere lan erreza eta garbia;
zikiña bezin astuna ere bai zenbait aldiz beintzat.
Baiña dirua irabazteko egokiera sarritan ematen
duena dala badakigu. Ixtimazio izugarritzkoa era-
biltzen dute, ortan esku egoki samarrak diranak
batez ere.

Langintza klase guztietan gertatzen da diodan
au: batzuk artetsuagoak besteak baiño. Gizonetik
gizonerako aldea, begiratu utsez antzematen zaiona
ta beti izango dana. Orrek ez dauka bueltarik eta
goazen aurrera.

Lazkao-Txiki soldadutzara joan baiño len ibili
ote zan igeltsero bezela, edo andik etxeratu ta gero,
orixe ez dakit, eta bere ortantxe utziko det, bada ez
bada ere. Ez nuke utsegiterik nai iñundik iñolaz.

Faubrikan

URRENGO pausoa faubrika batera eman zuela dirudi Lazkao-Txikik: *Fundiciones Arriaran*, oker ez banago beintzat.

Emen ere ez det arrasto garbirik zenbat urte pasa zituen lanean. Baiña baliteke denbora dexente egitea, eta egunez bezela gauez seguru asko erreleboan txandaka ibiltzen ote ziran daukat errezeloa *Fundiciones Arriaran*-go langilleak.

Faubrikan bere eginkizuna bete ta bertan erropak aldatuta, sarritan joaten zan, etxeratu gabe, bertsotara zuzenean ainbat erritara Lazkao-Txiki zana. Ori ez da gezurra, neronek dakidana baizik.

Vespa marka edo izeneko moto bat luzaroan erabili zuen berekin. Jakin nai nuke zenbat kilometro pasa arazi zizkion. Udaran gaitz erdi; baiña neguko eguraldi txarretan otzaldi galantak artzeko tresna apraposak dira moto oiek.

Ala ta guztiz ere, itz emandako tokira zintzo agertzen zekien Joxe Migelek, eta orrek adierazten digu garbiro gizonki jokatzeari gustatzen zitzaiola, beste esplikaziorik gabe.

Fundizioko langintza bera ere ez da, ba, atsegiña ta gozoa. Indar aundiko labeak sutan dauden garaian, ez uste izan aien inguruan irauten giro danik.

Pertsonaren sabel eta barren alde guztiak berotasunak erasan da egosten jartzen dira, ta gero egarri izugarria sentitzen du an dabillanak. Ardoa edo ura derrigor bear, asko gaiñera, gorputza pixka bat freskatzekotan.

Zumarragako Orbegozoren Laminazioan urtemordoan lanean jardundako aitona zar bati entzun nion, egun batez berak sei litro ardo edaten zituela lantokian bakarrik egun bakoitzean, eta sekulan etzala mozkortu; izerditan joaten zitzaizkiola danak kanpora.

Nik ez dakit Lazkaoko Fundizioa nolakoa zan. Joxe Migelek ez baizidan bein ere esan. Faubrika barruan, ordea, Fundizioko lanak ez-ezik, bestelakoak ere ugari izan oi diranez, agian andik aparteko zerbaitetan enpleatu ziteken Lazkao-Txiki. Orixe da nik erabaki eziñezko gauza.

Baiña iñoiz eta iñun ez nion entzun lantoki txarra zeukanik. Ezta ere deskontentu zebillenik. Faubrika artan, beraz, etzuen keja aundirik edukiko bere bizimoduz.

Ortik aparte, berriz, izakera diximulokoa nabaitu genion beti. Ez nun-nai ta edozein moduz baztarretan saltsak jartzekoa.

Zer adierazten digu orrek? Gizonak nolana edo gutxi pentsaturik ez duela itzegin bear. Iñori kalterik egin nai ez badio, arrazoi juxtua.

Beingo batez gogoratzen naiz. Erri batera bertso-tara joanik denbora gendukanez, saioa asi aurretik ostatuan amaiketako pixka bat edo legea pasatzen ari giñala, gizon aundi usteko batek ekin zion gaizki esaka beste adiskide itxurako batengatik, eta izugarrizkoak esan ere gaiñera.

Guk entzun genizkion ixil-antzean; eta, ostatuko gastua ordaindu ondoren, maitik jeiki ta kanpora irten orduko, auxe esan zidan Lazkao-Txikik:

— Ikusi dek, Lasarte, iñork ezer galdetu gabe, nola itzegin duen gizon orrek eta zer fama eman dion besteari? Baiña biak alkarrengana biltzen diran garaian, gure aurka jardungo dituk oiek gustora.

— Bai noski. Ortan dudarik etzegok, Joxe Migel, ezin eramana zeukatek eta —erantzun nion.

Zer da kontua ta andik laixter ikusi nituen, alkarrekin lo egin balute bezela, gozo asko izketan biak, eta pentsatu ere bai: “Lazkao-Txikik dik emen arrazoi osoa”.

Ez da batere arritzekoa. Orrelaxe gera gizakiok: gu onak eta beste batzuk txarrak. Baiña iritzi samin-garri oiek baztarrera utziko bagenitu, obe litzake.

Dana dala, jarraitu dezaiozun daramakigun martxari.

Piensos Cometa

LAZKAO-Txiki, alako batean, lantokiz aldatu zitzaigun. *Fundiciones Arriaran*-dik irten eta *Piensos Cometa* izeneko faubrikan sartu. Naparroako Iruñen egon bear du pentsu etxe orrek, eta emen Gipuzkoan ere edukiko ditu noski almazeanak: Beasaiñen, Zaldibin da leku geiagotan ere bai, seguru samar.

Lazkao-Txiki *dos caballos* deitzen zioten furgoneta batekin ibili oi zan baserriz baserri pentsua banatzen. Baiña bere eginkizun nagusia saltzea zala uste det, naiz eta bi edo iru zakukada bakarrik aski zituenari berak eramaten zizkion.

Jeneralean, batetik bestera ibili, bezero bakoitzak zenbat falta zuen apunteak artu, ta bialdu danak batera Iruñeko faubrikatik zuzenean noski. Nik alamoduz entzundako errezeloa daukat beintzat.

Lazkao-Txikik pentsu asko saltzeko erreztasun aundiak zeuzkan. Alde guztietan ezaguna ta ixtimatusa zanez, nun-nai atepak zabalik. Orrek zenbat balio duen probatuta jakiten da. Edozein etxetara joanik izketan asteko ere, alde ederra adiskide izan edo ez.

Emen, Gipuzkoan eta Bizkaian, pentsu saltzaille ugari ezagutu genituen garai aietan, Naparroan bezelaxe; ta denak nai aiña ezin salduz ortxe borrokan eskeinka, baserrietan batez ere, ta berdintsu kale aldean, granjak zeuzkaten tokietan.

Lazkao-Txiki Iruñeko faubrikara sarritan joaten omen zan, saldutako pentsuen notak edo agiriak entregatzera, gero andik nora ta zenbat bialdu seguru jakin zezaten.

Telefonoz ere egingo zuen ori batzuetan noski. Baiña, bidenabar, alde artako baserritarrak bixitatzeko aukera sortuko zitzaion, eta aprobetxatzen alegindu arrazoi osoz.

Berebiziko ixtori zelebreek bazituen Naparroako jendearenak. Kontatzen asten zan bakoitzean, entzuten zeudenak parrez ler egiñik sarritan ikusi nituen. Izan ere, doai aparta zeukan ortarako gure Joxe Migel Iztuetak.

Baiña ez det uste pentsu saltzea edo biajante lana gogozkoa zuenik. Nik egun batez galdetu nion:

— Gustora al abil edo zer diok, Joxe Migel?

Eta:

— Ai, Lasarte! Ez dakik asko nere berri —erantzun zidan—. Nunbait ibili bearra zeukagu, ta ementxe erdi asperturik. Ez pentsatu langintza au itxura daukan bezin erreza ta gozoa danik.

Aurpegiz osatua bearko du, biajante ibili al izateko; ta petxu lasaikoa, gaiñera. Edozer gauza entzuteko ta esateko ajolarik ez diona, alegia; edo diximulatzen dakiena, gutxienez ere. Beraz, askorentzat naiko eginkizun zailla.

Nik biajante zebiltzanak ugari ezagutu nituen taillarrean, lanean ari nintzala; ta aiengandik jakindako pasadizoak dauzkat gogoan. Batzuek bazekiten gauzak umore onez artzen, geiegi estutu gabe, ta pazientziz. Baiña ez, ordea, den-denak.

Egunero kotxean kilometro-mordoska pasa, gasolinetan gastua egin eta ezer saltzen ez bada, nekez etxeratu leike gizona gustora. Emen errezetik zer dator esku artera? Sarritan utsa.

Lazkao-Txiki zanak ori adierazi naiko zidan, itz gutxitan noski. Andik laixter gelditu zan beintzat pentsu saltzetik, naiz eta dirua poliki irabazi. Betiko ibiliz aspertuta egotea ere baliteke.

Agian oker jardungo naiz izketan; eta, ala pentsatzen duen norbait balego, barkatu dezaidala mesedez.

Baserria

DANA dala, berez, baserrian jaiotako semea zalako edo ez dakit zergatik, baiña oso ganadu-zalea sentitzen nuen Joxe Migel; eta, azkenean, Zaldibiko partean salgai zegoen baserri bat erosi zuten berak eta beste lagun zuen batek sozio, ta txerritegia jarri etxean obra eginda.

Urte batzuetan, txerrikumeak azitzen eta saltzen alegindu ziran. Baiña andik etorkizun aundirik etzegoela ikusita, ganadura pasa. Torrelavega-tik bigantxa edo ernaldurik zeuden bei gazteak ekarri ta umatzen ziran garaian saldu beraien txal edo txekor da guzti.

Terreno sailla alanbrez ongi itxita zeukatenez, kanpoan larrean libre erabiltzen zituzten beiak, ala gobernatzen lan gutxiago ematen ziotelako, umatu bitartean batez ere. Egunean bein nola zebiltzan ikustea aski. Ukuillura gauez; eta egunez, eguraldi txarra zegoenetan sartu zitezen, ateak irikita edukitzen omen zituzten beti.

Etzuten bei asko eramaten Torrelavega-tik. Adibidez, aldiko sei geientsuenetan. Lazkao-Txikik berak esanik dakit diodan au, eta urte batzuetan martxa artan iraun zuten.

Baiña sozio lagunak aspertu itxurak artu zituan baserriko lanez; eta alako batean, bere erdi partea saltzea pentsatu ta Lazkao-Txikiri eskeiñita, prezio kontuan zerbait itzeginda, erabaki garbirik gabe utzi tratua lenengo billeran.

Baiña andik denbora asko baiño len, erri batera bertotara joan giñanez, gosaltzeko garaian biok bakarrik maian geundela, esplikatu zidan Lazkao-Txikik pasadizoa: nola sozio lagunak aditzera eman zion baserriaren erdi partea saldu nai zuela, alegia, ta:

— Duda pixka bat zeukat, Lasarte. Ik zer egingo uke nere tokian jarrita?

— Nik artu bi begiak itxi ta itxu-itxuan, baserri polita izango dek ura ta.

Orixe esan nion eta ongi iduritu zitzaion. Ez dakit zenbat ordaindu zion sozio lagunari erdi partea. Prezio konturik ez nion galdetu; edo, berak esan bazuen ere, ez daukat gogoan.

Dana dala, geroago, berriro alkartu giñan egun batez, onela zion Lazkao-Txikik.

— Orain baserria dana nerea dek eta oso kontentu negok. Lasarte, ik eukan arrazoi.

Gaur ez daukate ixtimazio izugarririk baserri askok, ikusten degunez. Baiña, garai artan, saiatu ezkerro ogibidea bazalakoan nago.

Lazkao-Txikiren baserri polit arek lur sail aundiak etzituen izango noski. Baiña zeuzkanak bai onak eta eroso apartak, danak edo geientsuenak beintzat etxearen jiran bertan.

Orrek asko errezten ditu eguneroko lanak. Zerbait lekutan, uztarriko idi pareta baiño geiago da an asto edo zaldi bat.

Azkeneko urte batzuetan, berriz, etxea oso dotore jarria omen zeukan gure Joxe Migelek. Neronek ez det ikusi, baiña alamoduzko kontuak zabaldurik daude.

Lenengo, teillatua berritu ziola bai-bainekien, berak esanda. Urrengo zertara jo zuen ez, ordea. Etxeari kanpotik, paretak bearra zeukaten tokietan, konpostura egin noski. Ongi pentsatua. Buruz etzebillen gaizki. Azkenik, berriz, dana osatzearren, atze, aurre ta saiets aldeak txukun pintaturik jarri, len zeukan baiño itxura obean, dudarik gabe, gaur ortarako materialak aukeran baidaude, naiz eta asko kostatzen.

Baiña aipatu ditudan oiek gutxi izan balira bezela, etxeari barren aldetik eman omen zion astindu izugarria: solairu guztiak berritu, logelak apaindu eta jantzi.

Bazeuzkan bizitzeko ilusio ta itxaropenak, itxurak diranez, Joxe Migel Iztuetak, gauzak aldrebes irten bazitzaizkion ere. Lastimagarria da, gustora zebillen garaian, naigabe beltzaren atzaparretan erori bearra.

Baiña pertsona baten bukaerak nola ez duen denbora jakiñik, gutxiena uste danean datorkio bakoitzari minberatzeko modua, ta kito.

Orain bi urte, gutxi gora-bera diot au, seguru ez dakit eta, baiña gure etxe ontara nere adiskide bat etorri zitzaidan, bere alaba ezkontzen zitzaiola ta bertsoara ea joango ote nintzan galdezka, beste lagun batekin.

— Nik bertso kontuak alde batera utzi nituela ongi dakizu zuk —erantzun nion.

— Bai; baiña emendik sei illabetera ezkontzen dira, ta beingoagatik mesede ori egingo diguzu, Lasarte, gure familiko denak zu nai zaituzte ta.

— Nik bi bertsolari onak billatuko dizkizut. Baiña neronek ez daukat joaterik, kanturako ez naiz gauza ta —erantzun nion.

Orduan, serio antzean jarririk, onela dio gure gizonak:

— Bueno! Presarik ez dagoenez, pentsatuko degu etxean, eta berriro etorriko naiz.

Alaxe, alkarrengandik apartatu ta aldegin zuen bere martxan. Baiña andik egun batzuetara, emen datorkit, ea pentsamentuz aldatu ote nintzan jakin nairik.

Nik, lenean jarraitzen nuela ta alperrik zebilela ulertzeko mesedez.

Auxe adierazi nai izan arren, beti asmatzen zuen zerbait; eta bigarren aldiko bixita artan esan zidan oso lan gutxi jarriko zigula, ta Lazkao-Txiki lagun artuta joateko. Kapritxo orixe zeukatela eta ez faltatzeko ezerengatik.

Bere jardunaren bidez, azkenik konformatu arazi. Baiezko itza eman ere bai. Lazkao-Txikiri deitu telefonoz. Arek agindu zidan: aspaldiko partez biok kantatuko genduela ta pozik.

Alaxe joan giñan zorioneko ezkonberri ta beste gaiñontzeko guztien alaigarri. Baiña neretzat egun txarra gertatu zan oso. Gaizki pasa nuen. Bazkari ederra omen zan, osasuntsu zeudenak gozatzeko modukoa. Lazkao-Txikik ere probetxu ona atera zion, apetitu polita eraman baizuen.

Nik neronek, ordea, ez nuen ongi zetorkidan jenerorik aurrean ikusten; eta ezer jan gabe antxe egon nintzan. Maian alperrik denbora pasa. Baiña etzan lenengo aldía ura. Ainbat biderrez gertatu zi-tzaizkidan klase artako kasoak.

Jendetza izugarritzkoa bildu ere, ta serbitzen zebiltzan emakumezkoak korrika ta presaka. Nik arrai zuri pixka baten galde egin nion bati; baiña ezin moldatu iñundik iñola uraxe eramateko ere.

Lazkao-Txiki aldemenean neukanez, arekin pasadizo zarrak kontatzeko aukera izan nuen, eta onela esan zidan:

— Ikaragarri gustora negok, Lasarte, baserria erosi nuelako. Suertea eduki nian. Uste baiño ohea gaiñera. Txukunduta jarri diat geientsuena, etxea bera alegia. Ik ikusi bear uke, egun batez joanda. Neronek eramango aut. Goizean etorri ta, nai deken garaian, illunabarrean, ekarri ere bai. Ez dek ezer kostatzen Zaldibitik Oriorako buelta egitea kotxearekin. Eta, gaua antxe bertan pasatzea pentsatuko bagendu, berriz, oiak prestaturik zeudek, bear dan bezela jantzita. Etzeukagu ezeren kezkarik, ik ala nai izanik.

—Ez didak nolanaiko aukera jartzen, Joxe Migel. Asko ixtimatzen diat ire borondate ona ta nereganako daukaken begirunea. Orain negua dek eta badakik baserri aldea ongi ikusteko garai egokia noiz litzaken: udaberrian edo udara-partean. Eguraldi sano antza komeni uke ortarako, ta neguan etzegok segurantzi osorik, naiz eta tarteka giro atsegiñak izan oi diran. Neretzat, belardiak eta sasi guztiak lorez beterik dauden bolada uraxe dek onena baserria bixitatzeke, ta begieri dagokien gustoa emateko ere bai noski, batere dudarik gabe. Ez al zaik ala iduritzen, Joxe Migel? —esan nion—

— Arrazoi aundiz itzegitea dek ori, ta onartzen diat —erantzun zidan—. Baiña jakingo nizek pozik joateko moduan aurkitzen aizen.

— Bai, gizona. Egingo diagu orrenbeste. Aurten ezin baldin bada, urrengo urtean. Bizirik iraun ezkerro, etorriko dala denbora seguru egon. Ala, bide batez Zaldibiko lagun zarrak ikusteko egokiera ere izango dedanez, gustora joango naizela uste diat, Joxe Migel.

Kontu oiek eta beste asko pasa genituen arratsalde artan alkartasun ederrean, eta berak ekarri ninduen kotxean. Orion illunabarrez ni utzi, agurtu ta bereala aldegin zuen Zaldibira.

Txoria bezin kontentu nabaitu nuen gure Lazkao-Txiki, bere baserriari erabat loturik. Gerora ta geiago maiteko zuela zirudien gaiñera. Ori ez da gizon buru galduaren jokabidea, zintzotasuna baizik.

Len, gure ume denboran, geientsuenak maiztar-rrak ziran nekazarietan. Nagusiari errenta ordainduaz bizitzen zan jendea. Nola ordea? Juxtu-juxtuan jateko ta jazteko aiña ondasun eskuratu eziñik, fami-
li aundi samarretan batez ere.

Gero, zergak goraka zijoazen neurrian, errenta-rik jaso edo igo ezin nunbait; eta, nagusientzat galera zetorrela jakiñik, baserriak salgai jarri zizkio-ten maiztar askori, ta:

— Nekazaritza utzi ta zertarako gaude? Nora jo genezake eguneroko ogia irabaztera?

Alaxe, buruauste ugari erabili ondoren, banaka batzuek baserriak erostea erabaki omen zuten; eta, aiek asmatu zutela ikusirik, jendea berotu ta dudatik irtenda, azkenerako erostunak ugaldtu.

Gaur nekazari gutxi egongo dira, nere iritziz, baserria besterena dutenak. Baiña orrekin bakarrik ez degu ezer esaten. Gauza guztiak galestitzen ari diranean, ez da bein ere tratu txarrik egiten, naiz eta ordaintzerakoan ala iduritu.

Dirurik ez daukanari gertatzen zaio ori: estua-
sun latzak pasa bearra, alegia.

Kale inguruan terreno sail onak zeuzkaten batzuek aprobetxatu ziran ederki. Faubrika berriak eraikitzeke ta abar enpleatu baizituzten, aoa beteko prezioan, bolada artan baztar guztietan lana buruz gain zegoelako.

Geroztik, ordea, pixkana-pixkana gauza bakoi-
tza ongi neurtu ote dan iduripena daukate pertsona batzuek. Nik neronek ez det burua geiegi nekatu nai arazo ortan, alperrik da ta.

Baiña Lazkao-Txiki zergatik itxutu ote zuen baserriak artaraiño? Bere izerdiz galanki kostata eskuratu zuelako ta mendizale purrukatua izatez aparte, bizitza sana ta aidosoa gustatzen zitzaiolako, nere ustez.

Oiek dira bi arrazoi Lazkao-Txiki zanari indar berezia ematen ziotenak.

Zartzaro polita eta zoriontsua espero gizarajo arek, etorkizuna alaxe ikusirik. Baiña kukuak oker kantatu. Ara or ixpillu garbia, gizonaren almenak zenbat balio duten jakin nai duenak gogoan artu dezan.

Nik ez det inoiz inor ikusi, baserriak erabat pozurik edo bereganaturik daukan nekazaririk. Zenbat eta lan geiago egin, orduan da eskasago bizitu diranak bai noski.

Joxe Migelek, ordea, etzeukan familia mantendu bearrik eta ezeren kezka gogorrik. Antxe, tratante gisara, noizean bein bei gazte batzuk erosi ta gero aiek saldu, al zan modurik egokienean. Jateko aiña diru irabaztea aski, ta ori errezturik zeukalakoan nago.

Penagarria gertatu zitzaion: ilusioz beterik zegoen garaian, gaixo txarrak menderatu ta iltzea.

Baiña ainbeste maite zuen baserri polit ura lengo toki berean dago zutik. Famili arteko norbaitek usatu nai baldin badu, ez dio nolanaiko erregalia utzi Joxe Migel Iztueta Lazkao-Txikik. Beraz, goazen aurrera.

Asmo onak

BESTE pentsamentu bat geiago ere bai omen zuen. Egun batez, Zarautzen alkartu giñan Joakin Berasategi Mendizabal *Sendoa* argitaletzeko nagusia ta irurok.

Lazkao-Txiki goizetik etorri zan Oriora denbora pasa; eta, gure etxe ontan egon ondoren, berak eram ninduen Zarauzko ostatu batera.

Bagenekigun nun gendukan bazkaria. Aurrez esan zigun Joakin Berasategik; eta, denborarik galdu gabe, izentatutako ordu juxtuan an geunden ezkeron maian exerita, jateari ekin genion, bakoitzak komeni zitzaigun klasetik eskatuta, lasai kontu zarrak berrituaz; eta Lazkao-Txikik onela dio itz batetik bestera:

— Liburua bukatu al dek, Lasarte?

— Bai noski. Aita Zabalak eramana dik molde-zko letrara pasatzeko. I jakiñean egongo aiz, Joakin?

— Bai; nik den-dena bazekiat —erantzun zidan—.

Biak alkarri lagunduaz ari baiziran gure liburuak prestatzen, Aita Zabala ta Joakin Berasategi au.

Lazkao-Txiki ere asita zegoen kontua entzun nuen, libururen bat antolatzeko asmoan lanean. Berak esan zion Joakiñi nere bixtan. Ez dakidana da prosan, bertsoz edo nola osatuko zuen. Txistek ere aukeran zituen arek, eta klase guztiak erabil-tzea baliteke. Nik neronek ez nion ezer galdetu, etzan bearrezkoa ta.

Baiña Joakin Berasategiri esan zion:

— Kontratoa presta zazute Aita Zabalak eta biok. Nik noiznai firmatuko diat.

Lendik itzeginda zeuden seiñalea da ori, dudarik gabe. Ta Joakiñen erantzuna berealaxe jaso zuen Lazkao-Txikik:

— Ik jarraitu zak asitako martxan lasai lanean. Kontratoak etzeukak batere presarik. Liburua bukatzerako egingo diagu, ta kito.

Tajuzko arrazoia iduritu zitzaidan. Baiña, azke-nean, ez liburu ta ez kontrato gelditu ziran bat bezela bestea. Lastima! Konfiantza geiegi artu ta gerorako utzi eginkizun guztia.

Joxe Migel gaixotu ez balitz, ongi bideraturik zeuzkaten gauzak. Sendatzeko modurik izan balu ere bai.

Uste gabeko okerra

USTE gabeko okerra gertatu zitzaion, ordea, gizagaixoari. Nik klinikan bixitatu nuen operatzeko bezperan. Joakin Berasategik deitu zidan telefonoz eguerdian, bazkaltzen ari nintzan garaian:

— Aldrebeskeria badiagu, Lasarte.

— Zer da, ba? —galdetu nion.

— Lazkao-Txikik biotzeko gora-berak omen zeuzkak, eta Poliklinikan ingresaturik zegok Donostin. Nik gaur goizean itzegin diat berarekin; medikuekin ere bai, ta biar ebakuntza izango dik seguru samar. Ire bixita bat ixtimatuko likek dudarik gabe Joxe Migelek.

— Bueno, orrenbeste egingo ziot, ba, pozik edo sentimentuz. Arratsaldean autobusa artu ta joango nauk.

— Ik ez etxetik mugitzerik pentsatu, Lasarte. Neretzat ez dek nekea kotxearekin Oriotik buelta egitea, eta iruretan edo laurak baiño len beintzat or izango naizela seguru egon. Neronek ekarriko aut Lazkao-Txikirengana, ta gero etxera eraman ere bai.

— Ongi dek, Joakin. Ire zai gelditzen nauk.

Alaxe, ni garaiz prestatu nintzan. Banekien ordua errespetatuko zuela. Ortan arreta izugarria du Joakiñek. Iruretatik minutu gutxira ementxe nuen Orion ate joka, ta bereala Donostiko Poliklinikan geunden.

Lazkao-Txikik ez omen zuen iñork jakiterik nai bera nun zegoen eta zergatik, beste batzueri endredorik ez ematearren noski. Ara: zertaraiñoko estua zan orrek erakusten digu garbiro. Gu gelara sartu giñanean:

— Ni emen nagoela nundik jakin dek ik, Lasarte? —galdetu zidan guztiz arriturik.

Joakiñek erantzun zion:

— Nik esanda. Neronek ekarri diat Oriotik koxean bixitatzera.

Alaxe, kontu kontari, denbora dexente pasa genduen. Baiña ezagun zuen kezkatu edo urduri samar zegoela, ez motiborik gabe.

Geroztik ainbat biderrez bururatu zait: “Eske-rrak arratsalde artan alkartu giñan! Gerorako utzi bagendu, akabo gure pesta!”

Andik etxera abiatzerakoan:

— Agur, Joxe Migel! Suerte ona opa diat biarko ortan! —esan nion. Eta:

— Eskerrik asko, Lasarte —erantzun zidan.

Itz oiek ditut oroigarri bezela gogoan jasorik, iñoiz aztuko etzaizkidanak.

Zer gertatuko ta urrengo egunean ebakuntza egiteko lo artu arazi ta geiago esnatu ez gizonik. Penagarria benetan!

Zenbat bixita egin ote zion Joakin Berasategik geroztik, koman zegoela, il bitarteko denboraldi luzean? Zerbait nai ta alegin guztiak alperrik.

Nik neronek ere buelta asko erabili nuen bolada artan Poliklinika aldera. Emen Orioko aitona bat

an baizeukaten sendatzera eramana; ta, ara joandako bakoitzean, Lazkao-Txiki ta biak txandaka bixitatzen nituen.

Orioko *Loretxo* jatetxeko nagusia da diodan aitona au. Berez gizon indartsua ta sana osasunez alegia. Baiña lan asko egindakoa ta gorputza nekaturik daukana. Edadez ere, berriz, oso aurrera dijana. Emen urteak apuntean egoten dira, bada ez bada, ta kontuz ibiltzea obe oiekin.

Lazkao-Txikiren ixpirituak arritzen ninduen ni geien bat. Ainbeste denboran zegoen bezela egonik, nolatan iraun zezaken bizirik pertsonak ezin nuen ulertu iñondik iñolaz ere. Zentzuna edo ezaguera galdua zeukala zirudien, eta agian etzuen suprituko. Baiña nork ote zekien seguru?

Berasategi ta biok sartu giñan bein gela barrura. Begi biak zabalik zeuzkan une artan. Burua ere zerbait mugitzen ote zuen iduritu zitzaigun; eta, nik bere eskuko beatzen tartean nere beatz bat jarri nionean, estutu egin zidan; baiña berealaxe utzi.

— Joxe Migel! —deitu genion iru edo lau aldiz. Alperrik, ordea. Etzigun ezer erantzun; eta andik aurrera, joan nintzan guztietan, leiatillatik begiratzen nion, zearo bildurturik.

Ura al zan, ba, pertsonaren egoera? Nork ez etsi, aren arnas-otsak entzunik? Negargurea ta tristura sentitzen nituen nik beintzat, eta beste geiagok ere bai noski. Ez dakigu asko bakoitzak nolako bukaera daukagun.

Bi illabete Poliklinikan koman pasa ondoren, Anti-guako *Matía Calvo* izeneko ospitalera aldatu omen zuten Lazkao-Txiki zana, eta an bost egun bakarrik iraun bizirik. Ordurako aren biotza ta birrikak ederki nekaturik egongo zirala dudarik ez nuke jarriko.

1993-ko ilbeltzaren 28-garren egunean operatu zuten Joxe Migel biotzetik, ni oker ez banago; eta

urte bereko apirillaren 4-ean lurra eman zitzaion bere gorputzari.

Bitarte ura etzan motza izango familiko jendearentzat ere. Suprimentu galanta batetik, eta onerako esperantzarik ez beste aldetik. Ori danetan okerre-na. Baiña gauzak, datozen bezela artu bearra daukagu mundu neurtu ontan.

Lazkao-Txikik emengo zorra ordaindu zuen, garaia eldu zitzaionean. Guk uste ta nai baiño len gaiñera.

Aspaldiko urte auetan biotzeko gaixotasuna modan jarri dala dirudi. Indar ikaragarrian dabil baztarretan. Emen Orion ere nun-nai ateak jotzen ditu noski, itxurak diranez. Ebakuntza kontuak maiz entzuten ditugu beintzat, eta iñor ez da arri-tzen oraintxe.

Mediku jendearentzat lana ta kezka ugari. Neretzako ez litzake ona opizio klase ori; baiña norbaitek derrigorrez edo borondatez egin bear du biziaren alde zerbait. Bestela, akabo gizon eta emakumezko askoren etorkizuna.

Nik Lazkao-Txikiri galdetu nion operatzeko bezperan, klinikan bertan ain zuzen:

— Ik lendik ez al uan ezer sentitzen?

— Aldapan gora igotzerakoan, ezker aldeko saietsean artzen nian min pixka bat. Beste gaiñon-tzean, iñun ez —erantzun zidan.

Gaitz zorroa zeukan barruan, itxura danez; eta ori omen da txarrena, batzuek esaten dutenez. Xuabe ta dotore pertsona jaten duena.

Dana dala, Lazkao-Txiki, il zanean, Donostitik zuzenean jaio zan etxera eraman zuten: Abaliñe baserrira.

Guk an ikusi genduen, beko sukaldearen alde-meneko gelatxo batean, kutxa barruan sarturik bere gorputza, larunbat arratsaldez.

Urrengo egunean, igandez, ospatu ziran Joxe Migel Iztueta Kortajarena zanaren aldeko illeta elizkizunak. Ez nolanaiko pobre oietakoak.

Sekulan ez dala Lazkaoko errian ainbesteko jendetzarik batera bildu norbaitek esanda zabaldu zan otsa. Au ez dakit egunkarian irakurri nuen edo irratiz entzun. Baiña baliteke egi osoa izatea.

Gu, Joakin Berasategi ta biok, ustez arratsaldean garaiz joan arren, elizan sartzeko tokirik ez eta kanpoan gelditu giñan, beste askoren antzera.

Bazituen ongi nai zioten pertsona pranko Lazkao-Txikik batean eta bestean. Orrelako egunetan ezagutzen dira benetako adiskide ta lagun zintzoak.

Nik neronek azken agurra bertso baten bidez egin nai nion. Baiña eliz artan etzegoen barrura sartzeko modurik iñundik iñola, ta kanpotik entzun bear izan genduen meza.

Eskerrak eguraldiak lagundu zigun. Eguzkiaren berotasuna ez da batere gaizki etortzen zutik eta geldirik egoteko.

An pena bakarra nabaitzen zitzaion jendeari, ta bera naikoa minberatzeko: bertsolari maitagarri batek aldegin zuela mundu ontatik betiko.

Azken aldiko urte auetan elizarako arreta txikia dagoela diote batzuek. Jende gutxi joaten omen da larunbatez eta igandez meza entzutera. Baliteke ori egia izatea.

Baiña norbait iltzen danean, ordea, illeta ospakizunean uste det elizak puntaraiño betetzen dirala. Nik emen Orioko berri dakit, eta beste errietan ere berdintsu ibiliko diralakoan nago, gai ortan beintzat.

Exerlekua nai duenak anak astindu lezazke, eta garaiz joan eliz aldera, bada ez bada ere. Bestela, an egon beariko du zutik, al dan bezela. Sasoiko gazteari ez dio erasaten. Baiña zar jendea errez nekatu oi da postura txarrean egoten.

Lazkao-Txiki zanaren gorputzari lur eman zitzaioneko ura, berriz, partikularra ote zan pentsaturik gelditu nintzan ni neroni, gaiñontzeko asko ez-ezik.

Igande arratsaldez jarri zuten elizkizuna; jendea libre zegoen garaian, alegia. Baiña asteko edozein egunetan egokitu balitz ere, izango zituen arek jarraitzalle ugari noski. Alde askotan baizeuzkan ezagunak eta maitasuna zioten pertsonak.

Emen Orion ordu jakiñak daude oraingoz illeta elizkizunetarako larunbatez eta igandez. Arratsaldean bostetan asiera emanik, ordubete inguruko eginkizuna artzen dute apaizak, gutxi gora-bera. Astezko egunetan, berriz, illunabarrean zazpiretan.

Baiña illeta guztietan aurretik errosarioa erretatzeko oitura dago erri ontan, beti ezagutu degun bezela. Ori ez du iñork aldatu, beste gauza batzuen antzera. Lengo martxa berean jarraitzen duela badakigu, ta goazen aurrera.

Lazkaomendin badute ermita txiki bat, oso txukuna ta polita. Joxe Migel Iztueta il ondorengo igande batez, bere animaren aldeko meza zala-ta, antxe izan giñan gu ere entzuten. Joakin Berasategi Oriora kotxearekin billa etorri zitzaidan, eta arek eramanez ninduen Lazkaomendira.

Emen, itxas aldean, eguraldi dotorea bazan ere, an baztarrak txikitu bearrean zebillen aize baldar, gordiña. Zugaitzak ederki astintzen zituen egun artan beintzat, udaberria izan arren.

Lazkaomendin bertsoan

AIZEZ ongi osatuko ote dan iduritzen zait Lazkaomendi. Altura dexentea dauka, ta terreno edo saillak soil samarrak dirudite ango askok. Babesteko, berriz, zugaitzak lirake onak. Baiña aiek urri antzean eduki lezazke, seguru asko.

Len ere ixtillu politikak ikusita gaude Lazkaomendin bertako pestetan, eguraldiak txarrera jota, batean beintzat. Tabladua toldoz estalirik zeukaten gaiñetik, erauntsiaren bildurrez. Izan ere, alamoduzko giro euritsua baizegoen.

Eta, eguerdiko bertso saioa egitera oltzadura gaiñera igo giñan orduko, aize-zartadak astintzen zituen toldo ta gaiñontzeko tresna guztiak. Ura zan pandero-otsa!

Lazkao-Txiki etzan arritzen bertakoa zalako. Baiña ni bai pixka bat. Aurrean entzuten gendukan jendetzari begiraturik, pentsatzen nuen: "Emen baze-gok bertso-gosea edo zaletasun aparta. Bestela ez ituan erdiak ere etorriko, gaurko giro trakets onekin".

Baiña bazkalondoko xaltxa atsegin zitzaioten batzuk goizetik joango ziran noski, ta aukera ezin ohea izan zuten gaiñera artarako. Ostatuko jangela

leporaiño beterik ikusi genduen; eta, ongi gobernatu ondoren, naiko pesta bertan. Lenengo bertso saioa, sarritan oi dan bezela, luze samarra, ta gero soiñua nai ainbeste.

Lazkao-Txikik dantzan egin zuen emakumezko aundi batekin. Gustatzen zitzaion dantza kontu ori, dexente gaiñera; ta bazekien dotore ibiltzen. Gaztetan ikasitakoari antzematen zaio urrutira ere.

Alaxe, soiñu-joleak txanda noiznai ematen zigunez, guk, Lazkao-Txikik eta biok, bertso-mordoska kantatu genituen bazkalondo goxo artan; eta gero kanpoan, plazan alegia, arratsaldeko lanak egin edo osatu ta libre.

Nik etxera etorri bearra neukanez, Lazkao-Txikik kotxean eraman ninduen Ordiziko estaziora. An trena artu ta Donostira lenengo. Norteko estazioan jetxi ta Amaran berriro kostako trenean sartuta, Orioraiño segidan, denborarik iñun galdu gabe.

Diodan au gertaturik bederatzi edo amar urte, bietakoren bat, izango dira onezkero, ni oker ez banabil beintzat.

Dana dala, goazen aurrera. Ez dakit, seguru esateko, zenbat aldiz jardun naizen Lazkaomendin bertsoan. Baiña gogoan dedana auxe da: lenengo joan nintzanean, Mitxelena zana nuela bertsolari laguna.

Moto *Vespa* izeneko bat erabiltzen zuen urte aietan Mitxelenak, eta ni berak eraman ninduen, Lasarteko *Gure Etxea* ostatuan alkartzeko aurrez erabakita gendukanez.

Ni ura baiño lentxeago iritxita, zai nengoen, autobusean goiz samar joanik. Sarritan berandu antzean ibiltzen zekiena izan arren, egun artan izentatutako ordua errespetatu zuen gure Mitxelenak, eta garai ederrerako igo giñan Lazkaomendira.

An gosaria ta amaiketakoa biak batera egin ondoren, deitu ziguten eta plazako bertso saioari

ekin genion bero-bero gai librean. Orduko oitura alaxe izanik, iñork etzuen pentsatzen gaiak bearrezkoak ziranik ere; ta ez dakit, gaiñera, erriz erri eta pestatik pestara ibiltzeko, gai libreko bertsogintza bera ez ote dan politena.

Nik neronek iritzi ori eduki det beti, eta gaur oraindik gauza berbera daukat buruan.

Zergatik norbaitek galdetuko balit, auxe erantzungo nioke: erri bakoitzean ikusten dirala zelebrierian dabiltzan pertsona klase batzuk, eta aiek pixka bat zirikatzea bezelakorik ez dagoela entzule jendeari parre-algara gozoak eragin arazitzeko.

Baiña neurritz kanpora irten gabe ta kontuz, al bada, iñor asarretu ez dedin. Ortarako, bertsolariak alkar artzen jakin bear dute. Bestela, erreza da karrilletik ateratzen eta utsegiten.

Gaiak jartzea edo ematea ere ez da batere txarra, batzuen gustorako. Emen denetara probatzea izango litzake onena, bada ez bada ere, noski.

Lentxeago aipatzen dedan gisan, gai librean kantatzeko, sei edo zortzi bertsolari geiegi dira. Bi naikoak, eta gaiñontzekoak zertan jarri zenezazke, irakurle? Or dago koxka.

Gaurkotasunari begiratzen badiogu, esan bear-ko genduke segitu dezatela dabiltzan martxan, da kito. Garaian garaiko gauzak errespetatu ditzagun gizatasunez.

Beraz, goazen aurrera. Lazkaomendin Mitxelena zana ta biok bertsotan jardun giñan artan, Lazkao-Txikik egun guztia gurekin pasa zuen, eta gaua ere bai geientsuena. Ostatu batean afaldu ta sasoi ona gendukalako edo ez dakit zergatik; baiña etzan bertso ta soiñu paltarik.

Aitona zartua, txistoso aparta, antxe ezagutu nuen. Ordurako larogei urte edukiko zituen gutxienez ere, ta aren umoreak arritu ninduen. Gazte ba-

tzuek zirikatzen bazuten ere, denentzat zeuzkan erantzun zorrotzak.

Parre pranko jendeari eraginda, gaueko amabiak aldean ezkutatu zitzaigun, nora zijoan esan gabe, diximuloan; eta, ni bertotan asperturik nengoenez, goizeko ordubietan jarlekutik altxa ta nun zegoen guretzat logela galdetu nion bertako andreari: erakusteko mesedez.

— Bai. Oraintxe, nai badezute.

Alaxe:

— Goazen, Joxe Joakin, garaia dek eta.

— Bai, bai. Arrazoi daukak —erantzun zidan Mitxelenak.

Joan giñan, lagunak agurtuta, etxekoandrearekin batera, eta onela dio berak:

— Emen bi oe daude aundiak. Batean ikusten dezute aitona nola dagoen. Beste ortan biok moldatzen bazerate...

— Bai, emakumea. Nik neronek toki gutxi aski det. Mitxelena onek asko bearko du, baiña gau batekoa pasako degu nola edo ala. Zu lasai egon —erantzun nion etxekoandreari, ta parrez aldegin zuen.

Nola ez, Mitxelenaren planta ikusita? Eun da ogei kilo edukiko zituen gutxienez. Agian amar geia-go ere bai. Luzea, zabala eta mardula, uraxe zan gizona. Oera sartzerakoan:

— Nik goizean goiz jeiki nai nikek, Lasarte. I esnatuko al aiz?

— Bai; otsegingo diat. Ez daukak denbora asko lotarako —erantzun nion.

Alaxe, egunsentian konturatu ta jeiki nintzan oetik neroni lenengo. San Isidro ingurua zala uste det, maiatzean beintzat, oso oker ez banago; ta deitu nion:

— Mitxelena, altxa, berandutu baiño len.

Kosta zitzaion galanki; baiña jeiki zanean, aurpegia urez garbitu ta erropak jazten ikusita, aitona zarra aldemeneko oean esnaturik zegoenez, berak eman zidan izbidea:

— Martxa al dezute, Lasarte?

— Bai, aitona. Bagoaz, eta zuk ongi segi urte askotan umore onez, atzo bezelaxe.

— Ai, gixajoa, Lasarte! Urte asko ongi pasatzeko toki onera begiratzten dik nere erdiko poste onek —erantzun zidan aitona zarrak.

Nik, ateraldi ura entzunik, parrez lertu ez beste denak egin nituen.

Andik urte batzuetara, Lazkao-Txikiri kontatun pasadizo au, ta gozatu zan benetan. Nola ez? Arek, auzotarra izanik, ezagutzen baizuen aitona. Txistoso ikaragarria omen zan, Joxe Migelek aitortu zidanez.

Sinisten ere lanak dira; baiña pertsona zelebregari ikusi genituen gure aurreko zarretan. Sagar gordiña bezin sanoak eta prestu utsak.

Gogoratzen zitzaientena esateko, garai aietan gaur baiño lasaiago biziko zala jendea bixtan daukagu, batere konturatzen bagera beintzat.

Lazkaomendin Mitxelena ta biok izan giñan egun artan gogoan artutako oroigarri bat badet, geroztik bein ere aztu etzaidana.

Lazkao-Txikik lutozko jazkera zeraman soiñean. Bere aita artean il berria omen zuen noski, ta penaren miña nabaitzen genion gizarajoari, arritze-koa ez danez.

Bestela, bertso saioaren bat gurekin batera egingo zuela pozik zion; baiña batetik umorerik etzeukala, eta beste aldetik, berriz, tristura sentitzen

zuela. Beraz, garbiro adierazi zigun zer gertatzen zitzaion.

Familian aita galtzeak luzaroko kezka utzi oi du. Probatutakoan jakiten da ori: zeinek aldegin duen etxetik betiko, eta gero aren utsunea billatzen da. Beste iñork bete ezin lezakena ote dan dirudi, edo nik ala pentsatu izan det beintzat.

Batzuek gauzak patxaraz artuko dituzte agian, bearrezkoa ere bada-ta bizibidean aurrera jarraitzekotan. Beste gaiñontzean, ez legoke bururik jasotzeko modurik iñundik iñolaz ere, nere ustez; eta Lazkao-Txiki, ain sentikorra ta benetakoa zanez, aitaren eriotzak asko minberatzea baliteke.

Pertsonaren barrua azaletik neurtzen oso zailla dalakoan nago, nere ezjakiñean; baiña orrek ez dauka erremediorik.

Dana dala, Lazkaomendi udaran lurralde dotorea izango da, seguru asko, eguraldi ona ta zero sapaia garbi dagoenetan. Izugarrizko bixta ederrak daude ainbat aldetara. Naiz Olaberri, Beasain, Ordizi ta Zaldibiko erri guztia begien aurrean jartzen dira, nik ango berri gutxi dakidan arren. Baita Txindoki mendia ere aurre-aurrean eta zut-zutik.

Lazkao-Txiki zanaren baserria ere oso urrera ikusten dala uste det, Joakin Berasategik erakutsi zidanez. Nolako giroa, alako bixta oi da mendi altuetan.

Batean, 1985-ko maiatzaren 5-ean, onako gai au jarri omen zidaten, bi bertso kantatzeko:

— Lazkaomendiko gaillurrean or daukagu Abaliñe, Lazkao-Txikiren sortetxea eta jatorria; eta bere euskal giroa, euskal sena, errimiña eta bertsoarako sena, orri zor dizkio noski.

Esan bezela, neri jarri omen zidaten gai au. Ni ez nintzan gogoratzen ontaz. Baiña ekarri didaten paperak ala dio ta ez da gezurra izango noski.

Nik, Abaliñe baserria ezagutzeko ez neukan motiborik, bein ere bertaraiño iritxi gabe nengoelako. Baiña banekien, ordea, antxe jaiotako semea zala Joxe Migel Iztueta Kortajarena, Lazkao-Txiki deitzen genion bertsolari aundi ura; ta bi bertso auek kantatu omen nizkion bere sortetxeari, bularra eman zion amari ta abar:

Gai bat polita eman dutela
nago pentsatzen jarria,
zer itzegiñez eta memoriz
ni egon arren urria.
Lazkao-Txikin kabia degu
Abaliñe baserria,
gizon aundi bat berak azi zun
seaska maitagarria.

Zuk Abaliñen artu zenduen
zeure amaren bularra,
ta azitzeko izan zenduen,
bai, zuk beraren bearra.
Bertsolari bat mundura sortu
ta euskeraren sugarra,
argatik oni deitzen diogu
guk Lazkaoko izarra.

Lazkaomendiko omenaldia

ORAIN dala amar urte, gutxi gora-bera, seguru esateko moduan ez nago ta, baiña Lazkao-Txikiren omenaldia antolatu zuten baillaran bertan, Lazkaomendiko eskola-etxean ain zuzen, afari gozo baten bidez.

Negua izanik, denborale otza eta txar bildurgarria egokitu zitzaigula gogoratzen naiz oraindik ere. Estufa edo ainbat berogarri martxan jarrita zeuzkaten aurrez, otzaren bildurrez. Baiña denak gutxiegi arako.

Jendetza aundia bildu zan, eta geientsuena sasoi betekoa gaiñera. Orrek badu bere alderdi ona: indarrean dagoen pertsonak errez iraun bailezake. Jaten eta edaten asitako garaian, gorputza berotzen zaio ta.

Nik neronek burua makurtzen diot otzari, berea-la erasaten didala jakiñik. Negu partean batez ere, arrapatzen ditudan jertse ta gaiñontzeko erropak bata bestearen gaiñetik jantzita ibiltzen naiz kalez kale; ta oeko mantaren bat ere artuko nuke, lotsatuko ez banintz, etxetik kanpora nijoan bakoitzean.

Baiña denok ez degu almen berdiña. Osasunaren gora-bera dala badakigu ori.

Lazkaomendiko eskola etxearen barrua jelaturik zegoela zirudien, Joxe Migel Iztueta zanaren omenaldiko gau ospetsu artan. Negu beltzean surik piztuzten ez dan etxean, eguraldia okerreratzean, otza indar latzean izan oi da seguru antzean.

Baiña iñork etzuen aspertuta aldegin, ordea; ta denok kontentu. Umore bikaiñez osaturik pasa genduen goizeko irurak aldera bitartekoa.

Billabonako Astiazaran anaiak astindu zituzten soiñu txikia ta panderoa, jendearen atsegingarri.

Ta, Lazkao-Txikiren oroimenez noski, bertsolariak ere bagiñan: Anjel Mari Peñagarikano, Florentino Goiburu, Patxi Iraola eta ni, Lasarte. Kanpotik joandakorik ez dakit besterik bazan. Ni ez naiz gogoratzen une ontan.

Lenengo asieran gutxi bagiñan ere, gero ugaritu ziran bertsolariak, gauerditik aurrerako ordu txikietan. Basoan edo mendian perretxikoak bezela, esate baterako. Bazan antxe nork kantatua. Apizioa zeukaten denak Lazkao-Txikiri zerbait eskeiñi nai, ba, borondaterik onenez.

Parranda latza genduen uraxe ere, beste askotakoen antzera.

Lazkao-Txiki nere ondoan nuen maian, eta galdetzen zidan noizean bein:

— Nik kantatu bear al diat, Lasarte?

— Ez. Gaur ez daukak lasai egon besterik. Nik kantatuko dizkiat ire partezkoak eta nereak oraingoz. Gero erregaliren batzuk izango dituk emen, seguru asko; ta, aiek artzean, eskerrak emateko, bi edo iru bertso ixtimatuko lizkikek jende leial jator onek —esan nion.

Eta:

— Ongi pentsatu dek, Lasarte. Orixe egingo diat —erantzun zidan gure Joxe Migelek.

Ilusioz bezela maitasunez beterik zegoenez, etzekien nola asmatu bere laguneren artean. Or dago ixpillu garbia, zer klasetako pertsona zan jakin al izateko. Arek etzuen tranparik eta azpijanik, nereztat beintzat.

Eguneroko bizimoduan ez genduen alkarren arteko traturik edo ezeren ar-emanik sekulan erabili, ta ez dakit zer jokabide ziran bereak. Baiña erriz erri bertsotan ibiltzeko gustoko laguna nuen Lazkao-Txiki. Oberik ez nuke aukeratuko, gaur berriro kantari asi bear baldin banu.

Azken urte auetako bertsogintza ez da gure garai-koaren antzekoa. Izugarri aldatu dala dirudi, ta alaxe komeniko zan gainera oraingo gazte jendearentzat.

Beraz, auxe eskatu nai nioteke indarrean dabil-tzan bertsolari oieri: jarrai dezatela euskeraren alde lanean. Ni ixildu ezkeroztik, landare berri asko agertu dira, ta Lazkao-Txikik ezagutuko zituen.

Nik neronek Basarri eta Uztapide ikusi nituen lenengo plazan kantatzen. Ez nolanaiko bikotea; bertsolari ederrak. Beste inñori ez diot ezer kenduko au aitortzearekin noski. Ni, suertez, oso gazterik asi nintzan bertsotan aipatu ditudan bi auen babesean.

Lazkao-Txiki txispa aundiko bertsolaria zan; bizitasun izugarrikoa. Eta, era berean, goxo itzegiten zekiena. Argatik jarraitzen zion lengo martxa zarreko bertso egiturari, gaurkotasunik galdu gabe.

Dana dala, oraindik Lazkaomendiko pasadizoa ez det osatu bear bezela, ta lenengo ura bukatu dezadan.

Berak uste baiño erregali geiago jaso omen zituen. Ongi portatu zitzaizkion lagunak, ikusi genduen; eta pozik gizona. Ez da gutxiagotarako.

Abaliñen, bere sorlekuan, neretzat lotarako oea prestaturik zeukatela-ta, alkarrekin gaua edo goiz partea pasata, neronek nai nuen garaian berak ekarriko ninduela kotxean Oriora esan zidan Joxe Migelek. Nik ontzat artu nion. Nola ez?

Baiña gizon gazte bat joan zitzaigun gu geunden maiera, eskua luzatuz, eta:

— Au nere illoba dek, Lasarte —esan zidan Lazkao-Txikik.

— Kontxo! Ez nian ezagutzen. Zorionak bioi ta urte askotarako.

— Eskerrik asko —erantzun zidaten biak batera. Joxe Migelen illobak esan zidan:

— Nik eramango zaitut etxera, Lasarte, nai badezu beintzat. Zizurkillen bizi naiz; eta, araiño joan bear dedan ezkerro, etzait ezer kostatzen Oriotik buelta egitea.

— Bueno. Zuretzat endredorik ez bada, neretzat oso ongi dator biaje ori. Emengo eginkizuna bete degula uste det, eta goazen.

Alaxe, Lazkao-Txiki agurtu, beste gaiñontzeko jendea ere bai, ta martxa. Bereala iritxi giñan Oriora, iñun gelditu gabe. Gaurko kotxe moderno oiek, motorrak bizi amorratuak dauzkatenez, bidea errez pasatzen dute.

Abaliñe baserrian lotarako toki ona egongo zala ez det dudarik. Baiña pertsona zarrarentzat etxeko oea onena izan oi da. Leku arrotzean nik ez det almenik lo lasai egiteko eta gozatzeko edo atsedentzeko bear bezela.

Irudia

DANA dala —oraindik oraintsuko kontua da— adiskide batek onela zion:

— Lasarte, zure lagun Lazkao-Txiki zanak bertso batzuk mereziko lituzke, ba. Ez al dezu jartzerik pentsatu?

— Bai noski. Berari buruz zerbait idazten ari naiz, eta bertsoak ere moldatu nai nizkioke, al badet beintzat.

Itz auetxek erabili genituen alkarren artean. Pena dexentea ote zeukan iduritu zitzaidan, diodan adiskide zintzo arek.

Izan ere, iltzea ain da gauza tristea. Orrek makurtu arazitzen ditu gizonik indartsuenak ere, denbora gutxian gaiñera, deskuidatu ezkeru.

Nere belarrietaraiño iritxi da beste albiste pozgarri bat ere: Lazkao Txiki zanari monumentua egin asmotan ote dabiltzan bere erritarrak.

Ori orrela baldin bada, nere eskerrik beroenak eman nai dizkietet aurrez, idazten ari naizen lerro auen bidez. Bakoitzari irabazi duen saria ordaintzea baiña gauza obeagorik ez baidago ezertxo ere mundu ontan.

Baiña nun ordea? Lazkao-Txikiren monumentua edo irudia, nik entzun dedanez, Lazkaomendiko eskola etxearen ondoan, ez dakit zein aldetatik jar-tzea erabakiko duten ortarako kargua daukaten gizonak.

Baiña eskola etxearen aurreko bide gurutzean, edo inguru artan, Txindoki aldera begira jarriko balitz, geldituko litzake dotore Lazkao-Txikiren iru-dia, urruti antzetik ikusteko moduan; eta, ortik aparte, eskola etxeari izen on bat emango lioke.

Joxe Migel Iztuetak gaztetan bere ikasketak antxe egin zituela uste det, oker ez banago; ta merezi luke, orren seiñale bezela, bertan egon dedi-lla Lazkao-Txikiren irudia, ondorengo gizaldietan jaioko diran aurrak ezagutu dezaten nungotarra zan bertsolari eder au.

Baiña ni ez naiz iñor gai ortan ezer esateko, eta ez det sartu nai ere. Nere iritzi bat agertzea gaizki egiña balego, barkatu dezaidatela mesedez lazkaotar guztiak. Orixe bakarrik eskatzen det.

Beasain eta Ordizi

ORAIN iru urte edo orrelatsu —gutxi gora-berako kontua danez seguru ezin adierazi inñundik inñolaz ere—, udaran zala gertakizuna daukat buruan sarturik, eta Lazkao-Txikik omenaldi txukun goxo oietako bat jaso zuela Beasaingo errian.

Bertako Polikiroldegian ain zuzen izan zan ospakizun dotore aparta, eguerdiko amabiak aldean asiera emanik.

Lentxeago zegoela izentatua uste det; baiña zaila da beti ordua errespetatzen. Norbaiten zai egon bear dalako edo abar, denbora errez galdu oi da.

Jendetza ugaria ikusi genduen. Beasaingoak bakarrik ez. Lazkao, Zaldibi ta ordizitar ezagunak ere an zeuden. Nik banaka batzuekin itzegin nuen aspaldiko partez gustora.

Gaiñera, Lazkao-Txiki txistsulari ta dantzari taldearen tartean sartu zitzaigun kiroldegira, eta zuzenean oltzadura gaiñera igo.

Gu ordurako an geunden, jaialdia noiz asiko zai; ta agindu ziguten lenengo Basarrik eta Lasartek bertso bana kantatzeko Lazkao-Txikiren oroimenez.

Artaraxe joan giñanez, ezin ukatu mesede ura,
ta pozik alegindu. Nola ez, ainbat urtetan gure
lagun izandako Joxe Migelen omenaldian?

Ona Basarriren bertsoa:

Pasa dituzu ingurutako
mendiak eta basoak,
zeiñek kontatu jarri dituzun
une alai ta goxoak?
Irurogei ta bost urte ditu
Goierriko txoritxoak,
geroztik beti zugan zorretan
euskera ta euskal bertsoak.

Nerea, berriz, auxe izan zan:

Joxe Migel Iztueta
Lazkao-Txikia,
bertsolari alaia
eta egokia.
Zu zorientzea det
gaur erabakia,
bete baidez gizon
aundien tokia.

Ez giñan Basarri ta biok bakarrik. Irugarren
bertsoa Bixente Barandiaranek kantatu zuen; eta
laugarrena, mugaz beste aldeko Xanpunek.

Ondoren, berealaxe ekin zioten lanari sasoiko
bertsolari trebeak. Bakoitzaren izenik ezin nezake
eman, nortsu ziran seguru gogoratzen ez naizelako.
Baiña bertso onak entzun genituen ugari antzean,
eta saio luze samarra gaiñera.

Beasaingo Iparragirretar Koldo eta Arantxa triki-
tilari gazteak ere saiatu ziran, ba, beraien eginkizu-
na betetzen, ezin obeki. Koldok soiñu txikia gozo
bezin dotore jotzen du, nere iritzirako; eta Arantxak
ederki laguntzen dio, kantuz bezela, panderoz.

Bikote bikaiña osatzen dutelakoan nago, norainira joateko ere. Beasaingo kiroldegian jendea dantzatu arazi zuten goiz partean, eta gero bazkalondoan ez gutxiago. Bazan antxe kriskitin otsa ugari. Sasoian dagoenaren kontuak dira oiek, guk bear ez ditugunak.

Baiña dantzari aidosoak ikusteak poz aundia ematen dio berez zalea danari. Nik neronek sekulan ez det apiziorik izan ortarako. Tonto samarra nintzalako, ez nuen ikasiko gaztetan. Baiña dantzari onak beti gustatu zaizkit, begira egoteko besterik gabe.

Lazkao-Txikiren omenez bazkaldar asko bildu giñan batera. Mai luzeak zeuden prestaturik. Aurrez txartelak salduta edukiko zituztenez, jakingo zuten zenbatentzat jarri bazkaria. Alamoduzko itxura zeukan jangela arek.

Sabel aldeak ase edo gose-egarrien kezka kendu orduko, bertso batzuk entzun nai jendeak; eta, bertsolariak txandaka kantatzen ari zirala, ni Lazkao-Txikiren aldemenean ixilik nengoen, baiña asi zitzaizkidan oiuka:

— Lasarte, bertso pare bat kantatu mesedez!

Alaxe, bi edo iru eman nizkioten eta kontentu gelditu ziran, itxuraz beintzat. Bai ni ere, txalo beroz ordaindu nindutelako.

Gero, Basarrik moldatu zuen itzaldi bikaiña, oitura izan duen gisara.

Beraz, ortik pentsatu leike, gutxi gora-bera, nolatsu joango zitzaion jendeari arratsalde ura, gozamen ugariz beterik eta alkartasun ederrean noski.

Beasaiñera Donostiko Iñaki Hernandez nere lagunak eramango ninduela eta lasai egoteko esan zidan aurreko egun batez telefonotik. Ordurako bazekien zer pentsamentu nituen. Sarritan itzegin baigenduen Lazkao-Txikiren omenaldiari buruz. Eta goizean, bere andrea eta alaba kotxean zituela,

agertu zitzaidan Orion, gure etxe aurrean, garaiz eta pulamentuz.

Zortzi egun aurretik, Tolosan zeudela jaialdirako sarrerak eta bazkaltzeko txartelak salgai jakinda, erosteko asmoz joan omen zan bertara. Baiña bakoitzetik iru nai ta bi bakarrik billatu. Beste guztiak salduak ordurako. Berandutxo konturatu gizona nunbait, eta gero estu bezin urduri.

Oriotik Beasain alderako bidean kontatu zuen zer gertatu zitzaion. Pena izugarritz onela zion:

— Ez ote degu an sarrerik edo txartelik sortuko, Manuel, batentzat? Ori ezin baldin bada, andrea ta umea barrura bialduko ditut, eta neroni kanpoan geldituko naiz.

— Ez det uste —erantzun nion.

Alaxe, ni ezagun batzuekin izketan ari nintzala, Lazkao-Txiki ta biak alkartu ziran, eta arek emango zizkion jaialdirako sarrera ta bazkaltzeko txartela. Bietan barruan ikusi nituen beintzat andre-gizonak eta umea, Polikiroldegian bezela jatetxean ere. Gero galdetu bear niola nundik eskuratu zituen; baiña aztu egin zitzaidan, eta gaur arte.

Iñaki Hernandez au Azkoitiko semea da, ta andrea Segurakoa du. Aspaldiko urtetan, ezkondu ta Donostin bizi dira. Len aipatu dedan alabatxo ori beste umerik ez dute, orain faubrikatu berriren bat izan ezean beintzat.

Iñaki Hernandez bertsozale purrukatua degu. Sekulan entzuten aspertu ezin dan oietakoa dirudi. Berak ere apizioa izan bear du kantatzeko. Adibidez, bertsoak oso poliki moldatzen omen ditu, naiz eta nere bistan bein ere kantatu ez duen arren.

Lerro auetan adierazten nizun, irakurle, bi edo iru urte ote diran Lazkao-Txiki zanari Beasaiñen omenaldia egin zitzaiola. Ez nenbillen oso gaizki.

Gaur goizean jakin ditut gauzak seguru, eta orain garbiro idazteko moduan nago.

1991-ko iraillaren 15-ean, irurogei ta bost urte bete zituen egunean, izan zuen omenaldi goxo atsegin ura Lazkao-Txikik. Baita ere egun berean asi omen zan zartzaroari zegokion erretiroa artu ta dirua jasotzen. Beraz, tiro baten parera bi txori bil-tzea bezela da ori; eta dotoreziz arrokeririk gabe aprobeztatzea arrazoibidez noski.

Polikiroldegiko jaialdiaren bukaeran, erregaliz ornitu zuten ederki gure lagun Lazkao-Txiki. Ager-tu zion ango jendeak benetako maitasuna, arek merezi bezelaxe; ta, denak eskertuaz, bertso auek kantatu zituen:

Negarra ez det urruti baiña
asi nai nuke kantari,
eskertuz orain etorri zaidan
orrenbestetxo dantzari.
Txistulariak, soiñu-joleak,
danak goratzarre neri,
dudan nago nik merezi ote
nuen bada gauza ori,
baiña biotzez eskertzen ditut,
esker milla guztiori.

Eta urrena eskertutzen det
nik Beasaingo udala,
Aldundegi ta *arrano*-tarren
ain borondate zabala.
Eta urrena neregatikan
bildu dan jende apala,
seguru dakit gaurko zor au nik
ordainduko ez dedala,
zuek serbitzen jarraituko det
orain artean bezala.

Urrutietatik etorri zaizkit
orrenbeste bertsolari,
guztiak ongi kantatu dute
nola txiki ala larri.
Eskerrik asko zueri ere,
biotzez ongi etorri;
maixu aundi bat emen daukagu
bertsolarien oiñarri,
denen arteti izendatzen zaitut,
o biotzeko Basarri!

Eskerrik asko, zuzendariak
ta bertsolari gazteak,
erdi zartuak poztutzen gaitu
zuek ola ikusteak.
Bertso ederrak bota dituzte,
aik entzun eta nekeak,
baiñan aurrera geldituzten zait
konta alako urteak,
eskerrik asko deneri eta
lagun deizuten suerteak.

Naita're ezin ezer asmatu,
begiak dauzkat tristeak,
ezpaiñak bertsoz kantari baiña
negar-malkotan beteak.
Pena ematen dit alde batera
zuek utzita joateak,
ezin aundigo izan baitira
gaur zuen borondateak,
zuek eskertzen pasako ditut
gelditzen zaidan urteak.

Omenaldi artara Basarri ta ni joateak arritu
arazi omen zuen, berak zionez. Oltzaduraren gaiñe-
an exerita geundela, beste konturik etzeukan:

— Asko ixtimatu diat, Lasarte, Basarri ta i nere jaialdira etorri zeratelako, biok gaixorik edo erdi-purdi egonik —esaten jardun zitzaidan.

Lazkao-Txiki gizarajoaren poza etzan nolanai-koa. Jakiña, Basarri perlesiak jota ospitalean egona baizan aurreko urtean edo ez dakit noiz, seguru esateko.

Baiña anketatik oso gaizki zebillen, iñundik iñora pausorik aldatu eziñik. Bi bastoiren laguntza bear derrigorrez, zutik ibilliko bazan. Zenbat kosta ote zitzaiion egun artan Beasaingo oltzadura gaiñera igozteko eskaillera mailla aiek pasatzea Basarri zarrari?

Ori ta beste gauza geiago kontuan arturik zeuzkan Lazkao-Txikik.

Guk arratsaldean garaiz aldegin genduen Beasaindik Orio alderaiño. Baiña presarik etzeukan jendea an gelditu zan jarlekuetatik jeiki gabe lasai. Bakoitzari, eskatzen zuen kafe edo edari-klasea bertara eramaten zioten serbitzen zebiltzan emakumezkoak, eta bapo. Nun obeki, antxe baiño?

Lazkao-Txikik Beasaingo zirkillu guztiak eza-gutzen zituela uste det, bere jaiotetxeakoak bezela. *Loinaz* ostatuan bazkaltzen baizuen egunero, edo bertso-tara iñora joan bearrik etzeukanetan beintzat. Eta, ortik aparte, berriz, lagun ixtimatu asko zeuzkala badakit erri artan.

Bazkal aurretik, ostatu jakin samarretan ibili oi ziran tragotxo batzuk egiñez, kontu kontari, denbora pasa; eta illunabarretan ere bai noski.

Lazkao-Txiki alaitasunaren ixpillu gisara juzkatzen nuen nik. Berezkotasun izugarria nabaitzen zitzaion, pesta-giroan zebillen garaian batez ere. Aren nortasunak etzuen gutxi balio lagunartean luzitzeko ta jendeari tristurak kendu arazteko.

Beasaiñen Azentzio-jaietan urte-mordoan jardunak gera gu bertso-tan, beste erri askotan ez-ezik.

Sebastian arakiña zan urtero abixua bialtzen ziguna, erriko egitaraua prestatzerakoan, bertsolarien izenak karteletan edo paperetan agertu zitezen. Sebastian onen apellidorik ez dakit idazteko. Lastima!

Dana dala, Beasaiñen jende bertsozale ugari bazan len. Oraingoz ez dakit. Baiña guk, urtearen asieratik azkenera bitartean, abixu asko artzen genituen andik. Lagunarteko afariak noiznai; ezkontzak ere bai; ta ainbat modutako eginkizunetan sartzten giñan sarritan.

Ordizin berdin. Irailleko feri nagusietan, batez ere, Lazkao-Txiki, Uztapide ta irurok auskalo zenbat bertso saiotan izanak geran.

Aztu ezindako bi erri ditugu oiek, alkarren urrean daudenak. Ni ari naiz dakidana adierazten, bidezkoa danez. Baiña Lazkao-Txikik zer esango ote luke, gaur bizirik balego?

Arek Ordizin asteroko azoka sonatuak ikusiko zituen geientsuenetan. Iñora bertсотara edo beste zerbaitetara joan bearrik ez bazuen beintzat, antxe ibiliko zan bat toreatzen eta bestea zirikatzen, kurioso bezin dotore, parre algara goxo askoak egiñez. Ortan ere etzan makala izana gure Joxe Migel.

Ordizi guretzat erri atsegiña iduritu zitzaidan beti. Ez dakit zergatik, baiña begi onez ikusten nuen, beste iñori ezer kendu gabe, ordea.

Bakoitzari berea ematekotan, erri guztiak, edo ezagutu ditugunak, ez dauzkagu baztarrera uzteko. Denak portatu baidira itxura onean gurekin.

Lazkao-Txiki ume mimatu baten antzera erabil-tzen zuten goierritarrak. Bera umoretsua izanik, nun-nai zeuzkan onginaia erakusten zioten adiskide zintzo ta leialak, eta alde guztietan ateak zabalik. Gauza ederra da ori, konturatzen bagera.

Euskal-Errian bertsolariak ezin esango degu gaizki tratatu gaituztenik.

1994-ko ilbeltzaren 27-garren egunean ari naiz denbora pasa zerbait idazten, etxeko sukaldean. Gaur betetzen da urtea Lazkao-Txiki zanarekin azkeneko aldiz itzegin genduela Joakin Berasategi eta biok. Ain zuzen ere, operatu bear zuten bezpera arratsaldean. Sekulan, edo ezaguera dedan bitartean, aztuko etzaidan eguna.

Biaramonean, ebakuntza egiteko lo artu arazi ta geiago esnatu gabe joana da mundu ontatik Lazkao-Txiki, gutxiena pentsatzen genduen garaian. Penagarria benetan gertatu zitzaion okerra. Dana dala, orrek ez dauka ezeren erremediorik, eta kito.

Arriarango Albisu anaiak

BEASAINDIK urrean dagoen baillara txiki polit batean, gu prankotan jardunak gera bertso-tan. Lenengo urte batzuetan, Uztapide, Zepai ta irurok joan izan giñan. Mitxelena ere bai bein edo orrela, gurekin batera; eta bestea, Joxe Agirre.

Ni, aipatzen ditudan auekin kantatua naiz baillara artan. Arriaran da baillararen izena.

Azken aldiko bolaran, berriz, Lazkao-Txiki ta biok egin oi genituen ango bertso-lanak. San Pedro-tan ospatzen dituzte pesta nagusiak, ni oso oker ez banago. Baiña beste edozein garaitan ere antolatzen zituzten bertsozko jaialdiak len. Orain ez dakit nola dabilzan.

Arriaranen bazan senide-talde bat bertsozale purrukatu oietakoa: Albisutarrak, Joxe, Patxi, Eduardo, Julian eta Estefani. Lau anai ta arreba bat ezagutu nituen nik.

Baserritarrak izatez, baiña Beasaingo kalean zerreri inportante samarra edukitzen omen zuten Joxek eta Patxik.

Beste sozio lagun bat bazutela entzuten genduen, Martzelino izenez bataiatua. Baiña apellidoa

nola zuen ez dakit. Gazterik ezurretako desgasteak jota ondatu zan gizona. Anketatik erren eta nolabait zebillen kontua esplikatatu zigun berak bein baiño geiagotan.

Ibilirako erreztasuna galdu zitzaion Martzelino gizarajoari. Etxe aldetik iñora irtengo baldin bazan, autoz baliatu bear derrigor, oiñez pausorik eman ezinda. Bestela, lagunarterako oso gizon alaia ta atsegiña zirudien.

Nik neronek juzkatzen nuen modura ari naiz gauzak idazten. Seguru dakidana auxe da: bertsozale purrukatua genduela Martzelino. Eta, ortik aparte, berriz, eskolaz jantzi samarra ere izango zalakoan nago.

Norbaitek esan ote zidan errezeloa daukat, zerreriko diru-kontuen gora-berak Martzelinok erabiltzen omen zituela. Beraz, ofizinista edo bulegoko kargua edukiko zuen, ori egia baldin bazan. Baiña, ziur ez dakidanez, ez naiz aurreragi sartuko ortan, bada ez bada ere.

Albisutar anaiak, Patxi eta Joxe, baso-lanetan ibiliko ziran geientsuenetan noski. Mutillak ez dakit zenbat erabiltzen zituzten.

Baiña zugaitz aundiak basoan ondotik edo ipurditik ebaki ta bota lurrera. Adarrak kendu lenengo; gero, tronkoak neurri juxtuan moztu ta kamionak kargatu ta zerratokira eraman bitartean, bearko zan jendearen laguntza.

Baita zerrerian bertan ere, makinaz tabloiak ebaki orduko kastillotan legortzen jartzen baiziran garai aietan, kanpo librean, aizearen bidez sekatu ta arindu zitezzen. Gaur oraindik badute oitura klase ori batzuek edo lan ortan ari diranak.

Patxi ta Joxe auen beste anaia, Eduardo alegia, ez dakit nun enpleatzen zan, garbiro adierazteko. Baiña zerrerian seguru asko ura ere.

Anaiak laurak alkarrekin ikusten genituen, Goierri aldean bertso-saioren bat gendukan bakoitzean; eta ortik pentsatzen det nik beraien artean senidatasun osoa zeukatela.

Diodan Eduardo au baiño pertsona umillagoak kontatzen errezak izango dira aurrerantzean ere, nere ustez beintzat. Sekulan ez genion itz bat txarrik entzun. Beti serio ta apal, goibeltasunik gabe, ordea. Ortxe dago gizonaren balore berezia ta nortasun sendoa.

Gu bertsoan ari giñan garaian, ixil eta buru makur egongo zan, noizean bein parre txiki batzuk egiñez. Baiña kontuz; aldemenean zeukanari etzion entzuten galeraziko.

Sarritan gertatu zitzaigun alkarren ondoan bazkaldu edo afaldu bearra, zorionez; eta nik orrelaxe ikusi nuen Eduardo zana.

Aspalditxo illa da, artean sasoi betean zegoela, Gizon pusketa galanta, luzea eta zabala.

Albisutar lau anaitatik iru il ziran: Eduardo, Joxe ta Patxi. Orain Julian bizi dana; baiña onekin geroago sartuko naiz. Lenengo, mundu ontatik aldegin zigutenak aipatu nai nituzke, ainbeste merezi duten ezkerero.

Joxe Albisuren bertsozaletasunak etzuan azkenik. Zuk nola kantatzen zenduen, alako eskerra emango zizun. Gauzak ongi ausnartu ta ulertzen zekien. Bertso-saioa bukatzean, arek ona zala aitortzen bazuen, ez det uste oso txarra izango zanik. Ortarako buru argia zeukala badakigu Joxe zanak.

Bai biotza ere xamur askoa, neretzat beintzat. Eta Lazkao-Txikik berdin esaten zidan. Uztapidek ere bai. Bertsolari askok maiteko zuten gizon ura.

. Lagunartean, batetik lasaia, arinkeririk gabekoa; eta beste aldetik esku zabala. Diruz ere gu baiño

obeki osaturik egongo zala dudarik ez nuke jarriko, lantokian martxa aundia erabili zutenez.

Baiña beste alderdi on bat ere bazuen Joxek: solteroa zalako, familia mantendu bearrik ez, eta berak gastu gutxi, gurekin zebillenetan izan ezik. Zertan bota bear zuen arek dirua? Noizean bein aizkol apusturen bat ikustera joaten baldin bazan, kito. Gaiñontzean, lanari segi zintzo ta zuzen egu-nero, bere bizitza bukatu bitartean.

Anaia Patxiren jokabidea ere berdintsua zalakoan nago. Gizon apala, umilla ta berriketa gutxikoa zirudienaren jarrera serioak. Bertsozalea, berriz, bete-betekoa.

Egun batez, gogoratzen naiz, Tolosara joan nintzan *Ferreteria Calparsoro* edo burdindegira. An baizeuden salgai nik derrigor esku artean bear nituen gauza batzuk, beste iñun billatu ezin ziranak. Eta, aukera aundirik ez bazegoen ere, osatze-ko modua egin genduenean, kontentu.

Eginkizun geiago neuzkanez, danak batera bukatzea pentsatu nuen, berriro joaten ibili gabe. Ta, azkenerako, naikoa berandutu zitzaidala ikusirik, banijoan ostatu batera ta topo kalean Patxi Albisurekin.

— Zer zabilta, Lasarte? —galdetu zidan.

— Ementxe, bazkari lege bat egingo ote dedan pentsatu det.

— Ederki. Neronek ere asmo orixe daukat, eta goazen. Biok bazkalduko degu, kontu zarrak kontatuaz.

Alaxe, oraingoz ez naiz gogoratzen zein ostatu-tan sartu giñan. Baiña bai bazkari zoragarria izan zala egun artakoa. Patxi zana etzan gastuaren bildurrez atzera begira gelditu.

— Zuk lasai eskatu komeni zaizuna, Lasarte. Emengo zorrak nik ordainduko ditut, pozik gaiñera, biok alkartu geralako.

Itz auetxek esan zizkidan, bazkaria aukeratzera-koan, Arriarango Patxik. Bi ordu pasako genituen gutxienez ere maian; baiña ez ixilik, ordea. Zenbat bertso kontu ta pasadizo erabili ote genduen bueltaka, andik aldegin bitartean?

Gizon serio ixil antzeko oiek dira itzlaririk egokienak, gustoko tokian dauden garaian batez ere. Patxik bulla ta zalaparta gutxi aterako zuen etxean eta kanpoan bere bizitzan.

Aspalditxotik gaixorik zebilela bagenekigun, eta oraindik denbora asko ez dala illa izan bear du, nik jakin dedanez.

Emengo idazlan guztia Lazkao-Txikiren aritik dator. Arriaranen, Albisutarren baserrian edo familli artan, ar-eman estuak baizituen Joxe Migel Iztueta zanak.

Lau anai auetan iñor etzan ezkondu. Denak mutilzar gelditu ziran, ez dakit zergatik.

Julianek, beti bezela, baserrian jarraitzen du. Irurogei ta bederatzi urte eduki lezazke, gutxi gora-bera.

Arreba Estefani, senide guztietan gazteena, ezkondu zitzaioten; eta arek erabiltzen omen du etxeko martxa. Emakumezkorik gabe ez bailegoke baserrian bizitzerik.

Estefanik eta bere senarrak iru ondorengo ekarri zituzten mundura. Seme bat Bitorin edo Gasteizen arakintzan enpleatzen dala entzun det. Eta alaba, andereño; baiña ez dakit nun edo zein ikastolatan.

Seme gazteena, berriz, baserrian bertan ari omen da lanean, osaba Julianekin batera. Nik iñoiz itzegin dedanetan, gustora billatu det gai ortan beintzat Julian. Ez dauka saltzeko bere illoba. Baserrirako asko balio duen mutilla dala aitortzen du aoa betean. Edozer lanetan trebea eta egokia noski.

Beraz, osabaren laguntza nabaitu liteke or garbiro; eta illobaren gogoia ere bai, dudarik batere gabe.

Gaurko bizi posturari begiratzen badiogu, esan bearke genduke mutil eta neska gazte gutxi dirala baserrian etsitzeko modukoak. Nekazaritzari jai ta aste segitzekotan, ez dago noranaira joateko astirik eta askatasun osorik. Lotura aundiko izakera da baserritarrena. Era berean, sanaia eta freskoa ere bai orren zale danarentzat.

Arriarango baserri artan, baratzan ere apizio izugarria dute, itxura danez. Etxekoandre Estefanik eraman oi ditu berdura klase ugari Beasaingo plaza-ra saltzera. Errege sagarra ere bai oparo udazkenean eta neguan. Urte guztian ez dakit, baiña ezezko apusturik ez nuke egingo, bada ez bada ere.

Fruta aberatsa degu errege sagarra. Gordiñik edo erreta, bi modutara jan liteke errez eta gustora. Neretzat postre oberik ez dago, pare bat sagar erretakoak baiña, bazkariaren bukaeran bezela afaltzerakoan. Sarritan ematen dizkidate, zorionez; eta nik pozik jan. Nola ez, sekulan ez naiz aspertzen da?

Dana dala, Arriarango Julian Albisu aspaldiko ezaguna ta adiskide ixtimatua det nik.

Baiña Lazkao-Txiki zan onen lagunik aundiena, egia aitortzekotan; eta, ori legezkoa danez, garbiro idatzirik utzi dezadan. Esan egin nai nuke, gaiñera, zergatik.

Larunbatetan, gauetzko bertso saioak entzuten, edozein erritan ikusten genduen Julian. Lazkao-Txikik eramaten baizuen kotxean, Arriarango baserrian bertan artuta; eta gero, bueltakoan, lengo tokira entregatu ere bai zuzen asko.

Igande egunetan berdin. Ez noski beti; baiña egokiera zeukanean, eta Julian libre antzean zegonetan, bai.

Zenbat erri ta baillara ikusi ote zituen Julianek Lazkao-Txikiren bidez. Bestela sekulan ezagutuko etzituenak, asko beintzat. Au berak nik bezelaxe aitortuko luke, batere dudarik gabe, egi osoa da ta.

Konfiantza izugarria zeukaten alkarren artean. Batek esaten zuena, besteari ongi zetorkion geienetan edo beti.

Egun batez bagenbiltzan, bertso saioa bukatu ondoren, ostatu zokoak bixitatzen denbora pasa. Koadrillan an ari zan gure Julian beste batzueri esplikazioak ematen, eta Lazkao-Txikik auxe esan zidan:

— I, Lasarte: lengo gizon zar aiek nolakoak ziran jakin nai badek, begiratu akiok Juliani. Nik orixe egin nian, eta geroztik bazekiat.

Ateraldi dotorea Lazkao-Txikirena. Izan ere, Julianek alamoduzko planta du: gorputza argal antzekoa, luzea; aurpegia ere bai; kolorez gorri samarra; anka sarde bikaiña; oiñak aundiak; gerri alde estua; sabel lerdena; beso palanka ederrak; zanko sendoak; buruz ornitua; begi argiak; belarri pusketa mardulak, eta abar.

Orain berreun urte jaiotako gizon klasearen itxura ber-bera du Julian Albisuk. Naiago nuke Lazkao-Txiki zanari egingo dioten liburuan agertuko balitz bere argazki natural bat. Nik udaletxe batzuetako argazki zarretan dauzkat ikusita onen tankerako gizonak, auskalo noizkoak.

Dana dala, biotz aberats ikaragarria du Julianek. Soiñean dauzkan erropa guztiak erantzi ta emango lituzke noiznai, besteri on egingo diola jakiñik. Ori da pertsonaren aunditasun berezia.

Bertsolaritzari oso urretik jarraitzen zion len. Oraingoz ez dakit nola dabillen, aspalditxoan itze gin gabe gaude ta. Baiña apiziorik ez det uste zearo galduko zuenik. Urteak dijoazkio aurrera, guri

bezelaxe; ta baliteke pixkaren bat asperturik egotea kanpoko ibilleraz.

Ortik aparte, berriz, Lazkao-Txiki il zanean artu omen zuen golpe bildurgarria. Ez da batere arritze-ko gauza, gaiñera. Lagun on baten biotzak, gelditu orduko, beste batzuk minberatu oi ditu sarritan.

Illeta egunean ikusi nuen Julian triste asko. Etzeukan iñoizko umorerik.

— Orain zer egin bear det nik? —zion berak—. Bakarrik gelditu naiz. Lasarte.

— Zuk zer egingo dezun galdetzen al didazu, Julian? Otoitzen bidez lagundu Joxe Migel zanari —erantzun nion.

Ongi iduritu zitzaion; baiña pena antxe, ordea, gogoan, naiz alperrik eduki, geroxeago ere kostako zaio burutik kentzen, ainbat urtetan lagunik ixtimatuena izan zuen Joxe Migel Iztueta.

Gizon burutsua ta errespetoz ongi jantzia degu Julian. Baiña ori albora utzi dezagun. Bere umore kontuak aipatzea komeniko litzake, ta ortaraxe nijoa une batez.

Bertsolariak billera genduen bakoitzean, Goierri aldean batez ere, an izango zan gurekin batera bazkaltzen; eta sabela bete bitartean emango zigun pakea ta lasaitasuna. Baiña andikan aurrera, gutxi. Iñork agindu zai egon gabe, berak kantatuko zizkigun lenengo bi edo iru bertso; ta, gu erantzuten asten giñan garaian, ixildu. Sua piztutzeko arte polita zeukan.

Julianek bat-bateko bertsoak baditu gogoan artuak, bertsolari batzuek kantatuta bezela edo oker gutxirekin beintzat; eta ortarako ez du lotan egon bear gizonak. Belarriz erne ta buruz argi. Ala ta guztiz ere, zailla da bertsoa oso-osorik jasotzen, bein bakarrik entzunda.

Julian au zenbat bider joan ote zan Ordiziko azokara asteazkenetan, Lazkao-Txikirekin itzegitearren? Beste zer egiñik gabe, an ibili oi ziran alkarrekin, aita-emeak ziruditela, aundi sana aurretik eta txiki artista pauso bat edo bi atzeragotik, alde guztietara begiratuaz.

Ordiziko azoka ain sonatua izan oi danez, zer ikusirik etzan faltako eguerdira bitartean. Gero, bakoitza bere lanetara itzuli etxera edo kanpora, ta kito urrengo astra arte.

Lazkao-Txikiren liburua

DANA dala, Lazkao-Txikiren liburua *Auspoa*-k eta *Sendoa* argitaletxeak bien artean moldatuko dute, Aita Zabalak eta Joakin Berasategik alegia, lengo gureak egin zituzten bezelaxe; eta beste bi kasete edo zinta bertsoz beteak. Lazkao-Txikiren abotsean entzun al izango ditu nai duenak.

Beraz, aukera ederra datorkio Joxe Migel Iztueta zanaren oroigarri bikain dotoreak eskuratu ta gordezko gogoia daukanari. Nik uste det ixtimatuko dituela jende bertsozale sutsuak, batere dudarik gabe.

Aita Zabala onek lan ikaragarria egin duela bertsolaritza alde ez daukagu ukatzerik inolako moduz. Euskal-Erriko zoko guztiak ikusten eta miatzen or ibili da ainbat urtetan eten gabe, kalez kale bezela baserriz baserri; ta inork pentsatzen etzuen toki zelebren askotan billatu ditu lengo bertsolari zarrak idatzita utzitako bertso-paperak adibidez.

Gero liburu txikiak egin da saldu, utsaren urrengo prezioan gainera. Norberak soldata ona irabazteko seinale txarra da ori, konturatzen bagera. Baiña bestela sekulan ezagutuko etzituen bertsoak eman dizkio erriari, eta orrek balore aundia duela koan nago, gaur edo biarkoari begiratuaz alegia.

Bakardade osoan zebillen Aita Zabala, berez sortu zitzaion apizio sutsuari erantzunez; eta orain Joakin Berasategi *Sendoa* argitaletxeko nagusi danak laguntzen dio. Au ere bertsozale purrukatua baidegu.

Nik ez dakit zenbat diru utziko duten bertso liburuak, aurreko gastu guztiak ordaindu ta saldu ondoren, libre ta garbi. Baiña ortik baiño etorkizun obeagorik ez bada beste inñundik, neguan angula freskoak jaten zailla izango da seguru asko.

Zergatik diodan au ulertzen oso erreza litzake, artaratu ezkeru. Euskera soillez egindako liburuak emen bertako jendeak gutxi irakurtzen omen ditu. Erderazkoak askoz ere geiago, entzuten degunez. Ortik pentsatu zer tankeratan dagoen gure erriaren izkuntza.

Lazkao-Txiki zana orretzek minberatzen zuen sarritan geien bat. Baiña pazientziz artu bearrean gaude gertatzen diran gauzak, al badegu beintzat; eta jarrai dezagun aurrera.

Alejandro Azpiroz

Beste gizon aipagarri batengana pasa nai nuke, aztu baiño len. Alejandro Azpiroz ditu bere izen-apellidoak. Naparroan arroiztarra ta mutilzarra da gure lagun maitagarri au.

Chiquito de Arruiz erderaz deitzen zioten batzuek ango korrikalari ospetsuari; eta guk, berriz, *Arroizko Txikia*. Ba, ni buruz oker ez banabil, korrikalariaren lengusua da Alejandro Azpiroz.

Arrokerizko itzik sekulan iñun entzun ez dioguna. Apala ta ixil utsa.

Beasaingo faubrikaren batean urte mordoska pasa zituen lanean, eta gero bere sorterrira joan zan, ortik erretiroa artuta uste det. Orain an bizi omen da, bere familikoekin batera, baserriko lane-tan etxekoeri lagunduz. Esnetarako bei talde aundia eduki bear dute, adibidez.

Izan ere, Arroitz aldean, ganaduari jarraitu ezean, ez dago beste iñundik etorkizun segururik. Beti nekazaritzatik mantenduko zirala dirudi arroiztar geientsuenak, edo agian bertan bizitza asi ta bukatu arteraiño eraman duten guztiak.

Industririk ez dan erri txiki oietan, opiziorik ikasi gabeko mutillentzat jokabide jakin samarrak ezagutu genituen gure gazte denboran: batzuk, aizkora artu ta basora lanera; eta besteak peontzara. Faubriketako fundizioetan enpleatu oi ziran asko len. Gaurko berri ez dakit.

Dana dala. Alejandro Azpiroz onek eta Lazkao-Txikik ar-eman estuak zituzten alkarren artean. Beasain alde ortan irabaziko zuten, itxura danez, bein betirako konfiantza.

Egun batez, gogoratzen naiz, amar urte izan litezke gutxi gora-bera, Iruñera gendukan joan bearra; ta Joakin Berasategi etorri zan kotxearekin Oriora nere billa. Emendik Tolosarako bidea artu genduen, eta gu noiz iritxiko zai an zegoen Lazkao-Txiki, aurrez izentatutako lekuan.

Alaxe, sartu da barrura ta bagoaz irurok kontu kontari lasai. Baiña Arroitzen paretik pasatzerakoan, onela dio Lazkao-Txikik:

— Alejandro etxean egongo dek orain. Ikusiko al diagu?

— Bai; naiko likek itzegin arek eta goazen, denbora daukagun kasoan —esan da an dijoa kotxearekin berebiziko txispan Joakin Berasategi, baserriko ateondoraiño,

Zakurrak zaunkaz sentitu orduko, irten da kanpora nor ote dan ikustera Alejandro bera, ta pozez gaiñezka jarri zaigu gizona.

— Zer zabilzate, mutillak, emen? Edo zer gertatzen dan jakin al nezake?

— Bai. Iruñera goazela, bidean pentsatu diagu iregana etortzea. Joan nai al dek gurekin batera? —esan dio Lazkao-Txikik, eta:

— Erropak aldatzea besterik ez diat falta. Itxogin zaidazute pixka batean, laixter prestatuko nauk eta.

Orixe zan Alejandroren erantzuna. Etzuen denbora askorik alperrik galdu, ta bereala abiatu giñan Iruña aldera.

Bide onean kotxe indartsuak kilometro mordoska aitaren egin orduko pasatzen ditu, txoferra trebe antzekoa baldin bada ta aurrean ezeren trabarik ez bazaio jartzen. Guk, suertez, egun artan kamio geientsuenak libre billatu genituen; eta itz emandako ordua iritxi baiño len antxe geunden bear zan toki berean.

Iñor zai eduki arazitzeak neretzat ez du batere meriturik. Kaltea geiago ekarri lezake gerorako. Eginkizunik txikiena ere aundi biurtu bailiteke batzuetan.

Dana dala, gure lagun Alejandro etzan asarre. Arroizko baserritik ez ditu sarritan egingo alamoduzko irtenaldi kapritxosoak seguru asko, ta noizean bein aprobetxatzea ez dago gaizki, nik uste dedanez beintzat. Lanerako izango du denbora, gogoia ta saiatu naia dauzkanak.

Iruñen genduzkan gora-berak bukatu ondoren, etxe aldera begira jarri giñan. Baiña bide ertzean zegoen ostatu batean afaltzen gelditu lasai ta presarik gabe. An, sabeletako otzak kenduaz, kontu kontari jardun eta martxa. Arroitzen Alejandro Azpiroz bere baserriraiño eraman lenengo, ta beste iñun gelditu bearrik ez Tolosara arte.

Lazkao-Txikik bere kotxea zeukan tokira zuzenean. An ura utzi ta ni Oriora ekarri ninduen Joakin Berasategik txukun asko,

Gu, lengo bertsolariak, diruz pobre izan gera, baiña lagunez aberats; eta orixe da nik ixtimatzen dedana.

Arroizko Alejandroren antzeko asko sortu balira Euskal-Erri guztian, bertsoan naikoa lan izango genduen, beste ezertan sartu gabe. Nik ez dakit

nola esplikatu zergatik dituen ainbesteko zaletasuna eta itxumena gizon arek. Iruñen gustora ibili zala ez dago ukatzerik.

Baiña, andik denbora gutxira, berriro Lekunberrirako abixoa artu ta joan giñan Lazkao-Txiki ta biok, lagunarteko bazkari batera. Negua zanez, kanpoan giro otza ta txarra zegoen. Baiña guk bagenekigun nun gendukan babesleku dotorea, eta uraxe aprobetxatu.

Alejandro Azpirozen lagunak izango ziran koadrilla artan geientsuenak. Ala ziruditen beintzat. Bazkari ederra zeukaten prestaturik, umore onean jendea jartzeko modukoa.

Bai guk kantatu ere oparo. Bertso saio luze askoak egin genituen. Bearko gaiñera, entzuleak aseko baziran.

Neguko arratsaldea motza oi da sarritan, berandu bazkaltzen asi ezkeru batez ere; ta maian bertan geundela illundu zitzaigun.

Bitarte artan, ordea, jendeak bazuen gozamina. Oiuka eta txalo beroz animatzen ginduzten kanturako. Arroiztar Alejandrok parre eta negar biak batera egin zituela uste det, pozarez pozez, gure zelebreyeriz zoraturik.

Bertsotarako ere egun guztiak ez dira berdiñak. Batzuetan errez asmatzen da; ta urrengoan, berriz, galanki kostata. Orrela gertatzen dala ongi baiño obeki dakigu ta kito.

Beste egun batez, gogoratzen naiz Alejandro onen ateraldiz. Nola ez, ain zelebrea izanik?

Urdaillean ultzera zeukala ta Donostira eraman omen zuten operatzera, eta an medikuak ikusi edo miatu lenengo, oitura duten bezela, noiz ebakuntza egin erabakitzeke aurrez alegia; eta prestakizun berezian jarri, komeni zitzaion tramentua emanaz.

Baiña beste gora-bera bat zegoen tartean Donostin: bertso saio sonatua igandez; eta Alejandrok, entzutera joaten utziko zioten esperantza.

Alperrik, ordea. Garai egokia ikusi zutenean, operatzea pentsatu ta egin gaiñera eskubide osoz. Alaxe, goizeko lanak bukatu ta bazkalondoan, joan zaio Lazkao-Txiki bixitatzera, ta galdetzen dio:

— Ongi egongo aiz, Alejandro, noski? Itxura bikaiña daukak.

— Bai. Gaizki ez negok; baiña pena galanta eduki diat gaur.

— Zergatik uan, ba, pena? —Lazkao-Txikik berriro. Ta:

— Zuen bertsoak entzun nai nizkian, eta joaterik ez. Esan nitxoan medikuari astelenera arte atzeratzeko operazioa.

Kaixo, jaunak! Ori da gizonaren gibela. Gauzak lasaitasun ortan artzen jakin ezkeru, ez dago bizi eziñik.

Lazkao-Txiki zanak parre algara gozoak egiñez kontatu zizkidan pasadizo auek, eta ez nintzan batere arritu, ezagutzen baidet Alejandroren nortasuna goitik beraiño.

Bertsozaleak asko dirala badakigu. Bestela, ez litzake biltzen dan aiña jende bilduko jaialdietara. Baiña Alejandro onen parekoak oso banakak eta kontatu errezak bearko dute izan.

Bertsoa ez du entzun bakarrik egiten. Jan, ausnartu eta ulertu ere bai, gutxik bezela, Emen bakoitzak bere doaiak dauzka, dudarik gabe.

Lagunarterako ere gizon ixilla da benetan. Sekulan ez det ikusi bullan mintzatzen iñorekin. Beti burua makur edo serio samar, eta apal antzean.

Arroitzen, iñauterietan, len garai batean eramaten zituzten bertsolariak. Gu prankotan jardunak

gera kantuan erri artan. Jende atsegiña ta sano
utsa billatzen genduen.

Egun luzea eta gaua geientsuena lanari loturik
pasatzen genituen. Ala ta guztiz ere kontentu, en-
tzuleak gustora zeudenetan. Batez ere Alejandrok
etzuen gure ondotik iñora aldegingo.

Doneztebe

NAPARROAN, erri batzuetan, bertsolariak ixtimazio izugarria izan dute, nere ustez. Leitza aldetik asita, Areso, Uizi, Lekunberri, Gorriti, Ezkurre, Goizueta eta abar. Beste aldera jota, berriz, Beratik Baztango muturreraiñoko erririk geientsuenak pasata dauzkagu, eta bertsozale purruratu asko ezagutu ditugu oietan ere.

Donezteben sarritan antolatzen zituzten bertsolarien jaialdiak. Baiña egun batez sekulan ez naiz aztutzen nolakoa ikusi genduen.

Joanito Mariezkurrena zan guri deitu ziguna. Gizon onen burua ez da zerra autzarekin egiña. Gogoratzen zaizkio arritzeko moduko gauzak. Ordukoa ere alaxe moldatu zuelakoan nago. Bera bakarrik etzan ibiliko noski, Izango zituen laguntzailleak, seguru asko, nik ez dakidan arren.

Dana dala, arri jasotzen Perurena leitzatarra eta Itziarko Endañeta jardun ziran. Aizkoran, berriz, Arria bigarrena eta Mindegia.

Baiña nola, ordea? Txandaka, Arriak aizkoran eta Endañetak arri jasotzen osatzen zuten bikotea. Beste aldetik, berriz, Mindegiak Perurena zuen lagun.

Aizkolari batek bere lana burutu orduko, arriari elduko zion lagunak. Aldiko bi enbor ebakita ta arria lau aldiz jaso. Ori ote zan bikote bakoitzaren eginkizuna daukat errezeloa. Baiña ez nago oso seguru, esateko moduan. Eta, oker idatzi baldin badet, barkatzea naiko nuke mesedez.

Dakidana auxe da: lan ederra egin zutela laurak ere, ta Mindegia ta Perurena nagusitu zirala azke-nean juxtu-juxtuan. Endañetak amasei arroako arria eta Perurenak emezortzikoa erabili zituzten, entzun genduenez.

Ortik aparte, sokatira ta tarteka gu, Lazkao-Txiki ta biok, bertsotan. Izugarrizko jendetza bildu zala gogoan det egun artan. Doneztebeko pelotalekua aundia bada ere, betekada galanta artua zuen, iñoiz ez bezelakoa adibidez.

Endañeta ordurako arri jasotzeari pixka bat utzita zegoen. Baiña artean bazeuzkan piparra ta gatza. Len ona izan zala garbiro erakutsi zion jende guztiari.

Perurena, berriz, egunetik egunera gora zijoan sasoi ikaragarrian, eta geroztik eman ditu bere partek. Irureun eta ogei kiloko arri baldarra bizkar gaiñera jasotzen ikusita gaude, 1994-ko otsaillaren 5-ean, Euskadiko sei orduetan, Donostiko Belodromoan, ni deskuidatu ez banaiz.

Oraingoz, Saralegi ta biak alkar berdindurik daude arri klase ortan. Baiña Perurenak esku bakarrez berreun eta irurogei ta zazpi kiloko arria jasota omen dauka. Bada zerbait.

Len, gure gazte denboran, Naparroan ez genduen ezagutu arri jasotzaille sonaturik; eta gaur Leitzako errian bertan dauzkagu bi, arritzeko modukoak.

Dana dala, goazen berriro Doneztebe aldera. Zorioneko billera bikain ura ezin liteke aztu ta baztarrera utzi iñolaz ere.

Arratsaldeko pesta plazakoa bukatu ondoren, ostatu batzuk bixitatu genituen. Denak leporaiño jendez beterik ikusten ziran. Inñun ezertarako toki-rik ez eta an genbiltzan, al zan bezela.

Baiña Joanito Mariezkurrenaren lagun bat gurekin zebillenez, etxera abiatzeko kontua aipatu genduenean, arek esan zigun:

— Gaur ez daukazute emendik inñora joaterik afaldu arte. Au Joanitoren enkargua da. Zuekin batera ibiltzeko agindua eman dit neri. Bera laixter agertuko dala badakit. Bitartean itxogin dezaiogun lasai, ta gero ikusiko degu nora jo bear dan.

Orixe zan gizonaren erabakia, belarriondoko bana baiño ohea artzeko ere; ta bereala an dijoaki-
gu Joanito billa.

— Onezkero aspertuko ziñaten nere zai —zion berak. Eta:

— Ez da nekatu geralako. Baiña orduak aurrera zijoazen eta etxe alderako martxa artzeko asmoa gendukan. Baiña zure lagun onek esan digunez, afaldu egin bear omen da, ta ezin ibiliko gera presaka beingoarengatik, Joanito —erantzun nion neronek.

Laixter joan giñan afaltzera. Ordurako, maiak betetzen ari ziran jendez. Mindegia ta Arria bi aiz-
kolari sonatuak koadrillan zeuden kontu kontari. Perurena ez dakit an zan. Endañeta ere agian ez.

Oiek, plazako lanak bukatzean, aldegiten zeki-
ten zintzo, ta ala bear ere gaiñera, gorputza bere puntu onean edukiko baldin bada.

Gure eginkizuna beste modu batekoa izan da: gau txorien antzeko samarra, sarritan beintzat. Edo goizaldera-ta indartsuago kanturako, baso zuloan ontzak bezela.

Donezteben afari zoragarria prestatu ziguten gau artan. Nik ez nuen geiegi aprobetxatu, ezin

nuelako. Bestela, aukera guztiak eskura eskeintzen zizkidaten, maia serbitzen zebiltzanak.

Jateko kontu ortan beti erabili ditut arazoak aspaldiko urtetan: bat ez artzeko ta bestea ez dala komeni, gustoko gauzak bildurrez utzi ta aurrerako gutxi. Orixo da neri gertatu zaidana ainbat biderrez.

Baiña Donezteben ikusi nituen apetitu ederreko gizonak. Zenbat eta janari astunagoa jan, orduan da aurpegi gorriagoak jartzen zitzaizkioten, batzueri beintzat. Aiek zeukaten osasuna!

Nik uste det emen pertsonaren izakeran dagoela alde ikaragarria. Badira sekulan gaitza zer dan probatu gabeak, eta urte mordo aundian bizirik jarraitzen dutenak. Orrek adierazten digu garbiro berezko sanidadea dala onena, zutik iraun al izateko.

Dana dala, Donezteben afalondoan bi edo iru bertso saio egin genituen Joanito Mariezkurrenaren aginduz. Pozik gaiñera, guretzat oso borondatetsua baida gizon ura, ta bertsozale purrukatua.

Baiña etzan bakarrik. Gaiñontzeko jendeak ere esperoko zuen zerbait. Alamo duzko itxura artu genion ango gozamenari. Lagunartean iñor minberatu gabe itzegiteak asko balio du; ta, gu artantxe saiatu giñanez, denok kontentu. Zer bear da geiago?

Lazkao-Txiki zana ere gustora etxeratua zan benetan. Onela esan zidan, alkar agurtzerakoan:

— I, Lasarte: gaurkoa baiño egun oberik iñoiz ez diat pasa.

Beraz, konforme zegoen egindako lanarekin; eta neronek ere iritzi ber-bera neukan. Erriaren naia bete ta asetzen duenean, lasai gelditu oi da bertsolaria, urrengo deiaren zai; ta agian uste baiño len artuko du beste abixuren bat bertatik edo inguru samarretik.

Sarritan gertatu zitzaigun ori, guri beintzat; eta asko ixtimatzen genduela aitortu bearrean aurkitzen naiz.

Lazkao-Txiki ere ortan azkarra zan, beste gauza askotan bezelaxe. Arek laixter antzematen zion entzule jendeari gustora zegoen edo ez.

Baiña Doneztebeko goraberak bukatzera nijoa, geiegi luzatu gabe, ta onenbestean utziko ditut.

Arantzazu eta Urbia

URTE mordoska aundia pasa zaigu geroztik, eta ezin nezake fetxarik izentatu. Baiña Arantzazutik deitu ziguten aurrez, artean bi illabete edo agian iru falta zirala, nola zeukaten asmoa Urbian ildako fraile bati omenaldia antolatzeko antxe bertan; beraiek erabaki zutela artarako egun egokia, ta bi bertsolari nai zituztela, Lazkao-Txiki bat eta bestea Lasarte, iñundik alean beintzat. Ea libre ote geunden.

Abixu au ez dakit, Lazkao-Txikik ala nik, nork artu genduen lenengo, seguru esateko. Baiña, alkarraren artean itzeginda, libre geundela ta joango giñala erantzun genioten.

Egun gutxiren barruan deitu zuten berriro: bezperatik joateko Arantzazuko komentura, larunbatean alegia; an egongo zirala, guretzat prestaturik, afaria ta gauean lo egiteko oeak.

“Bueno. Etzegok gaizki erabakia —pentsatu nuen nik nere baitan—. Geienetan presaka ibili bear izaten diagu, baiña an lasaitasunaren billa zebiltzak, itxurak diranez”.

Alaxe, izentatutako larunbat illunabarreko trena artu emen, Orion; da, Maltzagaraiño bidea egin ondoren, trenez aldatu: Bilbaora zijoana utzi ta Oñatirakoa artu. Segi aurrera, denborarik alperrik galdu gabe.

Oñatira iritxi nintzanean, tasisten geltokira nijoala, Arantzazuko ostalari ezagun batekin topo kalean.

— Zer zabilta ordu auetan emen, Lasarte? —galdetu zidan.

— Zer nabillen jakin nai badezu, laixter esango dizut. Arantzazura daukat igo bearra gauerako; ta, oiñez joateko berandutu zaidanez, kotxe baten billa.

— Ori besterik ez bada, ta presa aundirik izan ezean, errez konponduko degu, Lasarte. Itxogin zaidazu pixka batean, orain zauden tokian. Nik kotxea aruntzago utzi det, beste aldeko kalean enkargu batzuk neuzkalako. Baiña badakit onezkero prestatuko zituztela, ta aiek artu ta berealaxe ementxe naiz. Neronek eramango zaitut Arantzazura. Zergatik eman bear diozu tasistari dirua? Alperrik gastatzea litzake ori.

Alaxe, ontzat jaso nuen arrazoi ura; ta, nik zigarro bat sutu ta erre ordurako, inguratu zitzaidan ostalaria bere kotxearekin bertaraiño egoki asko. Atea iriki, sartu barrura ta martxa, bidean kontu zarrak esanez.

Bertsozale purrukatua izanik, bazeukan zer galdetua ugari antzean, eta ez genduen aspertzeko astirik izan.

Arantzazura iritxi giñanean, berriz, komentura lagundu zidan, eta sarrerako atearen zintzarria berak jo. Neretzat endredorik etzuen jarri naiko edozein modutan ere.

Ta, betik zintzarri otsa entzun zutenean, an dijoa-kigu fraile aundi bat atea irikitzera, lasai ta patxara ederrean itzegiñez.

— Gau on bioi. Etorri al zerate? —zion berak. Eta:

— Bai. Ostalari onek ekarri nau, Oñatin alkartu geralako, ta suerte ona izan det gaur. Berandutxo agertu ote naiz zuen etxe ontara? —galdetu nion, eta:

— Ez, gizona. Guk afaldu degu, baiña zuretzat aña jateko sobratuko zan noski, ta atoz nerekin —erantzun zidan fraile jaunak.

Alaxe, ostalaria agurtu ta abiatu giñan eskallera artan bera, frailea aurretik gidari zala; ta sekulako parre algarak eta txalo otsak sentitzen ziranez, pentsatu nuen: “Lazkao-Txiki ni baiño len etorri dek pesta jartzera, seguru asko”. Ez nintzan asko deskuidatu.

Jangelara sartu orduko, maian exeri arazi ninduten, afari beroa eramane ere bai, ta aurreko aldean neukan fraileak eta biok jan-edanak on egin zezaten errezatu genduen lenengo, ta gero gorputzari zego-kion alimentua eman.

Arantzazun bazan garai artan gurekin konfiantza osoa erabiltzen zuen fraile jator bat. Azpeitiko Beloki deitzen genion.

Aretxabaleta, Arrasate, Bergara, Oñati ta inguru oietan bertso saiorik gendukan bakoitzean, ura ikusi gabe gutxitan geldituko giñan. Geienetan an egongo zan aurreko puntan gure bertsoak entzuten, belarriak erne zituela.

Zaletasuna izan alakoxea, Azpeitin askok duten bezela. Gizon apala ta atsegiña iduritu zitzaidan beti. Era berean, argi aparta gaiñera.

Arantzazuko komentuan eman zidaten afari artan, botillero nuen Beloki; ta baso aundia goiko muturreraiño bete zidan aurrez, zopa jaten asi baiño len.

Ni ardo edale txikia nintzan orduan ere; ta afariaren bukaeran, len betetako basoa ustu gabe neu-

kan artean. Erdia an egongo zan, gutxi gora-bera. Berrero bete zuen basoa Belokik; eta, geiegi iduritu zitzaidanez, esan nion:

— Zer ari zera, gizona, ardoa alperrik galtzen? Nik gaurko partea jatekoarekin batera artu det. Ikusi nazu ez dedala geiagoren bearrik.

— Ixilik egon adi mesedez, Lasarte, ik utzitakoa nik edango diat eta.

Orixe izan zan Belokiren erantzuna, ta trago batean ustu zuen baso aundi ura.

Alaxe, geroxeago igo giñan biok goiko salara, ta an ari zan Lazkao-Txiki txiste kontari, estudiante guztiak parrez eta txaloka aurrean zituela. Gazte aiek ixtimatuko zuten gau zoragarri artako Lazkao-Txikiren umorezko jarduna. Nola ez?

Baiña denbora neurtu samarra zeukaten, ordea, beraien gozamenerako. Guk beko jangelan ordu erdiren bat pasako genduen. Asko geiagorik ez beintzat, afaría berealaxe bukatu bainuen nik; eta, gora igo giñanean, Lazkao-Txiki ere ixildu zan. Gazteak lotara aldegin ziguten, eta kito.

Urte aietan ikasle asko ibiltzen omen ziran Arantzazun, fraile karrera egitera joanik. Baiña ez det uste den-denak bukatzen zutenik. Batzuek, aspertu edo nekatuta, beste lan klase bat aukeratu ere bai, eskolaz jantzi ondoren. Nik orrelako kasoak ezagutu ditut prankotan. Pertsona bakoitzak bere bizitzarako zer erabaki artuko duen iñork ez du jakiten, ikusi arte.

Dana dala, goazen lengo saillera. Arantzazuko komentuan ordu juntuak edukiko zituzten gauean lotara erretiratzeko, eta goizean oetik jeikitzeke ere bai noski. Etxe aundi oietan zuzentasuna erabiltzen dute gai ortan. Bestela, errespetoa galtzeko arriku bailegoke gazte jendearen artean.

Oraingo ez det uste Arantzazun estudiantzen edo ikasketak egiten iñor ibiliko danik. Baiña gu an

izan giñanean, mutil gazte asko zeuden, sasoi ederrekoak edozer lanetarako ere.

Lazkao-Txikiren parrandarako gogoia, berriz, ortik onerakoa garai artan.

Komentuan guri erakutsi ziguten gelak bi oe zeuzkanez, ni erropak erantzi ta segituan sartu nintzan batean; eta Lazkao-Txikik, leioa iriki ta kanpora begiratzen zuen.

— Zer ikusi dek or, Joxe Migel? —galdetu nion. Eta:

— Emen altura galanta ta legortea besterik ez. Egarrria zeukat dexentea, baiña etzeukagu salto egin da iñora joaterik, Lasarte —erantzun zidan.

Alaxe, gauetan lo zorroak ongi bete al izateko modu egokia jarri ziguten Arantzazun; eta urrengo goizean, oetik jeiki orduko, ostatura zuzenean gosaltzera.

An komeni zanetik ase ondoren, Urbiaraiño oiñez igo giñan, kontu zar da berriak esanez, goxo asko; ta gero eguerdian, agindu ziguten garaian, ekin genion kantu lanari perezik edo gogo txarrik gabe, umore onez baizik.

Lenengo saioan jendea oso gustora utzi genduela-ta, bigarrena eskatu zuten jai eratzailleak. Guk ez gendukan ezezkorik esaterik iñolaz ere, ta pozik erantzun genion bertsozale guztien eskaera jatorrari, eta asmatu.

Gaiñera, ez dakit gosari gozoaren eragiñez edo zergatik, baiña ixilik egon baiño kantari jardun naiago genduela gogoratzen naiz oraindik ere. Alde ederra nabaitzen da une batetik bestera bertsoetan ere, edozer lan klasetan bezelaxe.

Dana dala, eguerdiko pestaren berri eman det, gutxi gora-bera beintzat; eta bazkari anaikor ura aipatu gabe ez nuke gelditu nai.

Urbian ez nuen uste ostalariak ain dotore prestatu-
turik zeudenik. Baiña gure oitura ikusi ta sinistekoa
nola dan, guztiz arriturik utzi ninduen ango martxak.

Jatetxeak, sarrerako atearen aurreko aldean
bertan, zugaitz eder batzuk zeuzkan; eta, eguraldi
eguzkitsua edo beroa egokitu zitzaigunez, aien itza-
lean mai aundi batzuk jantzi ta jarriak zeuzkaten.

Gu joan baiño lenagotik, jendetza ugaria bildu
zan. Aurrez jakingo zuten ostatu artan zenbat lagu-
nentzat prestatu bear zan bazkaria. Seguru samar,
kanpoan exeri ta lasai jateko moduko giro atsegi-
ñak ez dira sarritan izango Urbian. Baiña guretzat
aukerakoa egokitu, ala bearrez edo nik ez dakit
nola esplikatatu ere gauzak.

Bazkari ederra eman ziguten beintzat, eta andik
aurrera bazan nai aiña umore ta pesta. Guk, Laz-
kao-Txikik eta biok, zenbat bertso kantatu ote geni-
tuen? Auskalo! Aspertu ezin entzule jendea. Gustora
dagoenean gertatzen da ori jeneralean. Egun zoraga-
rria izan zan, goizetik asi ta illunabarrera bitartekoa.

Naiago nuke omenaldia Urbian egin zioten ilda-
ko frailearen izena baneki, emen idazteko. An esan-
go zidaten dudarik gabe. Baiña, geroztik urte asko
pasa diranez, aztua daukat. Lastima! Orrekin ez al
da iñor minberatuko noski.

Dana dala, gu Urbiatik Arantzazura oiñez jetxi
giñan illunabarrean; eta, Lazkao-Txikik motoa an
zeukalako, suerte ona izan nuen. Oñatin etxe alde-
ra etortzeko trena galdu baldin banu, gaizki ibili
bearra neukan. Baiña Lazkao-Txikik motoan era-
man ninduen estazioraiño, ta garaiz iritxi nintzan
txartela artzeko ere.

Beraz, ontantxe utziko det Urbiako ixtoria.

Gaztelu

T OLOSA ondoko Gaztelu aipatzera nijoia aspaldiko partez. Ni Gaztelun bertso asko kantatua naiz, gazte denboran batez ere, ta geroxeagoan ere bai.

Lenengo bi edo iru urtetan, Oiartzungo Mitxelena bertsolaria erabili nuen lagun. Baiña, andik aurrera, Uztapide naiago zutela ta biok joaten giñan, beste erri askotara bezelaxe, oso pozik gaiñera.

Jende baserritar sanoa inguratzen zitzaigun goizetik. Meza nagusia entzun ondoren, ostatura ta amaiketako ederra denok batera egin oi genduen; eta gero maian bertan bertso batzuk kantatzea nai izaten zuten ara biltzen ziranak, arrazoibidez noski.

Erriko agintariak ere oitura ber-bera zeukaten urte aietan: lenengo, meza nagusira joan, udaletxean denak alkartuta; eta gero, elizatik irtendakoan, ostatuan sabelak berotu jan-edanez, plazako pesta asi aurretik.

Gaztelun len elizaren aldemenean antolatzen zituzten pestak. Toki egokia uraxe idurituko zitzaienten. Oraingoz ez dakit nola dabilzan. Nik aspalditxoan ez det bixitatu erri polit ura.

Gu an ibili giñan garaian, udaletxean bertan zegoen ostatu inportantea jendez leporaiño beterik ikusten genduen joandako bakoitzean.

Izan ere, oso urrean dauzka Gazteluk ainbat erri: asi Tolosatik, Billabona, Amasa, Ibarra. Elduaien, Leaburu, Berrobi ta abar.

Txomin Garmendia bertsolaria Gaztelun ezagutu nuen nik, artean mutil gaztea zalarik. Afalondoan gurekin bertsoan jardun nai ta, inguruan zegoenez maian leku pixka bat eman genionean, exeri orduko ekin zion lanari, ta dotore kantatu gaiñera bertso mordoska.

Len izentatu ditudan erri batzuen egalean, Belauntza ere an dago egutera aldeko aldapatxoan, goitik begiratuaz.

Urte askotan bertso saio ugari egiñak gera gu Belauntzan, bertako pesta giro ederrean. Uztapide lagun nuela sarritan joaten nintzan.

Baiña beingo batez Lazkao-Txikirekin jarri ninduten, eta bere ateraldi umoretsua idatziko det.

Eguerdiko jaialdiari asiera emateko, bertso batzuk kantatzeko agindu ziguten. Baiña gutxi aski zirala; asto karrera zeukatela ta, aiek bukatzean, gure txanda izango zala berriro.

Alaxe, astoak eraman zituzten arraira, mutil gazte bakoitzak bere astoa zuenez. Bost edo sei bildu ziran bearrezko lekura, asto gaiñetan exerita, dotore ustez. Baiña naiko zalaparta sortu zan. Asto bat arra izaki ta iñork ezin errenditu. Emeak ikusi zituenean, zearo zoratu ta nastu.

Dana dala, noizbait ekin zioten korrika apustuari beintzat, eta an zebiltzan alde batera joan da bestera etorri. Asto arrak aiek arrantzak eta arnas otsak! Bost ankan zebilela zirudien. Baiña emeak arrapatu eziñik, ordea, estuasun latzean segika.

Ta Lazkao-Txikik onela esan zidan:

— I, Lasarte: ikusten al dek atzeko asto ar ori nola dabillen, emeak egurrarekin aurrean artuta?

Zenbat orrelako zelebrekeri entzun ote zuen jendeak Lazkao-Txikirengandik?

Gaztelun ere uste gabeko txoria agertu zitzaigun Lazkao-Txiki, biok izan giñan urte artan, eta esango det zergatik.

Eguerdian, plazako bertso saioa bukatu gendue-nean, ostatura inguratu zan zar jendea batez ere, soiñua ta dantza gazteentzat utzirik. Lagunarteko goxotasuna naiago, kanpoko musika otsa baiño, askok beintzat; eta guk ere bai noski, naiz artean sasoiko geunden arren.

Alaxe, maian exeritzen ari ziran batzuk; eta, guretzat tokia erdian jarri zutenez, bertan egokitu zitzaigun aukerako laguna denbora errez pasatzeko.

Lenengo, bertso kontuak erabili genituen, sarritan oi dan bezela; ta gero Lazkao-Txikik eta biak ekin zioten alkarrizketa luzeari. Ni zearo arritu arazi ninduten, gure aurreko gizaldietako ixtori zarrak kontatzen asi ziran garaian; eta aldemenean neukanari galdetu nion diximuloan:

— Nor da Lazkao-Txikirekin izketan ari dan gizon au?

— Orixe sonatuaren izenik ez al dezu bein ere entzun?

— Bai. Entzun izan det noiz edo noiz.

— Auxe da, ba, Orixe idazlea, Lasarte —erantzun zidan.

Gauzak ederki esplikatzen zituela pentsatuaz gelditu nintzan nere kasa, ta Lazkao-Txikik obeki ulertuko zizkion, nik baiño eskola geiago zeukanez.

Maian zegoen jendea ao zabalik eduki zuten bien arteko alkarrizketa luze aren bidez. Lurralde ontako

artzaien eta baserritarren asiera noiztik edo nola sortua zan bazekiten. Itxurak alamoduzkoak agertu ziran beintzat.

Orixe ospetsuak etzuen iñor arritu araziko noski, ordurako ainbat obra eder ezaugarri bezela idatzi ta erriari emanik zeuzkalako adibidez.

Baiña denok ez degu berdin pentsatzen, ordea. Lazkao-Txikik, amazazpi urte zituenerako, irakurritan omen zeuzkan Orixeren idazlanak goitik beraiño. Etzuen, ba, diru aukera aundirik erabiliko garai artan, guk ez-ezik.

Baiña pixkanaka txanponak ongi gorde ta mordoska osatzean, liburuak erosi. Ori izango zalakoan nago Lazkao-Txikiren jokabide zuzena. Bakoitzak bere gustoak ditu mundu ontako bizitza laburrean.

Gazteluko alkarrizketa gozo aren bukaeran, onela galdetu zion Orixek:

— Zuk nun edo nola ikasi dezu orrenbeste?

— Nik liburuak irakurtzeko apizio izugarria det, denbora pasa nagoenetan; eta aietatik jantzi naiz pixka bat.

Auxe izan zan Lazkao-Txikik Orixeri emandako erantzuna, arrokeririk gabe, umiltasun osoan. Idazle askoren liburuak irakurritan zeuzkala aitortzen zuen Lazkao-Txiki zanak.

Artara norbaitek beartu ezkeren, nik iñoiz entzun nizkion gauza garrantzitsu pranko, ta pentsatu ere bai: “Joxe Migelen burua ez dek utsa”.

Gazte denboran bezela ez dakit; baiña, gaixotu bitarteraiñokoan, beti edo astia zeukan guztian erabiliko zituen arek liburuak eskuetan.

Zerbait ikasteko griña berez sortzen zaio pertsonari, ta ala bear ere gaiñera. Bestela, ez legoke artistarik eta ezer ongi egiteko modurik.

Orixe zanak bere famili artekoak omen zeuzkan, Gaztelun bizi ziranak noski, ta aietara joango zan.

Erriko pestetan etxeakoak bixitatu ta bazkari on bat egin, tiro bakarrez bi txori botatzea bezela da ori.

Gizon serioa ta jakintsua izango zala dudarik ez nuke jarriko Orixeri buruz. Nik Gaztelun ezagutu nuen zorionez, eta izugarri gustatu zitzaidan.

Garai artan autorik inork etzuen, esate baterako; edo oso gutxik beintzat. Baiña, ala ta guztiz ere, jendetza aundia sarritan ikusi genduen Gaztelu gaiñean.

Eguraldi sano antzekoa danean, zeru goia argi egoten da; ta Tolosa beko sakontxoan erle eultzaren antzera bildu-bilduan dagoela ematen du, andik begiratuta.

Izugarri erri polita eta bista ederrak noranai dauzkana degu Gaztelu. Zerbaitengatik joaten zan ainbeste jende pestetan ara. Baiña nola? Banaka batzuk bizikletaz baliaturik, mutil gazte ziranak; edo motoak zeuzkatenak, aiekin dotore asko. Gaiñontzekoak, berriz, oiñez *taka-taka* paseatuaz.

Urdiain

NAPARROA datorkit burura une ontan. Antxe ere badira erri-mordoska bertsolaritzari esker ezagutzen ditugunak. Kantu-lan ori bitarteko izan ez balitz, sekulan bixitatuko ez genituenak, batzuk beintzat, seguru asko.

Egun batez gogoratzen naiz bereziki, Urdiandik Joxe Mari Satrustegi apaizak nola deitu zigun bertsoarako Lazkao-Txiki ta biori.

Erriko pestak antolatzen asteko asmoan zeudela alegia, ta egitaraua osatzeko gure berri jakin nai zutela, joateko moduan geunden edo ez. Artean denbora asko falta zala pestetarako, baiña garaiz gauzak erabakita uztea gustatzen zitzaiola berari. Arratsaldetik izango genduela ango bertso-saioa.

Abixua artu ta bereala itzegin genduen Lazkao-Txikik eta biok telefonoz, alkarren berri jakiteko; ta baiezeko erantzuna eman genion Joxe Mari Satrustegiren galderari. Arek izentatzen zuen egunerako ez gendukala iñungo konpromisorik eta joango giñala, ta lasai egoteko.

Alaxe, bezperan nunbait bagenduen bertso-lana, sarritan bezela; ta esan nion Lazkao-Txikiri:

— Biar Urdiain aldera inguratu bearko diagu, Joxe Migel.

— Bai; ori gogoan zeukat —erantzun zidan.

Nik Beasaiñera trenez joateko pentsamentua neukan; baiña berak atera zuen idea ohea ta neretzat egokiago zetorrena. Onela asi zitzaidan galdezka:

— Biar Tolosan bilduko al gaituk, Lasarte? Edo zer iduritzen zaik?

— Ik galerarik ez badek, oso ongi. Nik ez diat ezer galtzen.

— Gizona! Kotxean gure etxetik Tolosara aitaren egin orduko sartzen dek.

— Bueno, ba! Konforme!

Ordua amabiak gutxi gora-bera esan genion alkarri. Ostaturia ere izentatu genduen: *Agustin* jatetxea, ain zuzen.

Ni neroni ustez puntual ibili nintzan; baiña Lazkao-Txiki bera ere etzan lotan deskuidatu. Agustiniñen ostatura sartu orduko, antxe zegoen denbora pasa nere zai.

— Aspaldi samar etorrita al ago, Joxe Migel? —galdetu nion.

— Oraindik ez dituk amar minutu ni emen nagoela —esan zuen.

Alaxe, biaje luze antzekoa gendukala Naparroako Urdiañera, ta bertan bazkaldu al zanik azkarrena ta abiatu giñan lenbailen Tolosatik, bidean kotxeari pintxazoren bat edo beste zerbait gertatuta ere garaiz zebillenak asmatzen zuela jakiñik.

Baiña, batere presarik gabe, patxadaz eta dotore, pasadizo zarrak kontatuaz, joan giñan.

Lazkao-Txikik, izketarako gaita ona zeukanean, etzuen aldemeneko lagunik aspertu araziko. Ortan badet segurantzia.

Dana dala, Urdiain nik lendik ez nuen ezagutzen. Baiña, erri txiki bat izatekotan, oso polita iduritu zitzaidan.

Ara iritxi ta segituan, ostatura jo genduen, beti bezela; ta, kafeak artuaz maietan lasai zeuden bazuk, ikusi orduko jabetu ziran gurekin.

Beraien ondora konbidatu ginduzten exerita jartzeko, ta zer komeni zitzaigun uraxe eskatzeko bildurrik gabe esan ziguten. Borondatez jantzitako jende jatorraren itxura zeukan koadrilla arek, eta gustora artu genizkieten kafetxo bana.

Baiña beste zerbait nai ta bertso eske asi zitzaizkigunez, kantatu bearra zegoela dudarik ezin jarri inñundik inñolaz ere, ta antxe jardun giñan ganbaran gendukanetik ematen, pozik gaiñera.

Ta gero, plazako lanak aparte, Joxe Mari Satrustegik gai librean kantatzea nai zuenez, alaxe egin genduen saio luze samarra.

Guretzat etzuen zailtasunik gai libreko bertsolaritzak garai aietan batere. Arrazoi bakoitzari zego-kion erantzuna moldatzen oituak geundelako edo ez dakit zergatik, baiña geienetan entzule jendeari belarriak asetzen genizkion.

Nundik asi ta nola bukatu asmatzeak balio du, ta Urdiañen orixe bera gertatu ote zan pentsatu nuen nik nere kasa arratsalde gozo artan.

Ez da beti derrigorrezkoa bertso sakontasun aundikoak kantatzea. Bada beste puntu bat pesta giroan erabili bearrekoa ta jende askori gogozko zaiona: umorea alegia.

Zer adierazten digu orrek? Bertso alaiak aurtxo txikiak jostailuak bezela maite dituela erriak, errez ulertzen diralako.

Urdiañen bertan bertsolariak gutxitan kantatuko zuten seguru asko len. Oraingoz ez dakit jarraitzen dioten pesta klase orri.

Baiña erdera ez ote da nagusitua egongo an ere naikoa ta geiegi, beste alde guzietan ez-ezik? Agian oker ibiliko naiz, iritzi auek idazterakoan, eta naiago nuke deskuidatuta banego.

Dana dala, gu Urdiañen oso ondo artu ginduzten. Nola pertsona edadez aurrera joanik zeudenak, ala gazte sasoiko ta umeak, denak txalo jotzen ziguten, plazan kantari jardun giñan bitartean.

Iru ordu laurden edo ordubete pasako genituen bertsotan gutxi gora-bera, ta ez derizkiot iñor aspertu zanik entzuten.

Agian gauza pozgarri bat izan ziteken ango publikoarentzat. Baita gerorako zaletasun aundirik piztu etzuen ere bearbada. Nork daki?

Nik neronek asko ixtimatu nuen jendearen umiltasuna. Baiña urtez urte bear lirake modu bereko jaialdi atsegiñak, euskerak eta bertsolaritzak bizirik iraun dezaten Naparroako lurralde zabalean ere.

Urdiañen Joxe Mari Satrustegi oso ongi portatu zitzaigun. Plazako lanak bukatu ondoren, denbora pasa pixka bat paseatzen ibili giñan lenengo; ta gero bere etxera eraman da merienda ederra eman zigun.

Oiek guztiak gogoan dauzkat oraindik, naiz eta urte asko joan diran geroztik.

Baiña denetan politena idaztera nijoan au iduritu zitzaidan: maian meriendatzen asi orduko, sartu ziran Joxe Mari Satrustegi apaiza ta Lazkao-Txiki zana biak euskeraren alorrean, zorrotasun aundiz gaiñera.

Ta ez aspertu ta ez ixildu, segi antxe, batek au galdetu ta besteak ura erantzun, Baiña ez txantxetan, ordea, pulamentuz baizik.

Gure aurreko guraso zarren ixtoriala edo kondaira erabili zuten aotan, geienbat beintzat. Jakiña, andik baizetorren sustrairik garrantzitsuena izketarako, ta bai probetxua ateratzen saiatu ere dotore asko.

Nerekiko au gertatu zalakoan nago: bat gendukan gizon jakintsua ustez. Bai izan ere. Joxe Mari Satrustegik asko daki. Baiña Lazkao-Txikik berak ere ederki laguntzen zion.

Nik neronek, ume denboran, Leitzako Franki baserrian elektrikazko argi-indarrrik ez nuen ezagutu. Zentral etxea urrean zegoen; baiña, gu maiztar giñanez, nagusi jaunak etzuen linearik jarri nai, dirurik ez gastatzearren.

Gure aita zanak sarritan eskatu zion mesedez jartzeko argi-indarra; ori nagusiak egin bearreko lana zala, etxearen jabea bera izanik; maiztarrak etzeukala zer ikusirik gai ortan; beste auzotar guztiak bazeukatela gaiñera etxean argi ederra, ta ea guk ez al genduen merezi; beti illunpean edo linboan bezela etzegoela bizitzerik, zentrala bi pausora egonik.

Orrelaxe jarduten zitzaion gure aita nagusiari tarteka; baiña alperrik. Eta azkenerako aspertu leporaiño. Nola ez? Ni oso ume nintzan garaiko kontuak idazten ari naiz. Lengo gerrate ura baiño aurreraxeagotik ezagutu nuen Franki baserrian elektrikazko argia martxan. Baiña ez nagusiak jarrita; maiztarrak bere kontura, gure gurasoak alegia.

Diru asko etzan kostako noski, indar-etxea urre samarrean zegoelako. Baiña naiko galesti irtengo ote zan pentsatzen det famili artarako.

Gure aidak eta amak esango luteke nik baiño obeki, bizirik baleude, zenbat komeri erabili zituzten argi berri ura etxera eramaten egindako gastuak ordaintzeko, naiz eta gero damurik sekulan eduki ez arren.

Egunsentian txoriak bezin kontentu sentitzen ziran aita eta ama, batez ere gauez oetik jeiki bearra gertatzen zitzaioten bakoitzean, krixketari eragin bakarrez argi ederra piztutzen zala ikusirik, nola logeletan ala sukaldean eta ukuilluan edo goiko ganbara zarrean ere.

Bai. Ura zan poza ta zoramena eletrikazko argiak Franki baserrira ekarri zuena! Sinistu ezi-ñezkoa zirudien lenengo gau batzuetan beintzat.

Egunez ez genduen piztutzen. Bestela, kontado-reak markatzen zuen zenbat indar erretzen zan, dotore antzean. Batere deskuidorik gabe ta kontuz ibilita obe. Baiña gauza atsegiña da etxe barruan argi ona.

Guk lendik kinka, krisaillua, kandilla eta krista-lezko linterna erabiltzen genituen argigarri.

Aipatu ditudan auetan onentxoena kandilla izango zan, nere ustez. Karburoaren bidez egiten zuen argi, ta indartsu gaiñera. Gaur oraindik usa-tuko dituztela esango nuke kandillak mineroak edo mendi azpietan lanean ari diranak.

Krisaillua eta kinka askoz ere motelagoak ziran. Gauzez etxe barrurako gutxi balio zuten, eta kanpo-an batere ez.

Kristalezko linterna izeneko ura koadrokoa izan oi zan. Au da, armazoa txapaz egiña, ta ari katiatzen zitzaizkion kristalak. Alde batetik atea edukitzen zuen, iriki ta itxi egiteko; ta, denbora berean, kande-la barrura sartu ta piztu edo itzaltzea komeni zane-rako. Goiko muturrean tubo borobilla, estu samarra, tximini baten antzera, kandelak, sutan zegoen garaian, arnasa artu ta kea kanpora bota zezan. Baita ere puntan txapazko anilloa berekin eramaten zuen, eskuetan noranaira erabiltzeko bildurrik gabe.

Argi klase ona zalakoan egoten giñan au ere. Gaur badago ederragorik baztarretan. Kinka ta kri-saillua, berriz, ipurtargia bezelatsu ziran.

Franki baserri zarrean an ibiltzen giñan, jo ukuilluko abea edo beste edozer uste gabe ta kas-karreko otzak kenduta.

Dana dala, Urdiañen Joxe Mari Satrustegik eta Lazkao-Txikik astindu zituzten nik emen aipatzen

ditudan tresna-klase auek eta gaiñontzekoak ere. Ura zan gozamina aiena!

Lengo lege zarreko euskerazko itzak Naparroan nola erabiltzen zituen jende xeak dotore esplikatzen zituen Satrustegi apaizak. Bai Lazkao-Txikik galde-tu ere, dudan gelditu ezker, sustraitik jakin arte gauza bakoitza nola zan.

Izugarrizko txukuntasunez sentitzen nituen biak izketan aspertu eziñik, eta alako batean esan nioten:

— Zuek gustora ari zerate. Baiña orduak aurrera bazijoazek emen, Joxe Migel. Mugitu bearko diagu. Bestela, Beasainen trenan pasako dek gu joan baiño lenago, ta an geldituko nauk zer egin ez dakidala.

Ori entzunik, bere erlojuari begiratu zion Lazkao-Txikik, eta:

— Arrazoi dek, Lasarte —erantzun zidan—. Beasain urruti samar zeukagu ta abiatu gaitezen lenbailen.

Alaxe, Joxe Mari Satrustegi agurtu, kotxea zegoen lekutik artu ta martxa bidean presaka, noizean bein ordulariari begiratuaz. Gure Lazkao-Txiki naiko estu azkenerako, baiña iritxi giñan Beasaingo estaziora trenan artzeko moduan, juxtuan bazan ere; ta kontentu.

Onelaxe bukatu zan Urdiaingo gure ibillaldia.

Donostia

DONOSTI alde ortan ere noiznai eta nun-nai antolatzen zituzten lagunarteko afari ta billera kapritxoso apartak. Zenbat zokotan bertso-tan jardunak geran esaten ez da batere erreza. Erdiak ez dira gogoratzen, batek nai duen garaian, paperean idazteko. Ezta urreratu ere. Banaka batzuk bakarrik dauzkat nik buruan grabaturik, zerbaiten motiboz seguru asko.

Ixtori guztiak jasota baleude, osatu litezke liburu aundi samarrak, bi edo iru gutxienez ere. Baiña nik ez, ordea, sekulan oiturarik izan ezer idazteko ta gordetzeko.

Azkenerako urte auetara iritxi bitartean, bestelako lanetan nekatzen bainintzan, naikoa ta geiegi sarritan; da berriketarako gogo gutxi oi du bizimoduan estu dabillen pertsonak.

Dana dala, beingo batez deitu ziguten Donostiko *Ur-kirolak* izeneko soziedade edo bazkUNETIK: Lazkao-Txiki ta biok nai ginduztela bertso-tarako; artean bi illabete falta zirala; baiña bazekitela konpromiso askorekin genbiltzala ta aurrez abixatzea pentsatu zutela, ba ez bazan ere: ea libre ote geunden,

beraiek aukeratuta zeukaten gau artarako. Orixe jakitea komeni zitzaiotela bakarrik; gainontzeko gauzetaz ez kezkarik edukitzeko.

Guk alkarrekin itzezin genduen. Lazkao-Txikik libre zegoela esan zidanez, ni ere alaxe nengoen eta baiezko erantzuna eman genioten, Donostiko lagun jator aiek merezi zuten bezelaxe, ta etziran asarre.

— Orain dena konpondua dago ta lasai etorri zuek gauean, zortzirak alderako —zion neri telefonoz deitu zidanak, pozez beterik.

Ur-Kirolak izeneko bazkuneko soziorik geientsuenak bildu omen ziran afari sonatu artara, nik bertan entzun nuenez.

Pepe Yantzi soiñu-jotzaille ospetsua ere eraman zuten guztion atsegingarri, ta jendea gustora gelditu zala uste det, berak egindako lanez. Soiñu-jole garbia eta ederra izango ote zan iduripena daukat uraxe. Alamoduzko fama artua baizeukan aspalditik. Oso goi maillakoa, dudarik gabe; ta ori, saiaturta irabazten du bakoitzak.

Urte batzuk badira Pepe Yantzik mundu ontatik aldegiñik. Il zala jakin nuen, baiña ez dakit noiz, garbiro esateko.

Ur-Kirolak bazkunean afaldu ondoren, bazan naiko pesta. Soiñuz eta bertsoz osatu genituen zale ziranak-edo, nere iritziak oker ez badaude beintzat.

Alkartasun zoragarria zeukaten ango sozio lagunak. Umore ona gainezka, ta parrandarako gogoia orretzek ekartzen duela badakigu probatu degunak.

Goizeko ordubiak jo arte etzan iñor asko asper-tuko noski. Bakarren batzuk ordurako aldegingo zuten, bai; denak ez baidira azkeneko puntan ibili zale izaten.

Nik neronek, gripe gogor samarra arrapatuta, astea geientsuena lanerako gauza ez nintzala pasa

nuen, etxetik irten gabe. Baiña pezta batzuk irabaztearren, Donostira joan. Ara zer eskasa dan pobreaken bizimodua, ongi neurtuko bagendu.

Ur-Kirolak soziedadeko pesta dotore ura bukatzan garaian, larunbat gauetz gain zuzen, etxe partikular aundi batera eramaz ginduzten lotara.

Nik, ara joan aurretik, belarriko miña sentitzen nuenez, bi aspirina artu nituen. Baiña geiago eskatu baldin banitu, mesede ederra egingo zidaten. Dударик ez nuke jarriko ortan, eta esango det zergatik.

Aipatu dedan etxe ura utsik egon ziteken. Iñor bizi zan edo ez etzitzaiatz antzik ematen beintzat. Guri bi oeko gela erakutsi zigutenez, Lazkao-Txiki sartu zan batean eta ni bestean.

Denbora gutxirako, ordea. Erropak erantzi ta oera sartu orduko, miñak eman da an ziran kriskitiñak. Uste nuen belarriak eta burua bertan lertuko zitzaizkidala.

Oetik jeiki, erropak jantzi ta gelan paseatzen nenbillela, "Ikusi bear diat berotasunak onik egiten dion belarri negargarri oni" pentsatu nuen.

Bi kaja poxpoloz beteta neuzkan txaketaren patrikan, suertez edo aspirina batzuen partez. Auts-ontzi bat ere bazegoen oearan aldemeneko mesanotxe gainean ala bearrez; eta asi nintzan, ba, poxpoloak piztu ta belarriko zuloaren ondoan jartzan, beatz-muturrak ederki berotuaz.

Bi poxpolo-kajak ustuz ta erre arte segi artantxe; ta, alako batean, izugarriko otsa entzun nuen belarri barruan, eta miña gutxitzen ote zijozan iduritu.

Ta erropa ta guzti, jantzirik neuzkan bezelaxe, oe gainan etzan nintzan, da lo seko. Ura zan zoriona! Sekulan ez naiz aztu gau artaz.

Lazkao-Txiki deitu zidan:

— Lasarte, jeiki adi. Berandu dek!

Ori entzunik, *rau!* altxa nintzan, eta odola txur-
rrioan belarritik bera.

Lazkao-Txiki gizarajoa estutu zan zearo, ni ala
ikusirik. Onela zion:

— Zer gertatu zaik, Lasarte?

— Zer gertatu zaidan galdetzen al dek, Joxe
Migel? Ez dakik asko nolako trantzea pasa dedan,
belarriko miñez erotu bearrean. Emen ibili nauk
gelan paseatzen, zapatarik jantzi gabe, galtzerdi
utsean, i ez esnatzearren —erantzun nion.

Ta esan zidan:

— Baiña zergatik ez didak kasorik egin? Nik
lagunduko nian zerbait billatzen miña kentzeko,
gizona!

— Bai. Ik ala uste izan arren, ez uan lan erreza
artuko. Nun jo atea? Etxe ontan ez dek iñor biziko.
Ezta arratoirik ere, seguru asko. Ta goazen lenbai-
len emendik.

Arrate

GOIZEKO seiretan ziran kontu auek, eta berealaxe anak jaso genituen Amarako estazio-ra. Sei ta erdietan baizegoen trenan, Bilbaora zijoana; ta guk uraxe artu bear derrigor, Eibarko Arraten bertso-saioa gendukanez, ara joan al izateko.

Donostiko Amaran, estazio barruan bertan, bazan kantina bat, pastelak, bokadilloak, kafe ta orrelako gauzak ematen zituztena.

Gu garai onean iritxi giñan. Jendetza aundi samarra, kolan edo illadan jarrita, takilla noiz iri-ko zai zegoen, txartelak artzeko ordurako; ta Lazkao-Txikik artu zituen biontzako billeteak.

Nik, bitartean, kafesne beroa ta puru txiki bat sutu, gustora gaiñera, miñik ez neukanean. Sekulan izatekotan, orduantxe nituen mesedegarri.

Lazkao-Txikik billeteak nola eskuratu zituen konturatu nintzan, eta beste kafe bat eskatu nion arentzat kantineroari.

Mostradore ondora inguratu zanerako, an zeukan prestatua, ta ixtimatu zuen Joxe Migelek. Eztarrirako ta sabelerako ongi zetorkion kafe bero gozo ura.

Alaxe, kontua edo gastua ordaindu ta bereala trenera.

Negua izanik, eguraldi bustia etzan, baiña otza bai. Eibarren naikoa erasaten zuen; eta Arrate gaiñean, berriz, geiago, altura aundi samarra daukanez.

Kontuz ibilita obe. Bada ez bada ere, erropa eram, negu partean beintzat. Bestela, jazkeraz arin antzean dijoanari damutuko zaio sarritan.

Udaran da paraje zoragarria, aize sanoa ta garbia pil-pil dabillen garaian, Arrate, beste mendi alde askoren antzera.

Guk bertso-saio batzuk egin genituen an. Eibar, Elgoibar, Mendaro ta oietako jendeak bazuen oitura jaialdietara joateko, denbora pasa zeudenak batez ere. Paseatuaz, oiñez igo oi ziran Arratera, goizetik gaiñera geienetan. Lenengo, amaietako polita egin. Pesta-giroa aprobetxatu gero. Bazkaldu bertan lasai. Arratsaldeko ospakizunak ikusi ta illunabarean etxera.

Jan-edanerako ostatu onak baziran len Arraten, eta gaur ere egongo dira dudarik gabe. Ni aspalditxoan ez naiz izan. Baiña bixitatxo bat pozik egingo nukenean nago.

Oso gazterik ezagutu nuen Arrate, zorionez; eta geroztik gogoan daukat. Lazkao-Txikik ere asko maite zuela badakit. Gu biok bein da bitan baiño sarriagotan kantatuak baigera Arraten.

Donostitik joan giñan igande artan, nik ez neukan umore izugarririk. Baiña lagun atsegiña eramán nuen eta arek animatu ninduen, dexente gaiñera. Uste baiño obeki irten zitzaizkigun gauzak.

Iñoiz, ezer gutxi espero danean gertatzen da orrelako zerbait. Baiña gorputza tenple txarretik onera aldatzen kostatzen da ederki geienetan, beti ez bada ere.

Nik, Arrate utzi ta etxeratu orduko, auxe pentsatu nuen: "Gaurkoa ere pasa dek nola edo ala, eta biar ikusiko diat zer komeni dan".

Belarritik odola ixuri zitzaidalako, kezka ta bildurra, biak neuzkanez, biaramonean Donostira joan nintzan medikuarengana, ta eman nizkion gertaeraren berri guztiak garbiro.

Arek miatu ninduen ongi ta esan zidan:

— Gripe gogorra daukazu arrapatua, ta belarri barruan poltsa bat ikusten det. Baiña lertu ta ustua dago, odola bota zuelako. Onez aurrera ez dezu miñik izango ortik. Nik jartzen dizudan tratamantua zuzen erabili ta oean edo etxe barruan egon egun batzuetan epelean. Otzak egingo dizu kalterik aundiena, ta gorrieriak penatuko zaitu gaiñera illabete batean edo bian. Baiña ez bildurtu. Etorriko da bere onera.

Auetxek ziran medikuaren esplikazioak, eta asmatu zuen arek. Emandako botiken bidez sendatu nintzan.

Lazkao-Txikik bazekizkien nere ixtori pranko, ta esango lituzke, gaur bizirik balego, dotore asko.

Beraz, ontantxe utziko ditut Donostiko ta Eibar-ko Arraten pasatako pozak eta penak.

San Isidro egun batez

ORAIN bururatu zaidan gertaera au ere Lazkao-Txikirena danez, idaztera nijoa, mereziko duelakoan.

Gipuzkoan zala badakit. Baiña erriaren izenik etzait gogoratzen iñundik iñolaz ere, buruari buelta asko eman arren. Aspaldiko pasadizo zarrak diranez, denak ezin litezke gogoan eduki bear bezela. Ainbat zokotan ibilita gaudelako, arreta galduko genduela derizkiot.

Ortik aparte, berriz, ni ez naiz zenbait bezin umoretsua izan bein ere; eta, gauza garrantzi aundikoak ez badira, artutako toki berean utzi. Orixe da sarritan egin dedana.

Ala ta guztiz ere, Lazkao-Txikik ateraldi dotore ugari zituen, ordea, ta batzuk jaso nizkion.

Egun batez, bertsoara joanda:

— Naiko denbora bazeukagu ta gosalduegin bear diagu lenengo —esan genion alkarri.

Alaxe, sartu giñan ostatu ezagun batera, ta nagusia an ari zan bezpera gauean ustutako botillak kendu, beteak jarri ta orrelako lanetan. Emakumezko bi, berriz, garbiketari; eta etxeke andrea sukaldean bere martxan.

Gu nagusiarekin izketan asi giñanean, onek gal-
detu zigun:

— Zer nai dezute artu?

— Gosaltzeko asmoan etorri gera —erantzun
zion Lazkao-Txikik.

Bereala deitu zuen nagusiak sukaldera. Agertu
zan etxeko andrea. Alkarri ongi etorria egin genion,
eta neronek esan nion:

— Gosaltzeko garai ederra litzake oraintxe
guretzat. Bai al daukazu mokadu goxo samarrik,
etxeko andre?

— Bai, bai. Salda beroa prestatu det. Aragi ego-
sia badago. Baserritik ekarritako arraultza freskoak
badauzkagu. Urdaiazpiko ona ere bai; ta txorixoa,
berriz, kategorikoa. Orain zuek erabaki zer jarri
bear dedan.

Lazkao-Txikik laister pentsatu zuen.

— Lenengo salda ta gero arraultza pare bana
prejituak, txorixo famatu orrekin, jango al dizkiagu,
Lasarte? —galdetu zidan.

— Ez dituk txarrenak aukeratu, Joxe Migel.
Beraz, entzun dezu, etxekoandre, zer nai degun.
Baiña txorixoa probatzeko bakarrik ez dedilla izan,
jateko eskatu dizugu ta —esan nionean, aiek parre
algara gozoak irten zitzaizkion Lazkao-Txiki zanari,
ta bai etxekoandreari ere.

Alaxe, salda bikaiña eman zigun lenengo; ta, ura
artu orduko, arraultza pare ederra bi txorixo-pus-
keta aundirekin bakoitzari.

Kendu genituen goiz artako gosearen kezkek
dotore asko, ta bertsoak kantatzeko ere ez giñan gaiz-
ki jarri. Baraurik baiño obeki ta kontentuago noski.

Nik pentsatu nuen: “Gaur bazkaririk ez bada
ere, etzidak batere ajola. Errez pasako diat illuna-
barrera bitartekoa nere ontan.

Alaxe, gosaldu ta gustora geundela, joan zitzaigun bertsolarien kargua bere gain zeukan adiskide bat, eta onela zion:

— Ikusten det kontentu zaudetela, ongi gobernaturik eta lanerako amorruez beterik. Ni zuen billa nator. Oraintxe asi dira dantzari txikiak. Aiek pixka bat luzatuko dute ta presarik ez dago. Baiña inguratuko al gera plaza aldera, bada ez bada ere, poliki-poliki?

— Bai, bai. Guk emengo artzekoak kobratu ditugu; ta, zorrak ordainduta dauzkagunez, abiatu gindezke zuk nai dezunean —erantzun genion.

Berealaxe irten giñan ostatutik kanpora. Plaza bi pausora gendukan, oso urrean. Baiña Lazkao-Txikiri gazte jendea bildu zitzaion.

Nik ere banituen lagunak eta alkar galdu genduen une batez, konturatu gabe. Ta len ostatura gure billa joan zan adiskide arek esan zidan:

— Dantzariak beroien lanak bukaeran dituzte, ta zuen txanda badator segidan. Nun da Lazkao-Txiki?

— Oso urruti ez nolanai ere. Plazaraiño etorria da ta laister ikusiko degu. Atoz nerekin —erantzun nion.

Lenengo begiratuan antzeman genion nun egon ziteken. Plaza bazterrean gazte batzuek an zeukaten erdian artuta. Txisteak kontatzen ari zan, denak txalo jotzen ziotela. Nik urreratu orduko, deitu nion:

— Goazen, Joxe Migel, gure zai zeudek eta.

Orixe asko arentzat. Anakak astindu zituen. Olzaduraren gaiñean gai-jartzailleak agindutako lanak betetzen alegindu giñan, ustez beintzat.

Eguerdian saio bat ta arratsaldean bestea izentaturik zeudela bagenekigun erri artan. Baiña plazako bertsoak bakarrik etzuten asetzen entzule jendearen egarririk, eta bazkalondoan jardun bear izan gen-

duen kantari, ez gutxi gaiñera, almazena dexente ustu arte. Bazkari ona nolabait ere ordaindu nai ta segi antxe lanean.

Oso kontentu nabaitzen nuen Lazkao-Txiki, ta neroni ere iñoiz baiña alaiago arkitzen nintzan. Egia aitortzekotan, katurako pozak asko laguntzen du, ta lagunarteko gozotasunak ekartzen ditu une atsegiñak aldi berean.

Bazkalondo zoragarri ura, usoak egan bezela, azkar joan zitzaigun; eta arratsaldeko bertso saioa plazan egiteko ordua iritxi gaiñera, nun geunden igarri gabe esate baterako. Gustoko tokian errez pasatzen baida denbora.

Egun guztiak ez dira berdiñak pesta kontuan ere. Baiña diodan ura goizetik asi genduen ongi, ta artantxe bukatu.

Ori ez da beti gertatzen, ordea. Batzuetan asko kostatzen zaio, erririk erri dabillen gizonari, berea ematen, gorputzaldi txarra daukanean batez ere. Nundik jo ez dakiela gelditu ezkerero, jai dago.

Norberak jarri bear luke bero antzean lenengo, pestarako moduan alegia, tristurarik eta goibelta-sunik gabe, bestelako sentimentuak baztarrera utzirik.

Sasoiko gazte batentzat ez det uste lan zaila danik ori. Baiña zarrak burua bete kezka sarritan berekin dituenez, arekin ezin kontatu geiegi gauza alaiak entzun al izateko.

Lazkao-Txiki zan gai ortan artista. Arek beti bazuen txistea edo zelebrekeria lagunarterako, ta pertsona serio askoak parrez ederki gozatzen ikusita nago ainbat zokotan, goizean gosaltzeko garaian bezela, eguerdian bazkaltzerakoan.

Iñor ixil samar baldin bazegoen maian, laister emango zion martxa bere makinari, ta andik aurre-ra nork gelditu arazi?

Indartsu bezin dotore ta grazioso kontatzen zituen pasadizo aidosoak eta parre eragiteko moduko disparateak, batzuk lengo zar jendeari entzun da jasotakoak noski, baiña bere kasa moldatuak ere asko. Nola ez?

Apizio ikaragarria zuen ortarako Lazkao-Txikik, eta bi gauza batera egiteko almena zeukan gaiñera: batetik, inguruko jendea umore onez jantzi arazi; ta bestetik, berriz, bere burua animatu denbora berean. Pesta-giroan jarri, alegia, gero agintzen ziguten lan bakoitzari errezago erantzun genezaion, edo itxura obean beintzat.

Bertso umil antzekoak sarritan atsegingarri dirala badakigu. Baiña kantatzeko garaian bizitasun pixka batek ere ez du gaizki ematen. Piparra ta gatza, biak nastean sortu oi dan xaltxa klase ura askok ixtimatzen dute. Ez dakit zergatik, baiña ori orrela gertatzen da.

Atal onen asieran aipatzen det ez naizela gogoratzen erri txikiaren izenez, ainbeste pasa ditugu ta. Ez da batere arritzeko gauza aztuta edukitzea. Goierrri aldean ote zan daukat errezeloa. Baiña segurantz osorik gabe ezin nezake izentatu, naiz eta jakin iñork ez lukela gaizki artuko.

Goizeko gosari eder ura ta bazkalondoko lagunarte maitasuntsua gelditu zitzaizkidan buruan grabaturik, zinta batean bezelaxe.

Gaiñontzean, erri artan ongi portatu ziran gurekin. Lazkao-Txiki gustora etxeratu zan, eta ni ere bai, ta kito. Ortik aurrera ez dago zer esanik.

Tresna berria

GURE gazte garai pobre artan, iñork ere etzuen bertsoak jasotzeko ta gorde al izateko modurik eta aukera berezirik. Plazan kantatuak aizeak eramaten zituen bere egoetan.

Nora? Sekulan entzuterik etzegoen tokiraiño gutxienez ere, ta iñundik iñola arrastorik ezin atera. Moztasun nabarmena zala derizkiot orduko izakera.

Sagardotegietan eta ostatu zoko guztietan gauza bera gertatzen zitzaion erriko jende bertsozaleari. Bertsolariak asko kantatu arren, denak edo geientsuenak beintzat bertan alperrik galdu ta kito. Gerorako ezer jaso gabe gelditu. Penagarria ta utsaren urrengo martxa etorkizunerako noski.

Baiña alaxe oiturik geundenez, guretzat etzan batere arrigarri, ta segi aurrera artutako bidean.

1960-garren urtea izango zan —gutxi gora-bera diot au, agian oker egon nintekelako—, baiña garai modu artan asi ziran agertzen lenengo manetofonoak Euskal-Errian edo alde auetan beintzat.

Salgai zeudela otsa zabaldu zanean, bai omen zan norik errosia. Izugarrizko ixtimazioa noski tresna klase orrek baztar guztietan, eta galanki saldu gainera dendetan.

Guk ez genituen maite manetofonoak. Lotsa ta kezka, biak batera ematen dizkiote bertsolariari tresna berritsu oiek, eta kanturako lasaitasuna kendu. Ori okerrenea denetan.

Erri batean gertatu zitzaiguna idatziko det, konparazio gisara, irakurle zeran orrek jakin dezazun.

San Isidro egunez, nekazari edo baserritarren pesta zala-ta, joan giñan Lazkao-Txiki ta biok bertso-tara goizean garaiz, bertan gosaltzeko asmoz.

Plazan kotxea utzi orduko, inguratu zan guregana jaialdiaren zuzendaria, gizon atsegin askoa; ta, alkarri egun on opa ondoren, galdetu genion:

— Noizko daukazute izentatua bertso-saioa?

— Lenengo meza nagusia entzungo degu, beti bezela. Gero amaiketakoa izango da; ta, ura bukatzean, zuek asiko zerate kantari.

— Bueno, ori orrela baldin bada, gosetu samarturik gaude ta zerbait jatera goaz ostatu batera —esan nion nik.

Eta:

— Bai, bai. Naiko denbora badaukazute gosari galanta egiteko. Oraindik beste bi ordu pasako diragu prestatzerako, ta lasai ibili bitartean. Baiña amaiketakora konbidatuak zaudete. Meza bukatzen danerako inguratu zaitezte eliz atarira, ta andik aurrera pentsatuko degu zer egin.

Auetxek izan ziran jai-eratzaillearen itzak, gutxi gora-bera, nik ulertu nizkion modura beintzat; eta, len aipatu dedan bezela, ostatuan gosaldue genduen Lazkao-Txikik eta biok, gustora gaiñera, barruan edo sabelean utsunea gendukanez. Ongi etorri zitzaigun salda beroa batez ere, ta gero gerokoak.

Dana dala, meza nagusitik kanpora irten ziran baserritarrak. Gizonezkoak bakarrik ez; emakumezkoak ere bai, ta denok batera joan giñan erriko saloira.

An mai aundi batzuk jarrita zeuzkaten pintxo klase askorekin eta edari onez beterik, bakoitzak komeni zitzaiona artu zezan konfiantza osoan.

Guk, gosaldu berriak geundenez, ez gendukan jateko premirik, baiña puxka goxo aiek ikusita ezin utzi probatu gabe, ta tiraka jardun giñala gogorazten naiz oraindik.

Amaiketako ederra prestatu zuten nekazariak, beraien zaindari dan San Isidroren eguna ospatzeko; ta guk saloian bertan kantatu genituen dozen erdi bana bertso, jendearen eskariari erantzuteko.

Urteroko oitura zan diodan au erri artan. Lenengo, bertsoak barruan entzun nai izaten zituzten, eta geroxeago kanpokoak. Baiña gai librean, iñungo loturarik gabe; ta askatasun osoan itzegiteko eman oi ziguten baimena.

Alaxe, iritxi zitzaigun plazako saioaren ordua. Jendea zai zegoen. Bai bi gizon zelebre ere, bertsoak grabatzera joanik, an zeuden. Batek eskuetan zeukan magnetofonoa; eta besteak, berriz, disimulo geiagoz, bizkar gaiñean zerabilkien. Txaketa jantzi ta arekin estalirik, erregalo ederra zeraman azpian.

Ni, oltzadurara igo aurretik, konturatu nintzan bizkarrean nola zeukan pardela, ta esan nion Lazkao-Txiki zanari:

— I, Joxe Migel: guri bertsoak grabatzen dizkigun adiskide orrek xixtima berria atera dik.

— Bai? Zer da, ba?

— Pasa adi bere ingurutik, bizkar aldera begiratu akiok eta esango didak orduan.

Ori entzun zuenean, joan zan Lazkao-Txiki bera-gana, biak alkarrri zerbait itzegingo zioten, eta onela zion Joxe Migelek:

— Arrazoi dekela uste diat, Lasarte. Gai bat geiago badiagu orain bertsoatarako.

Alaxe, agindu ziguten garaian, asi giñan kantari nekazaritza aipatuaz, egunari zegokion modura. Baserritarreri bertso-mordoska kantatu lenengo.

Ta gero ekin genion gizon zelebrenari galdezka, ea bizkar gaiñeko kozkor artan bateriren bat al zeukan edo korkoso biurtu ote zan jakin nai genduela, ta mesedez txaketa kendu ta erakusteko guri.

Ortik asiera emanda, ongi ezagutzen genduenez, puntu asko ukitu genizkion; baiña kaltegarrik bat ere ez. Bromako kontuak ziran denak.

Entzule jendeari grazitan erori zitzaizkion bertso aiek. Parre algara gozorik eta txalo berorik etzan falta une batez plaza artan.

Bizkar gaiñean ezkutuan edo nabarmenegi zer-baitengatik jarriko zuela derizkiot bertsoak grabatzeko tresna ura.

Gure adiskide arek sarritan asmatu oi zituen gauza zelebren izugarriak, eta ordukoak etzuen iñor arritu araziko noski, pesta giroa bizitu baizik. Ortarako griña ere norbaitek bear du derrigor, umorerik piztuko baldin bada erri batean.

Eguerdiko jaialdia polita iduritu zitzaioten an bildu ziran geientsueneri.

Ondoren bazkaltzera joan giñan jatetxe on batera. Baserritarren ilusiorik aundiena orixe zala badakigu urte aietan. San Isidro zaindariaren eguna goizetik asi ta illunabarrera bitartean ongi ospatzea alegia.

Arrazoi osoa zeukatela ez dago ukatzerik iñolako moduz. Lanean izerdiz bustirik ogia irabazten duenak merezi ditu noizean beingo alaitasunak, nekearen miñak aztutzeko ere.

Ortik aparte, berriz, alkarren arteko artu-emanak ugaritzea gauza egokia billatzen det nik, batere dudarik gabe. Batek ez dakiena besteak jakin lezake, ta konfiantza osoa bear du bakoitzak sentitzen duena garbiro esan al izateko noski.

Baserriko bizimoduari begiratzen badiogu, lotura aundi samarrekoa ta arantzaduna ikusiko degu sarritan, sasi tarteko elorria bezela.

Atal onen bidez aipatzen dedan San Isidro eguneko bazkari sonatu artan, zenbat kontu zar erabili ote zituzten aotan? Gogoan artzeko geiegi, ta aztutzeko modukorik gutxi. Euskeraren ugaritasuna ere nabarmen utsa, ta aberatsa gaiñera benetan.

Guri, bazkaldu ta kafeak artu bitartean, etzigiten ezertarako txandarik eman. Andik aurrera, ordea, denak batera asi zitzaizkigun bertso eske, umorez jantzi samartu ziran garaian.

Lagunarte atsegiñak poz ematen dio bertsolaria-ri, ta guk ez gendukan lanerako perezik. Gustora jardun giñan kantari Lazkao-Txiki ta biok bi edo iru saiotan. Barruan zeuden bertsorik onentxoek kanpora atera genituen, eta segituan plaza aldera joateko ordua iritxi zitzaigun.

An baziran aizkolariak, sokatira, pelota partidua ta agian gauza geiago ere bai, une ontan nik gogoan ez dauzkadanak.

Lenengo, guk asiera eman genion arratsaldeko jaialdiari bertsoz. Alaxe agindu baizuten bertako arduradunak.

Erriko plaza jendez leporaiño beterik zegoen, gu inguratu giñanerako, pesta noiz asiko zai.

Kirol-kontu ori indar ikaragarrian nabaitzen degu, alde guztietan gaiñera. Baiña len ere etzan leize-zuloan gordeta egoten. Erakusten zituen kirolari bakoitzak bere almenak.

Dana dala, guk baserritarren kontura egun ederra pasa ta poza gaiñezka sentitzea ez det uste arritzekoa ez danik.

Ataun

ATAUNGO albiste ugariz osatu nai nuke atal bat, gerorako gogoangarri gelditu dedin eta gure garaiko bertsolaritzaren berri garbiro emanez, oso erreza ez bada ere.

Ainbeste tokitan ibilita nagoenez, zaila da neretzat len pasatako gora-bera guztiak gogoan edukitzea.

Pertsonari, zartzen dijoan neurrian, burua arintzen joaten zaiola sarritan entzun izan degu; ta ez da gezurra, egi mardula baizik. Inork bueltarik eman ezin lezaioken arrazoi borobilla da ori, nik pentsatzen dedan modura beintzat. Baiña aleginduko naiz gertaera batzuk idazten.

Gu Ataun aldean bertso asko kantatuak gerala dakitenak badira, lengo gizon eta emakumezko zarretan batez ere. Gaur amar edo amabost urte dauzkaten neska ta mutil gazteak gutxiago ezagutuko gaituztela ere aitortu bearra daukagu. Nai ta nai ezko gauza iduritzen zait ori.

Dana dala, Ataun oso erri zabala ta luzea izanik, bizi-lagun gutxi omen ditu. Iru baillaratan antolatzen dituzte pestak: San Martiñen, San Gregorion eta Aian.

Ataungo Aia deitzen diogun ura goi samarrean dago, baso bikaiñez eta mendiz ongi orniturik gairera, nere iritziz. Agian oker itzegin nezake; baiña ez det uste deskuido aundirik daukadanik diodan ontan.

Beko kamiotik gora igoera gogor samarra du Aiara bitarteko bideak. Autoak errez ibiliko dira noski. Baiña bizikletan dabiltzanak zanko ta belau-nak nekatuko dituztelakoan nago.

Santa Isabeletan ospatzen dira bertako pestak, eta gu sarritan jardunak gera kantari baillara polit artan, ez urteko jai nagusietan bakarrik ordea.

Gaspe jendeak antolatzen zituen tarteka afariren batzuk ere; ta, bertsolarien bearrean ziranetan, abixatzen ziguten aurrez, eta oso pozik joaten giñan Ataungo Aiara, gaspe jator aiek serbitzera. Nola ez?

Egun batez gogoratzen naiz. Eguerdiko bertso saioa egin genduen Lazkao-Txikik eta biok meza nagusia bukatu ondoren, beti bezela; ta gero mendi-baserri batera eraman ginduzten bazkaltzera.

Ordurako *lanroberrak* izeneko furgoneta edo autoak ugaritzen asita zeudenez, Ataungo Aian ere bazituzten. Ez dakit zenbatek eduki zezazken. Baiña gu alako batean sartu ta igo giñan mendi-baserri aldapatsura, baso tarteko bide estuetan gora.

Batzuetan, auntsak bezela saltoka zebillela zirudien *lanroberrak*, koska eta zulo-uneak arrapatzen zituen bakoitzean. Baiña, ala ta guztiz ere, segi aurrera, auto oiek almen izugarria dute bide txarretan ibiltzeko ta.

Nik ez daukat gogoan aipatu detan baserri aren izenik. Bestela, pozik idatziko nuke.

Kontuak kontu, guri bazkari ederra eman ziguten; eta, ura ordainduko bazan, bertso batzuk kantatzea komeni. Bi edo iru saioskada egin genizkioten nere lagun Lazkao-Txikik eta biok. Ainbeste ta geiago ere merezi baizuen famili borondatetsu arek.

Gozatu ote ziran iduritzen zait bertsoak entzuten bazkalondo artan, etxeko guraso zarrak batez ere. Gustora antzean sentitzen nituen beintzat.

Ondoren, gu Aiara jetxi giñan arratsaldeko egin-kizuna betetzera, bearrezkoa zan bezela.

Eguna ta gaua bertan pasa oi genituen sarritan, autorik erabiltzen ez genduelako batetik; eta, beste aldera begiratu ezkerro, berriz, jende bertsozalearen ilusio bakarra orixe zala uste det: gu an gelditu arazi ta gauerako ostatuan soiñuz eta bertsoz pesta osatzea alegia, beraien gozamenerako. Ortan argi apartak ziran.

Baita leialak ere, itz gutxitan esateko. Gu beintzat beti ongi tratatu ginduzten. Nik ez daukat kejatzeke motiborik eta iñolako arrazoi berezirik.

Baillara txikietan pestak antolatzen diranetan, gau-txori guztiak kantatzen dutela badakigu. Baiña ez gera berealakoan konturatu zenbat lo eder alpe-rrik galdu arazi digun martxa klase zelebren orrek.

Gorputza zigortzeko zer ote da obeagorik, neurritz kanpoko parranda baiña, gaitz txarren bat izan ezean?

Lazkao-Txikik eta biok kantatu genduen pran-kotan aipatzen dedan baillara ezagun polit artan.

Baiña mendi-baserrian bazkaldu ta gero, plazako bertso-saioa osatu ondoren, ez naiz gogoratzen gauerako bertan gelditu edo illunabarrean etxera etorri giñan.

Dana dala, berdintsu izango da noski, ta onenbestean bukatu nai nuke Aiako istoria. Baiña ez det Ataundik iñora aldegeteko asmorik, oraingo beintzat.

San Gregorioraiña aldatu ezkerro, bada zer esan garrantzitsurik; eta zuri, irakurle zeran orri, albiste bat emango dizut bein da berriro: nik idazten ditudan idazlantxo auek Lazkao-Txikirekin zer ikusia izango dutela alegia.

Alkarrekin pasa genituen egun eta gau guztieta-ko kontuak gogoan baleude, beteko litzake liburu galanta. Baiña, ori eziñezkoa danez, bururatzen diran banaka batzuk idatzi ta konformatu bearako.

Ez dago beste jokabiderik emen, nik ikusten dedanik beintzat, onela bat-batean esplikatu al izateko, nola erri aundietan, ala txikietan, denetan asko ibilita gaudenez.

Arreta eta umorea galdu ditugunean ezertarako animorik gabe gelditu bearra ez al da gauza tristea? Nik neronek baietz uste det. Baiña oraindik zentzunik lanerako laguntza ematen du ta goazen aurrera.

San Gregorion, urteko jai nagusietan, zenbat aldiz kantatu genduen Lazkao-Txiki zanak eta biok? Ez daukat seguru esaterik; baiña sarritan jardunak gerala ere ezin nezake ukatu.

Pesta dotore askoak antolatzen bazekiten San Gregoriotarrak len. Azkeneko urte auetan ez dakit nola dabilzan.

Ni aspalditxoan, iñora irten gabe, bertsolaritzari utzirik bainago; eta etxean egonda ez da kanpoan zer gertatzen dan jakiten.

Guk adiskide onak bagenituen Ataungo San Gregorion, beste nun-nai bezelaxe; ta aien oroipenak etzaizkit errez aztuko, bizirik irauten dedan bitartean.

Bertsolari baten azkeneko poza orixe da: edozein erritan lagun atsegiñak edukitzea. Noiz edo noiz alkar ikustea egokitzen baldin bada, laister antzematen zaio nundik datorren benetako konfiantza.

Lazkao-Txiki, bertsolari bikaiña ta auzotarra izanik, asko maite zuten Ataunen. Izan ere, Lazkao-menditik bi pausotara bezelatsu dagoela esan liteke diodan erri polit euskaldun au: Ataun alegia; ta gure lagun Joxe Migel Iztueta oso ezaguna zuten baserritarrak eta kalean bizi ziran guztiak.

Etxeko senide baten antzera tratatzen ikusten nituen denak, edo geientsuenak beintzat; eta ori onginaiaaren seiñaletzat juzkatzen det nik, batere dudarik gabe.

Lazkao-Txikik berak ere asko famatzen zuen Ataungo jendea. Jakiña dago zergatik: ezagutzeko motibo osoa zeukalako.

Egun batez gogoratzen naiz San Gregoriotik nola abixatu ziguten bertsoarako. Soziedade edo bazkuean lagunarteko afaria zeukaten izentaturik ain zuzen ere, ta bertsolariak derrigor bear afalondoan pesta jartzekotan.

Alaxe, agindu ziguten garaian asi giñan kantari, gai-jartzailerik gabe, nai zana esan libre. Soziedade artan askotan izanda geundenez, bagenekigun bertako jendearen berri gutxi gora-bera, ta lasai bertotan jarduteko moduan geunden, zertsu gustatzen zitzaioten jakiñik.

Orrek izketarako bideak irikitzen dizkio bertsolariari, ta denbora berean erreztasuna ugaldtu ta aoko zulora eman.

Bertso kontuan sarritan gertatzen dan bezela, batzuk arin antzekoak eta besteak astunagoak edo balore geiagokoak irtengo zitzaizkigun an ere, seguru asko. Baiña entzuleak gustora zeudela iduritzen zitzaigun, eta gu ere alaxe sentitzen giñan.

Alako batean, ordea, gai serio samarrean sartu zan Lazkao-Txiki, ez dakit zerk eraginda. Agian bateonbateg baliteke eskatzea. Baita berari bururatzera ere.

Nik ez nion ezer galdetu, baiña Joxe Migel Barandiaran ataundar apaiza artu zuen gai bezela Lazkao-Txikik, eta saio luzea egin izango genduen bere goralmenak agertuz, bertsoan noski. Ta ori bakarrik ez: uste baiño obeki moldatu gaiñera, on Joxe Migel apaiz ospetsuaren pasadizo ugariak esplikatzen.

Nik neronek ez nuen arreta aundirik eduki; baiña Lazkao-Txikik pena izugarria zuela badakit, bertso aiek grabatu faltan alperrik galdu ziralako.

Onela zion berak:

— Batere balio ez duten bertsoak artzen jarduten dek jendea sarritan nun-nai; ta gaur emen iñork ez omen dik magnetofonorik ortarako. Guk oso gutxitan egingo dizkiagu ori bezelako bertso saioak. Merezi zian jasotzea; baiña orain berandu dala bazekiat, Lasarte, ta ixilik egon da obe!

San Gregorioko bazkune politean, bein baiño geiagotan bazkaldu zuen Joxe Migel Barandiaranek gurekin batera. Baiña egun artan, afaria zalako, etzan joango agian, edo bestelako eginkizunen bat izan zezaken. Nik ez dakit ezer eta ez nuke aurreragi sartu nai gai ortan, bada ez bada ere.

Baiña Barandiaran bertsozale purrukatua ote zan iduripena daukadala esaten ezin niteke aspertu iñolako moduz. Arreta izugarria jartzen baizion bertsoari, nere bistan egon zanetan beintzat.

Lazkao-Txikik ongi ezagutuko zuela derizkiot Joxe Migel Barandiaran.

Dana dala, Ataungo San Gregorion pasatako egun eder aiek ez dauzkat aztuta. Giro gozoko lagunartean denbora errez joaten zaio pertsonari; ta, era berean, len ez dakien zerbait ikasi lezake burua fresko daukanak.

Guk geienetan asko nekatu arazi degu burua. Osasunaren eskasiak ekarri dizkigu orrelako akatsak sarritan.

Nik nere izakera, garbiro aitortzekotan, nolabaitekoa dala esan bearko nuke. Gaixo aldiren bat sortzen zaidan bakoitzean, sokari geiegi tiratzen diot, eta estuasun latzak pasa gaiñera.

Baiña ez naiz modu ortan nabillen bakarra. Asko ikusi ditut gaitz-klase orren jabe diranak.

Lazkao-Txiki gizon gordiña zan bere izatez. Sagarra bezin sana. Baiña ebakuntza egiteko bezperan klinikan oso urduri nabaitu nuen. Aren begiak alde askotara begiratzen zuten. Ezagun zuen pentsamentu txarrez beterik zegoela.

Ataunen bertsotan jarduten giñan garaietan bai umore ona gaiñezka. Gero, ixildu ta kito.

San Gregorioko pestetan prankotan kantatu bear izan genduen plazan. Bi saio jartzen zizkiguten: eguerdian bat eta arratsaldean bestea. Bazkaria, berriz, erriko agintariekin batera. Urte-mordoskan alaxe ibiliak gera.

Lazkao-Txiki ta biok beti joan giñanik ez det esango. Baiña sarritan bai.

Ataungo San Gregoriotarrak gurekin ongi portatuak dira, ta onenbestean bukatzera nijoa atal au.

San Martingo albiste batzuk eman ditzadan. Den-denak zuzen eta osotasunean idaztea zailla dan arren, aleginduko naiz gogoratzen zaizkidanak agertzen.

Ataungo San Martiñen ere ez gera kantatu gabeak. Zenbat bider jardun ote giñan elizaren aldemeneko estalpe illun antzeko artan, kanpoan euri ari zuenetan batez ere?

Bestetan legorpe aukerakorik etzeukatelako jartzen omen zituzten an jaialdiak. Negurako leku otza zan; baiña saiets aldetik toldoak jarri ta asko babesten zuten zoko ura. Ta entzuleak aulkietan exeri ta lasai egoten ziran.

Gauetzko pestak dira esaten ari naizen auek, geientsuenak beintzat. Ez, ordea, denak. Egunez ere bazekiten gisa berekoak antolatzen. San Martindarrak ortan gogotsu saiatzen dirala ez legoke nik esan bearrik batere.

Baiña erriari adieraztea ez dago gaizki, ezertan utsegin ezean. Lengo gora-bera zarrak aipatzen ditut, gaurko berririk ez dakidalako.

Azkeneko zortzi urte Oriotik inora irten gabe bezelatsu daramazkit, bertsolaritza zearo utzirik. Baiña sekulan ezin aztu, ordea, egin genituen ibilleraz.

Ataungo San Martiñen Lazkao-Txikirekin sarritan kantatua naiz, beste erri ta baillara askotan bezelaxe, zorionez.

Egun batez gogoan det bertako jubilatuen pesta zala, ta nola kotxezale bat etorri zitzaidan Ataundik Orioraiño, ta berak eraman ninduen.

Ni aurrez abixua artua nintzan eta zai nengoen. Baiña txoferra berandutxo esnatu nunbait goizean, da gero kontuak. Agindutako garairako ezin iritxi San Martingo lagunartera.

Baiña gure atzerapena ulertu zuten noski. Lazkao-Txiki an zegoen zai; ta, ni agertu nintzanean, bereala asi giñan kantari.

Bertsoz aparte, ikuskizun geiago ere bazeuden, eta jendea gozatu arazi zutelakoan nago, bazkaltzera joan bitartean.

Mai aundi batzuetan bildurik, oso kontentu sentitzen ziran erriko zar guztiak. Jan-edanetik aukera ezin ohea, ta berriketarako gogoa ere bai ugari antzean, bazkari onaren truke.

Kafeak artu orduko, guri bertso eske asi zitzaizkigun. Mordoska bat kantatu genizkioten, eta orduantxe dena osatu zala zirudien.

Pertsona edadetuari komeniko zaizkio noizean beingo irtenaldi oiek, pixka bat arnasberritzeko ere.

Ortan, gure aurreko gurasoak ez bezelako suertea daukate gaurko zarrak. Urtean batean edo bitan, ez dakit seguru esateko, baiña or dabilta autobusetan sartu ta paseatzen erririk erri.

Len etzan orrela inor ibiltzen. Beraz, gustora egon litezke, osasunak laguntzen dioten bitartean. Bakoitzari eziña bere kasa etorriko zaio. Ez dago eskatu bearrik.

Ataungo San Martingo egun ura zoragarri utsa izan zan guretzat ere. Eguraldi ederra, lagunarte atsegiña, umore paketsua, zer eskatu genezake geiago, pestari probetxu itxurazkoa atera al izateko?

Arratsalde bikaiña bezin gozoa pasa ta illunabarean, agindu ziguten garaian, plazako bertso saioa egin ondoren, nik etxe alderako martxa artu nuen, denborarik alperrik galdu gabe. Ta, kotxean ekarri nindutenez, berealaxe Orion nintzan.

Lazkao-Txiki, berriz, bertan gelditu zan. Artean presarik ez omen zeukan iñorako, ta bere lagunekin batera antxe ibili naiko zuen, aspertu edo pixka bat nekatu arte.

San Martin inguruan ezagun asko ta tratu ugarriak zituela badakigu Lazkao-Txiki zanak; ar-eman estuak alegia.

Lazkaomenditar txori polit onek ez du geiago kantatuko, ez San Martiñen eta ez beste iñun, lastimagarria bada ere. Baiña len eman zituen bertso dotoreak ortxe daude irratiz entzuteko moduan jasorik, sail batzuk beintzat, naiz eta alperrik galduak asko izango diran arren.

Bertsoak grabatzen erriz erri ibili oi ziran pertsonak ezagutu genituen. Baiña etzuten beti jakiten gu nundik nora genbiltzan. Ez baigenioten esaten. Eta aiek bistan ez egotea guretzat mesede.

Orduantxe entzungo zituen jendeak bertsorik onentxoena jeneralean. Izketarako lasaitasuna ta konfiantza bear lirake, ta zinta berritsuren bat ondoan bueltaka ikustea aski da biak galtzeko.

Dana dala, lengo kontuak pasata daudenez, ontan bukatzen ditut Ataungo pasadizoak.

Kantatzen gendun San Gregorion,
San Martiñen eta Aian,
plazan bezela bazkari eta
afalondoetan maian.
Saiatzen giñan bertsozaleak
pozez atsegindu naian,
ta ori ere lortzen genduen
sasoi gendukan garaian.

Joxe Migelek kantatzen zuen
goxo, bizi ta egoki,
bere doairik aberatsenak
oiek ziran bereziki.
Nere gustoko bertsolaria
izan zan Lazkao-Txiki,
guk alkar zenbat maite genduen
geronek bestek ez daki.

Olaberri

OLABERRI aldera inguratu naiean nenbillen aspalditxoan, eta oraintxe det aukera polita esku artean ortarako.

Lora-illean bete-betea sarturik gaudenez, udaberriko edertasunak ainbat gauza gogoratu arazten dizkigu, izan ere; ta aztuta baztarrean ezin litezke utzi, den-denak beintzat.

Ori dala-ta, lengo pasadizo zar batzuk idaztea pentsatu det, denbora pasa nagoen ezkeror.

Nik ez dakit Olaberrik zenbat bizilagun dituen, sekulan iñori ez diot galdetu ere ta. Baiña baserriz ongi ornitua baliteke izatea. Soro ta belardi zoragarri asko ikusten zan inguru aietan len.

Beko *Castillo* izeneko jatetxe sonatuaren alde-menean badago gasolinera bat, kamio edo autobide jeneralaren ertzean. Andik gora abiatuta, Olaberrira iritxi bitartean, badaude terreno sail eder apartak, baserria maite duenarentzat gustora begiratzeko modukoak, batere dudarik gabe.

Nik neronek, bide artan pasatzerakoan, begiak gozatzen nituen bapo. Zergatik ordea norbaitek galdetuko balit, auxe erantzungo nioke: umetatik nekazaritza ezagutzen dedalako.

Laboregintzan soro aldapatsuetan asko nekatzen da, sarritan ezer gutxi egiteko. Baita gisa bereko belardietan ere. Belar ezea edo eguzkitan zimeldua berdin dio kasorako.

Etxera eraman bear diranean, edozein malkarretan ezin liteke gurdirik edo tratorerik sartu, irauli ta amiltzeko arrixkua duela jakiñik. Eta orduan zer gertatzen da? Belarra bildu ta norberak aldatu bear derrigor, al duen bezela, gurdia kargatzeko moduko lekuraiño; ta denbora galanki pasa, bitarte artan. Orixe da beso-lana ugaritu araztea gizonari.

Olaberrik ere terreno guztiak ez ditu ordekak edo lauak izango noski. Baiña nik aipatzen ditudan aiek oso ontzat juzkatzen ditut. Urruti antzetik ikusita diot au. Bertan bizi diranak obeki jakingo dute lurra zer kalidadetakoa dan.

Lazkao-Txikiri, il ondoren, mezak atera zizkioten Lazkaomendiko ermitan; eta ni ere izan nintzan igande batez aren izeneko meza entzuten. Elizan atze samarrean nengoen, baiña apaizak ikusi nin-duen eta, bertso bat eskatu zidanez, pozik kantatu nuen, Jaunari eskerrak ematerakoan, mezaren azken zatian alegia. Ta gero, Olaberrietik pasa giñanez, nere lagun txoferrari esan nion:

— Oraintxe ere belar ederrak bazeudek alde auetan.

— Bai. Ta zertarako? Alperrik galtzeko, asko beintzat —erantzun zidan.

Garai batean aprobetxatzen zituen jendeak belarrak. Ez det uste sobratu ta kanpoan ustelduko ziranik. Emen gauzak aldatzen dijoazte, ta gure kalterako agian, geientsuenak beintzat.

Beko *Castillo* otela edo jatetxe dotore ura Olaberriko terrenoan egiña omen dago. Baita Aristrain deitzen dioten faubrika aundi sonatua ere noski.

Nik uste nuen Beasaingo partean zeudela, ta oker nengoen gai ortan.

Beste aldean, berriz, Iurre izeneko baillara polita antxe ikusten da, dendaz ongi orniturik. nik entzun dedanez; eta ostatuak ere edukiko dituelakoan nago.

Ez dakit zenbat famili bizi diran Iurren bertan. Baiña etxe-mordoska ageri da urruti samarretik begiraturik, eta len autobusak serbizio ugaria erabili oi zuten goizetik gauera. Jendez ederki beteta ikusi nituen iñoiz. Beasain ta Ordizi, bi erri oietara ibiltzen omen ziran autobusak eten gabe, Iurren irtenda, ni oso oker ez banago beintzat.

Aspalditxoan ez naiz izan alde aietan; baiña gaur oraindik jarraituko diotela pentsatzen det lengo martxari.

Diodan Iurre izenez ezagutzen degun baillara dotore au ere Olaberriri dagokion terrenoan dagoe-la esan dit norbaitek. Ez luke gezurra izan bearko noski; baiña, deskuidorik balego, barkatu dezaidatela mesedez ango bizilagun guztiak, orixe nai nuke eta.

Beko goraberak onenbestez utzi ta goiko gaillurrera igoko naiz zuzenean.

Olaberrin San Joanetan ospatzen dituzte pesta nagusiak, aundikiro gaiñera.

Gu, Lazkao-Txiki zana ta biok bertso asko kantatuak gera erri artan urte mordoan, San Joan egunez geienetan.

Goizetik, lenengo, meza nagusia entzuteko oitura zuten, auskalo noiztik zetorrena. Ori ez dakigu, baiña berdin da. Diodan bezela, mezetara jendetza izugarria bildu oi zan. Bertako agintariak aurretik zituztela sartzen elizan.

Gero, meza bukatzean, udaletxean amaiketakoa jartzen zutenez, guri ara joateko deitzen ziguten

bertso batzuk kantatzera. Ori urteroko jokabide jakiña izanik, iñork agindu bearrik ez genduen kantu lanari eltzeko ta entzule askoren egarria asetzeko. Bakoitzak zortzi edo amar bertso osatzen bagenituen, ango eginkizuna betea zegoen, eta denak kontentu.

Ondoren, plazako pestari ematen zitzaion asiera, dantzari txiki, txistulari, soiñu-jole edo musikero ta abarrez.

Plazan jende dena kabitu ezin sarritan, eta eliz atariko ar-maillak zearo beterik ikusi nituen bein da bi aldiz baiño geiagotan, eguraldi ona zegoen-tan batez ere.

Bertakoz aparte, kanpotarrak asko joango zirala derizkiot, paseatuz, Olaberriko gaintxo politera, denbora pasa.

Udaletxearen aldemenean txabola bat zan len. Bere gaiñean porlanezko terraza zuen, eta gu andik jarduten giñan bertsotan.

Batzuetan, soiñu-joleak beraien altabozak jartzen zizkiguten, errezago kantatu genezan, eta jendeak bertsoak obeki entzun zitzan une berean.

Eguerdian entzule asko bildu oi ziran; eta arratsaldez, berriz, geiegi.

Soiñujolez eta bertsolariz aparte, ikuskizun bikaiñak antolatzen bazekiten olaberriarrak: aizkolari, arri-jasotzaille ta beste ainbat gauza, nik aztu samarturik dauzkadanak. Aspaldiko kontuak diranez, zailla da den-denak gogoan edukitzen.

Tiro al plato edo uso iltzea ere modan zebillen garai aietan. Olaberrin ere ikusi genduen iñoiz. Baiña, oiñez joateko urruti samar zegoenez, ez genion arreta aundirik artu. Goiko mendian jartzen baizuten; eta pauso asko emateko animo gutxi izaten du ostatuko lagunartean gustora dagoenak, sarritan.

Ortik aparte, berriz, guk bestek esandakoa egin bearra gendukala jakiñean geunden.

Azkeneko aldiz Olaberrin kantatu genduela, bederatzi edo amar urte badirala esango nuke iritzi batera, segurantzi osorik ez dedan arren.

Ordurako frontoi berria egiñik zeukaten, pelotaleku eder askoa, udaletxearen ondoan. Nik ez nekien ezer eta arritu nintzan, ikusi nuenean. Beraz, erriari jantzi egokia emango zion estalpe bikain arek, ongi merezi zuena.

Onez aurrera, San Joan pestak eta bestelako jaialdiak badakite nun antolatu olaberritarrak. Gazte jendeari, dantzan ibiltzeko bezela, beste edozertarako dotore etorriko zaio pelotaleku polit ura.

Eguraldi eguzkitsuan, kanpoan bero dagoenerako, antxe daukate itzal gozoa; ta euri-erauntsizko giro txarretarako babes atsegiña ere bai, diodan frontoi berri artan.

Azkeneko urte auetan kiroldegi asko zutitu dira erri txikietan, oso bearrezko ziranak gaiñera, nere ustez. Beste gauza batzuetan agian ezer gutxi aurreratu izango degu. Baiña ortan izugarri saiatu da jendea, al duen neurrian.

Gaur ez dago lengo modura bizitzerik. Gaztetxori derrigorrez jarri bear zaizkiote jolasteko leku egoki antzekoak. Bestela, erritik aldegingo digute.

Ortik aparte ere, badaude arazoak. Kanpo libreko plazetan alegia, giroak laguntzen ez badu, akabo pesta.

Guri iñoiz gertatu zaizkigu orrelako kasoak, ez neguan bakarrik, baita udaran ere. Olaberrin, San Joanetan, erropaz arin samar joanda, otzari erantzun eziñik ibilita nago ni. Aizeak ederki korritzen du an tarteka, altura dexentean dagoenez.

Dana dala, goazen istori zarrak pixka bat berri-tzera, irakurtzeko gosez dagoenari zer jana eman dezaiozun.

Olaberrin gaur ez dakit zenbat ostatu dauden. Baiña len bi bakarrik ezagutu genituen.

Bat, udaletxean bertan, beko sarreran, serbitzu onekoa gaiñera. Lan asko egiten zuten ostatu artan, nola mostradorean, ala sukaldaritzan, erriko pestak ziranetan batez ere. Jendea araxe biltzen, ikuskizuna zegoen tokira, legezkoa dan bezela; ta jangelak leporaiño bete.

Asteko egun soilletan iñor gutxi ibiliko zan seguru asko. Baiña San Joanetako zalaparta pasa bitartean, estu bezin larri ostalariak, beraien egin-kizunak bete nai ta eziñean.

Lanaren eskasia txarra dala badakigu. Baiña geiegizko borroka ere aspergarria gertatzen da. Pertsonak bearrezkoa du kezkarik gabeko atsedena, gauerako beintzat; eta ori oso zailla daukatela ikusten degu garbiro gaurko ostalari geientsuenak.

Olaberrira igotzerakoan, Lazkao alderako bide gurutzean bertan, badago otela edo jatetxe zoragari bat. Ura ezagutzen ez duenik ez dakit nor izan liteken, Goierri aldekorik batez ere.

Zenbat bazkari ta afari eder egiñak ote gera gu etxe sonatu artan ezkonberrien ospakizunetan? Noiznai lagunarteko billeretan ere bai.

Ta San Joan egunez sarritan antxe ematen ziguten bazkari gozo askoa, erriko agintariak esanda edo ez dakit nola, baiña dotore ta leial portatzen zitzaizkigun.

Ez da atzo goizeko kontua idaztera ni joan au ere; ta, gogoratu zaidanez, esplikatatu egingo det, iñork gaizki artuko duen usterik gabe noski, San Joan egun batez ikusi nuena.

Bazkaltzeko garai egokia zala-ta, inguratu giñan jangelara. Maiak alkarren segidan luze jarrita presaturik zeuzkaten ordurako.

Aurrez jakingo zuten zenbat bazkaldar bilduko ziran gutxi gora-bera; ta guri, Lazkao-Txiki ta biori, maiaren erdi parean exeritzeko agindu ziguten errespeto aundiz. Jende umilla baizegoen koadrilla artan; eta bakoitza bere tokian jarritz, dena bete zan maia.

Alaxe, jatekoz bezela edariz aukera ona gendukanez, sabelak berotu genituen bapo, ta kontentu.

Baiña kafearen aurretik bertso batzuk nai. Gu, berriz, aien serbitzurako geundenez, noiz eta nork aginduko zai kantari asteko, ta berealaxe iritxi zitzaigun txanda.

Lenengo saioan, lagunarteko pakearen gozotasuna erabili genduen aotan; eta gero, kafeak artu ondoren, sortu zan uste gabeko gaia.

Mutil gazte jator bati bazkariak gaitz egin zionez, geiegi jan da edan zuelako, gorputzaldi txarra egokitu zitzaion nunbait. Eta, jarlekutik altxa ta komonera zijoala, gure parean pasatzerakoan, larritasunari eutsi ezin da iru tokitan bota zituen barruan zeuzkanak gizarajo arek.

Lasaitu aldi ederra artuko zuela dudarik ez dago. Baiña pena galanta ere bai. Komonetik irten zanean, onela zion:

— Bertsoak entzuteko moduan jarri naiz eta bota nai dezutena.

— Ori benetan badiozu, kantatuko ditugu pozik —esan nion.

Alaxe, neroni asi nintzan. Pesta-egunetan txalak jaiotzen ikusi nituela iñoiz esanez moldatu nuen bertsoa. Ta, osorik egiteko txal aundia zalako, iru

pusketan egin zuela erantzun zidan Lazkao-Txikik.
Andik aurrera baziran txalo beroak.

Olaberri aldean
bertsoak entzunez
gozatzen zan jendea,
ongi dakigunez.
Gu tratatzen ginduzten
ain biotz bigunez,
baiña jarriko ziran
kopeta illunez,
noizbait egin bagendu
agindu ta jun ez.

Lazkao-Txiki nere
lagun zar apala,
zu bertsoak moldatzen
etziñan makala.
Badakit garai artan
sasoi zendukala,
ta ni ere saiatzen
nintzan egiñala,
gustora gaiñera zu
ondoan ziñala.

Lazkao-Txiki zanari lau bertso

EUSKAL Irratiak urtero antolatzen omen du trikitilarien txapelketa. Nik orain artekoari ez diot arreta aundirik jarri. Baiña adibidez aspalditxo asi izango zan martxan diodan txapelketa sonatu au. Gaur trikitilari gazteak indarrean daude Euskal-Errian, itxurak diranez.

1994-garren urteko martxoaren 19-an, San Jose egunez, Azpeitiko polikiroldegian ospatu zan soiñujole ta panderisten arteko txapelketaren bukaera, ni oso oker ez banago beintzat; eta Beasaingo Koldo ta Arantxa Iparragirretar anai-arrebak gelditu ziran txapeldun.

Kanturako erabili zuten letra, nik asmatua zan. Egun batez, Koldo soiñujoleak deitu zidan telefonoz:

— Lau bertso nai nituzke, Lasarte.

— Gaia erabakia al daukazu? —galdetu nion.

— Bai: Lazkao-Txiki —erantzun zuen.

Neretzat ezagunagorik ezin aukeratu. Baiña, bertsoak moldatzerakoan, bi jokabide neukan, burua kezka betetzen zidatenak. Alde batera begi-

ratuaz, umorezko bertso bizi antzekoak komeni ote ziran, soiñuarekin eta panderoz lagundurik kantatzeko. Beste aldetik, berriz, Lazkao-Txiki zana artean il berria izanik, sentimentu pixka bat erakustea ere etzegoela batere gaizki erriaren aurrean.

Orixe pentsatu ondoren, seriotasunak bereganatu ninduenez, egin eta eman nizkion eskura Koldori emen agertzen diran lau bertso auek.

Ez dakit Azpeiti aldean entzun zituztenak gustora gelditu ziran edo ez. Baiña pasadizo batzuk idazten ari naiz Lazkao-Txikiren nortasunari dagokion liburutxo bat osatzearren.

Iparragirretar Koldo ta Arantxa anai-arrebak bi aldiz segidan irabazi dute Euskal Irratiak jokoan jarritako txapela: 1993-an lenengo, ta trikiti soiñuarekin batera nik eskale zar bati jarritako bertsoak kantatuaz noski. Badala zerbait derizkiot, gazte umoretsu auek eman diguten frutu zoragarria.

Beste au ere aipatu bear det, ontaratu naizen kasoan: Koldo ta Arantxaren lengusua degu, ain zuzen, Joseba Iparragirre, Idiazabalen bizi dana. Aitak dituzte anaiak. Soiñujole dotorea da Joseba, Azpeitiko kiroldegian agertu zitzaizkigun guztiak bezelaxe.

1992-garren urtean txapeldun irten omen zan Joseba Iparragirre. Nik egindako bertsoak zituen onek ere. Baiña ez naiz gogoratzen une ontan bertso aietaz.

I Penaren bidez gaude
erdi kixkalita,
izar argi eder bat
zaigu itzali ta.
Lazkao-Txiki, gure
jostailu polita,
kanposantuan dago
lurrez estalita.

2 Umore goxoaren
berezitasuna
zendulako, erriak
zizun maitasuna.
Nola ez ixtimatu
zure fintasuna?
Buelo txikian zendun
zuk aunditasuna.

3 Beste munduan pizten
al da emen ilda?
Ez diguzu esaten,
ain zaude ixil da.
Baiña eman zenituen
ainbat bertso-sail da
euskaldunak zurekin
aztutzea zail da.

4 Zure gorputza sartu
zuten illobira,
ta anima igo zan
zeruko gurdira.
Gaur andikan bazaude
lurrera begira,
gure zorion denak
zuretzako dira.



Joxe Migel, lagun zarra

1 Joxe Migel, lagun zarra,
etzan izlari baldarra,
baizik egoki samarra.
Bertsolaria dotorea ta
ziri sartzaille azkarra.
Bazituela indarra,
txinparta eta sugarra,
dago aitortu bearra.

2 Bai al dezu atsegiñik,
mundutikan aldegiñik,
guri negar eragiñik?
Bizitza ontan penari pozak
ezin dio artu gaiñik.
Onak ez badu ordaiñik
ta txarrak ontzeko griñik,
ez daukagu zer egiñik.

3 Eriotzaren aurrian
jartzen da derrigorrian
estuasun gogorrian.
Joxe Migel, zu, samintasuna
utzirik Euskal-Errian,
gaixorik negu gorrian
egonik modu txarrian,
il ziñan udaberrian.

4 Biotzean zenduen min,
ta gero buruan berdin,
gaitza sendo eta gordin.
Bi illabete pasatxoetan
eduki zinduzten UVI-n,
bizia salbatu zedin;
baiña an ere utsegin,
iñork ezer ezin egin.

5 Ainbeste gizon sonatu
gaitzak oi ditu domatu,
indarrez bereganatu.
Lazkao-Txiki ebakuntzatik
lotan gelditu zan mutu;
naiz eta grabe somatu,
sendatzen ezin asmatu,
ezerk etzuen esnatu.

6 Azkena noiz datorkigun
dakienik ez da iñun,
ara zer gertatzen zaigun.
Joxe Migel, zu ezkutatzeak
supritu arazi zigun;
biotzez giñanak bigun
kopeta genduen illun,
naiko lan jarri zenigun.

7 Gaixotasun arazoan
eman zenduen pausoan
erori ziñan lazoan.
Jainkoak jarri izango zaitu
bizibide erosoan,
atsedentoki gozoan,
betikotasun osoan,
zeruko paradisoan.

8 Aundiak milloien jabe,
txikiak zer janik gabe
mundu ontan asko daude.
Supritzen bizi edo iltzea
zer ote litzake obe?
Gu beti zalantzan gaude,
zu seguruago zaude,
zeruan baldin bazaude.

9 Bat iltzera iritxita,
gelditu oi da jetxita,
ain gera gauza gutxi ta.
Abaliñera egin genizun
guk azkeneko bixita;
an zeunden txuriz jantzita,
kutxa barruan itxita,
munduko lanak utzita.

10 Zure anima opari
eman zenion Aitari,
seguru badakit ori.
Aingerutxoak dira zeruan
Jainkoaren mandatari;
Joxe Migel, zu kantari
aientzat bazera ari,
jarraitu lengo gaitari.

11 Beti arantza tartean
bizirik geran artean,
nor da zorion betean?
Zu ikustea naiko nuke nik
mundu ontatik joatean,
zeru aundiko atean,
San Pedrorekin batean,
maitasunez ta pakean.

12 Maite zenitun aurtxoak,
senide ta gurasoak,
txori, mendi ta basoak.
Danentzat badu zer itzegiña
biotz amodiosoak.
Jostailu kuriosoak
zirala zure bertsoak
badaki erri osoak.

13 Zure kanturako griña
txoriak duten berdiña
zala det amets egiña.
Buru argia zenduen oso,
moko txorrotxa ta piña;
bertsolari atsegiña,
orain ixil zaude baiña
nik maite zaitut len aiña.

14 Umiltasuna ardaztu,
ez zikindu ta lokaztu,
ta triste daudenak poztu.
Lazkao-Txiki orretarako
beti egoten zan prestu;
bertsolaritza erreztu,
garbitu eta orraztu,
ori ez dezagun aztu.

15 Gelditzen bada biotza,
bat-batean eriotza,
biziak iraupen motza.
Joxe Migel, zu Euskal-Errian
etziñan gizon arrotza.
Ixildu zan arnas otsa,
bukatu zendun morrontza,
jasorik epai zorrotza.

16 Mailla oneko neurria
betetzeko egarria
zendula naiz igarria.
Agurtxen zaitut, Lazkao-Txiki,
ain zera agurgarria.
Uste gabeko arria
gaitzak zizun ekarria,
ori da penagarria.



Lazkao-Txiki eta Lasarte bertso kantari, Azpeitian.

Apaiza eta tabernaria

LAZKAO-Txixki zanak eta biok alkarrekin kantatutako bertso mordoska eskuratu ta eman dizkidatenez, pixka bat idaztea komeni omen dala itzaurre gisara diote nere adiskide auek. Liburuaren utsuneak betetzearren edo orrelako zerbait bearko du izan.

Nik ezagutzen ez nituen bertsoak ekarri dituzte. Saio batzuk motzak edo laburrak, eta besteak luze-xeagoak ere bai. Denetatik nasian daude, ta bakoitzari dagokion erara idazten aleginduko naiz.

Beasaiñen, orain ia ogei ta amar urte, 1965-eko ilbeltzaren 24-ean, umorezko gaia eman ziguten.

— Lazkao-Txiki apaiza da; eta Lasarte, erriko tabernaria. Parrandari buruz iruna bertso kantatuko dizkigute.

Au bera ere zer pentsatua emateko moduko gaia zan lengo urte aietan. Baiña guk egun artan umore onez erabili genduela bistan dago, entzule jendearen gustoa bete naiak eraginda edo abar.

Bertso kontuak batzuetan broman artzen dira; ta urrengoan, berriz, benetan. Erriz erri dabillanak garbiro ikusten du ori.

Zenbat klasetara probatu gaituzten nork ote daki? Nik neronek ez det ortan bururik nekatu batere, ta obe gaiñera. Bertsolariak zenbait egunetan gai txarrik ez du, ta beste askotan onik ere ez. Or dago koxka.

Laz.— Nere laguna, bear diogu
guk geure lanari eldu,
eta nai dizut nere barrengo
sentimentua azaldu.
Ez badezu nai fedea eta
errespeto ona galdu,
tabernatikan len baiño leno
jende gaiztoak bialdu.

Las.— Apaiz prestua, zuk badakizu
errespetoz alegintzen,
itz egokia eman dezu ta
orrekin ez nazu mintzen.
Tabernariak erantzungo du
buruz ez bada arintzen;
ongi dakizu: apaizak ez du
tabernan ezer agintzen.

Laz.— Tabernaria, itzegingo'izut
txit umil eta serio,
zure etxeak animarentzat
ez dauka erremerio.
Alkol geiegi jendiai eman,
gero bururaiño io,
zenbat anima galtzen ote da
zu zeralako merio?

Las.— Egin didazun ateraldia
ezin nezake aztu nik,
beraz orduan ez det desio
olako erakustunik.
Anima itxuran bustitze orrek
al du pekatu astunik?
Zeruan ezin liteke sartu
bataiorikan eztunik.

Laz.— Tabernaria, nere esana
artu zaidazu onian,
gure eleiza tabernak galdu-
tzen du gaurko egunian.
Pulpitotikan alperrikan gu
ariko gera lanian,
gorputzak ez du ezer balio
anima galtzen danian.

Las.— Errespetua beti litzake
erriarentzat atsegin,
pulpitutikan bear bezela
bear dezute itzezin.
Eta, apaiza, zuk eleizako
lanak or itxuraz egin,
zuek zabarrak zeratelako
animik galdu ez dedin.

Pake egilleak

ORAIN ogei urte, Azpeitian, 1974-eko martxoaren 10-ean, itz auen bidez eman ziguten gaia Lazkao-Txikiri eta neri:

— Pakeak egin naiez, bi lagunen artera sartu zerate; baiña aundi samarrak artuta irten ere bai. Lazkao-Txikik pakeak egitera joan nai zuen; Lasartek ez.

Emen garbiro agertzen da nun giñan eta gaia nola zan. Irakurleari laguntzeko pixka bat geiago idatziko det; baiña gauza aundirik ezin nezake egin, gertakizun guztia esana dagoelako itx gutxitan eta dotore, nere ustez beintzat.

Gai labur antzekoak naiago izaten ditu bertsolariak.

Laz.— Ez dago edozer moduz sartzerik zenbait pertsonen tartera, naizta batek lagunak itzuli nai izan arren pakera. Lasarte ta ni gaur ere ortan probatzen bazan aukera, pakea egin nai eta aundiak artuta gelditu gera.

Las.— Zuk etzekizun borroka oiek
nundikan nora zetozen,
olako kezka aundirik gabe
gu Azpeitira gentozen.
Bein bear eta leku onean
sartua zera ain zuzen,
bizkarrekuak artu dituzu
eta merezi ziñuzen.

Laz.— Besterenakin, lagun Lasarte,
etzaitez arro geiegi,
neri utzi ta geroago're
zurekin or dute segi.
Dudan nago ni ezur erdiak
ez ote dioten autsi,
nik bezelaxe Lasartek artu
ditu bereak eta bi.

Las.— Zer gertaera izandu dan gaur
esango dizut kantuan,
etxeko partez Lazkao-Txikik
luzitu nai zun kanpuan.
Ezagututzen ez dan tokian
ibili zaitetz kontuan,
eta etzaitez aurrera sartu
deitzen ez duten lekuan.

Laz.— Arrazoi dezu: toki oietan
sartzea sarri galera;
ezagututzen ez dan tokian
ola sartzea kalte da.
Gu beintzat ez gerade ederki
sail ortatikan atera;
esaera da: makil autsiaz
ez sartu iñoren tartera.

Las.— Egun eder bat pasa asmotan
naiz gaur etxetik ertena,
beste batzuek armatu dute
lendik espero zutena.
Kulparik gabe tartean sartu,
nik orrekin daukat pena;
ni naiz gaur emen asto beltz ori
paliza artu detena.

Galtzak ia galduan

ZEGAMAN, 1981 urteko azaroaren 15-ean, zelebrezko gaia jarri ziguten:

— Gaur goizean, arnas estuka ta larri, galtzak erdi galduan ikusi dezu Lasarte Zegama bidean. Kontuak artu bearko dizkiozu.

Ara komeri politikak nundik nora sortzen diran batzuetan. Disputarako bideak irikitzen dituzte onelako gai zelebre antzekoak, eta entzule askori parre algara gozoak eragin arazi gaiñera sarritan.

Umorezko bertsoen bearrean dagoela esan genezake gure gizartea, len ez-ezik, gaur bertan ere. Alaitasuna beti da gauza pozgarria eta atsegiña, bere neurri batean errenditu ezker.

Onelaxe kantatu genduen:

Laz.— Nere lagun au gaur goiz onetan
gaizki zebillen nonbaite,
bart arratseko lo egite ori
nunbait ez du ongi bete.
Galtzak e ia-ia galduan
edo etzitun aparte,
era ortaraiño jetxitzeko
zer gertatzen zaik, Lasarte?

Las.— Lasarte onek berekin badu
beti onelako festa,
Lazkao-Txiki or asia da
zer pasa zaidan galdezka.
Baiña etzazu, lagun maitea,
izan orrenbeste kezka,
galtzak galduagatik Lasartek
gantzontzilloak badauzka.

Laz.— Gantzontzilloak bazeuzkan eta
bazuen premi galanta,
beste aldetik gaur goiz onetan
izotz piska bat bazan ta.
Gerrikorikan etzeukan eta
onek zeramakin planta!
Bat aztutzea ez da ezertxo,
gero ipurdia falta.

Las.— Nik ipurdia badaukatela
egon zaitez sinistuta,
baiña illunpean ibillia naiz
argirik ez det piztu ta.
Izanez ere zartu naiz eta
ainbat nago narrastuta,
etxe aldetik aterea naiz
galtzak jaztea aztuta.

Laz.— Gure Lasartek galtzak galtzea
gauz zelebrea zan egiz,
gerrikorikan ere ez du artu
bere logure geiegiz.
Bere denbora guzian dabil
berotasunaren premiz,
oraindik ere ala zebillen
izotza urtu ez balitz.

Las.– Izotzik ez det errespetatzen
gorputzez bero egonik,
oraindik ere etzazu uste
oso galdua nagonik.
Etzaidazula berriro jarri
neri orrelako bromik,
Oriotikan ez da etortzen
galtzik gabeko gizonik.

Erlekistenaduna eta kuranderoa

AUXE izan zan Zubietan, 1982-ko San Inazio bezperan, kanturako eman ziguten gaia:

— Lasarteri ipur-masaillean erlekisten bat atera zaio. Lazkao-Txiki, kuranderoa.

Gaia ulertu erreza jarri ziguten, motz-motzean eta pulamentuz. Or ez gendukan alperrikako itzik eta esaera baldarrik, gai jartzaillearen aldetik alegia.

Iñoiz esplikazio luzeak bertsolariaren kaltegarri dirala esango nuke, nastu arazteko arriskuan jartzen baidute, naiz eta ongi bearrez egiñak izan.

Bein gaia zer dan erabaki ezkeru, utzi pakean bertsolariari. Berak pentsatuko du zer bide artu, ta nola itzegin ere bai.

Guk aldi artan bertso auek kantatu genituen:

Las.— Lazkao-Txiki biotzekoa,
nerekin det naiko pena,
ta al badezu entzun zaidazu
orain esaten detena.
Ipurtaldean sortu zait bere-
biziko erlekistena,
au zulatzeko, kuranderoa,
zuk bear dezu eztena.

Laz.— Ni kurandero ipiñi naute
ta zu sendatu bearrez
arkitzen zera bolara ontan
ain erlekisten txit txarrez.
Begiratu ta begira nago,
antzematen ez da errez,
irutatik zein kendu bear dan
esan zaidazu mesedez.

Las.— Berealaxe esango dizut
galtzen ez bazait burua,
erremedio bat bear nuke
ona eta segurua.
Erlekistenak arrapatu dit
zintzarrien ingurua,
au sendatzeko egin zaidazu
zuk enplasto bat berua.

Laz.— Ipurdi ortan andik onuntza
zuri egin dizut jira,
erlekistena zein dan baneki
naiago nuke sikira.
Alde aundirik ere ez baida
emen tokitik tokira,
ta iru koxkor ikusten ditut,
irurak berdiñak dira.

Las.— Erlekisten au beingoz sortu zan
oso toki apaiñean,
bera errege bezela dago
beste koxkorren gaiñean.
Berez gaiztoa izaki eta
gogor ari da lanean,
baiña ori're geldituko da
ezurra jotzen dunean.

Laz.– Zuk badakizu ni naizela emen
praktikanterik onena,
pozikan asko egingo dizut
zuk agintzen dezuena.
Baiña aldrebes egingo banu
banuke betiko pena,
ea deskuidoaz kentzen dizuten
koxkorrik printzipalena.

Itxua eta itxu-aurrekoa

ZEGAMAN, San Bartolome bigarren batean, 1982-ko abuztuaren 25-ean alegia, itz auekin eman ziguten gaia:

— Lazkao-Txiki itxua da; eta Lasarteri eskutik elduta egiten ditu pausorik geienak. Bien arteko elkarrizketak.

Auxe genduen gaia serio purrukatua eta sentimental. Onek ez du arinkerirako gogorik ematen. Begiratu, bestela, Lazkao-Txikiren lenengo bertsoari, ta konturatuko zera nundik asi dan izketan.

Gaiaren sustraia billatzekotan, orixe da bide bakarra ta juxtua, nere iritziz. Orrek ez ditu lasaitasunezko ateraldi baldarrak eskatzen, pertsonari biotza ukitzen dioten bertso sakon da serio antzeko samarrak baizik.

Lazkao-Txiki oso gustoko laguna nuen nik gai oietan ere bertsoatarako, biok sasoi genduen urte aietan batez ere.

Auxe izan zan gure orduko saioa:

Laz.— Au da tristura eta illuna
mundura sortu zaiguna,
eta aditu bear didazu
orain galdetzen zaizuna.
Neretzat nola diran berdiñak
gaua bezela eguna,
ta eguzkia nolakoa dan
esan zaidazu, laguna.

Las.— Nik gaur Zegaman ikusia det
eguzki eder askua,
Orion berriz itxas aldetik
zeterren aize preskua.
Ezin dunari lagundutzea
degu gauza bidezkoa,
ni nago zure gidari eta
luza zaidazu eskua.

Laz.— Tori eskua ta entzun zazu
nere barreneko miña:
mundua oso polita dala
esanda nago jakiña.
Ainbat lore ta edertasun on
daukat ikusi eziña,
mundu onetan itxuak dauka
kastigurikan aundiña.

Las.— Bistikan gabe emen gizonak
ez daduka atsegiñik,
izugarrizko gaitza da ori
gauza garbi itzegiñik.
Lazkao-Txiki, goza gaitezen
biok senide egiñik,
andik aurrera ez da izango
alkar ikusi eziñik.

Laz.– Jaio nintzala ere penetan
egon izan naiz erditan,
izanez ere argitasunik
ez dago nere begitan.
Mundu onekin asperturikan
bizi naiz ainbat alditan,
beste munduan ikusiko al det
Jaungoikoaren argitan!

Las.– Munduko argi guztiak daude
zuretzako itzalduta,
kastigu ori izandu dezu
Jaungoikoak bialduta.
Baiña, anaia, poztu zaitea
etzero oso galdu ta,
bazkaritara juango zera
neri eskutik elduta.

Aguazilla eta larru gorrizkoa

ZEGAMAN, urte eta egun berean, 1982-ko abuztuaren 25-ean alegia, beste gai au ere jarri ziguten:

— Lazkao-Txiki larru bixian dabil, zato ardoa bizkarrean duela, erriko festetan. Lasarte erriko aguazilla da, eta kargu artzen dio.

Onoko gai oni zer esan litzaioke bide seriotik artu ezkerok? Ezer gutxi. Baiña lotsa baztarrera utzi ta umorez kantatzea onena, pesta giroan egonik, naiz eta gogoz kontra jardun edo ainbesteraiño gus-tatu ez arren gaia bera.

Emen gauza berrien billa ibiltzea alperrik ote dan pentsatu izan det nik nere kasa batzuetan. Gairik geientsuenak len pasata daudenez, orain zer asmatu bear da? Pixka bat aldatzen alegindu. Orixe besterik ez noski.

Las.— Larru gorrian gera
Jaunak ekarriak,
baiña zartutakoan
bai beldurgarriak.
Lazkao-Txikik daduzka
istillu gorriak,
tapatzen ez baditu
bere zintzarriak.

Laz.— Pestak triste ibiltzeko
al dezu ustia?
Umorez pasa nai det
festaldi guztia.
Bizkarrean zato bat,
aurrean bestia,
alare emengo neskak
bildurtzen ezta.

Las.— Aguazillak makilla
dizu dantzatua,
zu ola ikusita
au det pentsatua:
laister moztuko dizut
nik beko zatua,
ori nola daukazun
asko luzatua.

Laz.— Nere zatuarekin
orrenbeste kezka,
moztuko didazu ta
banoa igeska.
Begira pozik daude
orrenbeste neska,
dunak erakustia
pekatua ezta.

Las.– Larru gorrian oiñez
dabil taka-taka,
aguazillak ikusi
du au or bueltaka.
Azkenik pasako da
sekulako marka:
orain txintxilik du ta
laister arrastaka.

Laz.– Oraingo arrazoi ori
etzendun zuzena,
arrastaka ikusteak
ematen du pena.
Laister tente jartzean
aurreko antena,
joan bearko det nik
neskatxen batena.

Gerrara joan bearra

TOLOSAN, ez dakit zein urtetan eta zein egunetan, gai sentikorra jarri ziguten bina bertso kantatzeko:

— Biok anaiak zerate, Guda-garaia eldu da eta gerrara joan bear izan dezute, baiña biok alde banatara. Elkarri zuen agurra.

Gerrara joan bearrean zerate, alegia; baiña bi aldeetatik ibiltzea derrigorturik zaudete zoritxarrez, berdin pentsatzen ez dezutelako. Bakoitzak bere arrazoiak edukitzen dituela badakigu; baiña anaiak alkarri tiroka jardutea baiño gauza itxusiagorik ezin liteke ezer izan.

Ongi konturatuko bagiña, 1936 urtean orixe gertatu zan. Uste gabeko gerrate latza sortu goizetik gauera, ta gero kontu estuak ainbat familitan. Negarra ta tristura besterik ez genduen nabaitzen alde guztietan. Bizitza penagarria zan benetan urte aietakoa.

Onako bertso auek kantatu genituen;

- Laz.*– Agurtutzeko une estua
etorri zaiguk, anaia;
ni batera ta i besteruntza,
ez dek ain agur alaia.
Biok ezberdin pentsatu eta
biok degu arrazoia,
orain eldu da biok tiroka
probatutzeko sasoia.
- Las.*– Pentsatu degu agintariei
obeditzia ondradu,
gero're ezin gentzake izan
aundiak ainbeste gradu.
Gu biok alde banatan zintzo
saia gaitezen soldadu,
ta berriz ere bilduko gera
Jaun Zerukoak nai badu.
- Laz.*– Aita ta ama negarrez daude,
ain da gauz negargarria;
gu ezin azirik oinbeste urte
eraman dituzte ia.
Biok ezberdin pentsatu eta
ustutzen degu kabia,
biok anai ta alkar il bear
ez al da penagarria?
- Las.*– Ez gaitezela arren iritxi
alkar iltzeko neurrira,
negu tristea pasa ta iritxi
gaitezen udaberrira.
Alkar tiroka iltzeko agintzen
jaun aundiak ari dira,
guk ez genduke joan bearrik
pakezaleak balira.

Apaiz egin?

ZUBIETAKOA degu beste gai au ere, 1983-ko Santio egunean Lazkao-Txiki, Peñagarikano eta neri emana.

— Lasarte obispoa da. Ez du gerri alde aundirik, baiña obispo jartzen degu. Ta Lazkao-Txikiri karta egiten dio; apaizak bakantzen ari dirala ta olako mutilxar fiña ta argia artuko lukela pozik apaizetarako. Peñagarikano bertsolari lagun bat da, ta ikusiko degu zer kontseju ematen dion.

Gaia ez dago batere gaizki. Baiña norbait izango litzake ni baiño egokiagoa obispotarako, ez da zailla ere ta.

Gai jartzailleak nere gerriari begiratzen dio, lepoa ere orren antzeko daukadan arren.

Bertsolariak gauza zelebreak esaten badakiela; baiña entzun ere egin bear izaten ditu disparate politak, gutxiena pentsatzen duen garaian.

Gai ori onelaxe erabili genduen iruron artean:

Las.— Lazkao-Txiki biotzekoa,
gaur bidali dizut karta;
ta uste gabe alkarrizketan
emen biok zirti-zarta.
Apaizak oso urri dauzkagu,
sentitzen det oien falta;
zu, mutilzarra, orretarako
zaitugu polit aparta.

Laz.— Jakiñik nago Eleiza dala
orain apaizen premizko,
ni juaten banaiz egin liteke
fededun edo egizko.
Mutilzarraren kontu txar ori
etzazu esan berrizko,
galdetzen dizut: zu ezkondata
egin al ziñan obispo?

Peñ.— Ondo badakit mundura nola
ez nitzan sortu betiko,
erabaki bat artu bear det
emen bein betiko, kito!
Apaiz santuan izenen dabil
emen ainbeste ijito,
zu egin zaite apaiza eta
ni egingo naiz akolito.

Las.— Obispo zarra alderdi ontan
bada naiko bildurrian,
pena gogorak sortuko dira
nere biotz xamurrian.
Akolito bat berria ere
emen jarri zait urrian,
lotsatu gabe itzegiten du
obispo baten aurrian.

Laz.— Jakiñik nago bokazioak
aspaldi joanak dirala,
eta badakit apaiz berria
orain asko bear dala.
Ni egiten banaiz izango nauzu
txintxoia eta formala,
baiña juan baiño len jakin nai det
zer dan apaizen jornala.

Peñ.— Beraz, Lasarte au omen degu
obispo edo apaiza,
eta sermoian ematen dezu
izugarrizko paliza.
Eta baezpada ardo goxokin
puntaño bete kaliza,
berriz e jende gutxi juango da
zure erriko eliza.

Las.— Lazkao-Txiki bildu nai det nik
ez dabil aldrebes eta,
onek erri bat jarriko luke
txistez poliki aseta.
Bere jornala izango luke
illeko ogei pezeta,
onentzat ori aski da, ez da
metro ta erdi luze ta.

Laz.— Obispo onek ikusten danez
beretzat nai du guztia,
Jaungoikoaren ministro da ta
ori da gauza tristia.
Ori entzunda gauza zaila da
Jainkuakin sinistia,
nik amar milla duro beaitut
eta neskame gaztia.

Peñ.— Obispo eta mutilzar aiña
badakit nere tontuan,
nundikan abituko zeraten
jarri zazute kontuan.
Lazkao-Txiki sartu daiteke
iñoiz praile konbentuan,
pekatu geio ez badu egiten
seigarren mandamentuan.

Uztapideri

ZEGAMAN, 1984-eko abuztuaren 25-ean, Uztapide zanari omenaldia egin ziotela uste det; eta arentzat bina bertso kantatzea eskatu ziguten Lazkao-Txikiri eta neri.

Gai ori ere motzean emana genduen, agiri zaigunez. Gai guztlak ez dutela berdintasunik adierazten digu.

Uztapide zanaren omenaldia zegamatarrak pozik antolatu zuten. Jende asko bildu arazi ere bai.

Bera, artean bizirik egonik, oso gustora gelditu zala badakigu. Alamo-uzko itzak esan zizkigun beintzat jaialdiaren bukaeran. Gizon zarrak izugarri ixtimatzen du erriaren maitasuna, arrazoibidez gaiñera.

Gai jartzaillearen eskaera betetzearren, onela kantatu genduan:

Las.- Jaun Zerukoa, aurkitutzen naiz
argitasunaren premiz,
Uztapide au zer gizon degun
aitortuko badet egiz.
Ez dakit onen parekorikan
ikusiko degun berriz,
bi klasetara baita aundia:
gizonez ta bertsolariz.

Laz.– Nik Uztapide ezagutu nun
gaztea nintzala oso,
arrezkeroztik entzun diogu
makiña bat bertso gozo.
Ori zalako gu zenbait gazte
giñan kontuan eraso,
bildurrik gabe jarriko nuke
bertsolarien guraso.

Las.– Bertsotarako Uztapide nun
nere gustoko laguna,
zure ondoan aspertu gabe
joaten zitzaidan eguna.
Biotz-biotzez estimatzen det
gaur Zegamak egin duna:
omenaldi bat eskeiñi dizu
ondo merezi zenduna.

Laz.– Danok dakigu erri onetan
askotan izan ziñala,
ta ezagun da emen zurekin
guztiak pozez dirala.
Ixildu arren gordetzen dezu
maixu aundi baten itzala,
gauza guztien jabe dan orrek
luzaro gorde zaitzala.

Oporraldia

ONA emen Zegaman, Uztapideren omenaldikoan, 1984-eko abuztuaren 25-ean alegia, eman ziguten beste gai bat:

— Lazkao-Txiki eta Lasarte datorren illean oporetara omen doaz elkarrekin, Baiña oraindik ez dakite nora joango diran. Izan ere, Lasartek Urbira joan nai du, eta Lazkao-Txikik Benidorm aldera edo norabait.

Emen naikoa esana dagoela derizkiot, nai due-nak ulertzeko moduan, ez geiegi ta ez gutxi ere, tankera politean.

Batzuek badute oitura, gaia ematerakoan, asko itzegiteko; ta ura arriskutsua iduritu izan zait, beti ez bada ere, geientsuenetan beintzat. Itzaldi luzeak nastu arazi egiten baidu bertsolaria, ta kontu aundiz ibili bear litzake ortan.

Au ez det iñoren kalterako esaten nere ustez, mesederako baizik. Norbaitek gaizki artzen baldin badu, barkatu dezala.

Iruna bertso kantatu bear genituan, eta auetxek izan ziran:

Las.— Abertentzi bat emango dizut,
nere lagun zar jatorra,
oporraldia igarotzea
aurten degu derrigorra.
Ta nora joan nork erabaki?
Au da lantegi gogorra;
ni Urbiara joango naiz, zu
juan zaitez Benidorra.

Laz.— Gure Lasarte mendiai beira
artzai askoren antzera,
itzal ederrak badaude eta
naiko luke itzalera.
Eta ni berriz pentsatzen nago
juatia Benidor aldera,
aspaldi ontan garbitu ez naiz ta
uretan preskatutzera.

Las.— Garbitasuna nolatan egin
pentsatu zazu lenengo,
azkenerako ez ote zaitu
itxasoak eramango?
Zure tokian ni ez nintzake
Benidor aldera joango,
an Urbiako gazta ederrak
ez dira ugari izango.

Laz.— Pentsa, Lasarte, ni urak ere
ez nauela eramango,
izanez ere Benidor ortan
ura ain mantsoa dago.
Arrazoi dezu, Lasarte juan
zaite zu Urbira txango,
trajebaiñuan baiñatutzeko
ez dezu ederki emango.

Las.— Busti bearrik ez daukat urez,
nago garbi eta bero,
zuk Lasarteren berri ederki
badakizu onezkero.
Eta etzaitut ara joanda
lagun aundi bat espero,
zu txiki geldituko baizera
zikiñak kendu ezkeru.

Laz.— Arrazoi dezu, bestela txiki
baiña beti aundi naiak;
alde batera ematen degu
biok gerala anaiak.
Baiña itxaso-ertzean pasa
nai ditut aurtengo jaiak,
antxen gordetzen diradelako
aragiak ta arraiak.

Egunkariko iragarkia

BESTE gai au ere Zegaman jarria da, aurrekoaren egun berean, 1984-eko abuztuaren 25-ean:

— Lasartek iragarki bat jarri du egunkarian, eta onela dio: “Neskatxa gazte eta diruduna, neure antzeko batekin ezkondu nai luke”. Eta urrengo egunean or dijoakio Lazkao-Txiki ate joka.

Au, jostaillu gisara bertso saio guztietan erabili izan degun gai klasea da, erriari asko gustatzen zaiona, umorea ta bizitasun kutsua berekin dituelako edo ez dakit zergatik.

Entzule jendeari gogozko zaizkio bertso zelebrentzeko batzuk, iñorentzat kalterik ez dutenak baldin badira beintzat.

Pesta alaitasunaren bidez jantzi bearreko gauza dala ez dago dudarik, nere ustez. Orain artean guk ala ezagutu degu ibili geran alde dentan, eta kito.

Onelaxe kantatun genduan:

Laz.— Orain artean salgai nago ta
iñola're saltzen ez ta,
periodiko bat or billatu det
nik anuntzios beteta.
Etxe onetan badagoela
diru asko duen neska,
ea nerekin nai zendukean
oraintxe nator galdezka.

Las.— Anuntzioak ekarria dit
uste gabeko laguna;
ni gaztea naiz, zu zera zarra,
sasoia daukazu juna.
Beraz zuk ere desio dezu
neska gazte diruduna,
or ezagun da Lazkao-Txikik
berak askorik ez duna.

Laz.— Lendabizitik teman asi zait,
neska onekin akabo;
ikusten danez, tratu onikan
egiterikan eztago.
Dirua ere nai nuke baiña
beste gauza bat geiago;
trato-aseran galdetzen dizut:
jardiña ondo al dago?

Las.— Jardiña ongi dagola lendik
esaten asi natzaizu,
eta zuretzat izango dezu
ori gustatzen bazaizu.
Lazkao-Txiki, lendabiziko
ongi tratatu nazazu,
danak zuretzat izango dira
biotzez maite banazu.

Laz.— Ederki dago, neska maitea,
itzegin didazu txukun;
beraz gaurtikan aurrera biok
beagu alkarren lagun.
Beste gauzaren billa ez nebillen,
azkenean ori nai nun:
ea semetxo ta alaba batzuk
biok sortutzen ditugun.

Las.— Gure arteko seme-alabak
izango dira nabarmen,
lenago ere gauza orrekin
badegu milla txoramen.
Azkenerako tratu politak
egingo ditugu emen,
ea ba biok moldatzen geran
erabat zartu baiño len.

Laz.— Bene-benetan etorri naiz ta
geiago etzaitut utziko,
zeuk maite eta nik maite zaitut,
ortan ez degu etsiko.
Izanez ere alkar maitatu,
ori da lendabiziko;
nik zu ainbeste zuk maitatu ta
ez gera gaizki biziko.

Las.— Zuk diozunez, neska-mutillak
egin bear degu lagun,
ta geroxego biok ezkondu
oso apain eta lagun.
Len e zurekin paseak ditut
amaika gustoko egun,
maitasunaren ezkontza eder bat
ea preparatzen degun.

Txerria il bearra

URRENGO gai au ere Zegaman jarri ziguten, 1984-eko abuztuaren 25-ean alegia:

— Zegaman gertatu dan kaso batean oiñarrirituz, Lasarte baserritarra da. Txerri bat azten aritu da uste guztian, eta deitu dio Lazkao-Txikiri. Lazkao-Txiki arakiña da eta etorri da txerri ori iltzera. Baiña ez dio itxura onik artu: belarri motxak eta bizi xamarra iruditu zaio. Ta baserritarrari zera esan dio: ez dala atrebitzen txerriari gantxoia sartzen.

Nik paperean datorren bezela utzi det gaia. Baiña zerbait geiago erantsi nai nioke, pixka bat ugaritu dedin.

Pesta giroan bat-batean kantatutako bertsoak paperean idatzitakoak baiño akats geiago izaten dute. Nik emen ikusi ditut, sail batzuetan edo geienetan, itz faltak, bertso osatu gabekoak eta abar.

Magnetofonoz gaizki artuak izan litezke. Sarritan gertatu oi da ori. Baita paperera pasatzerakoan deskuidatzea ere oso erreza da, ta orain pixka bat zuzendu nai nituen. Baiña izugarri zailla iduritu zaidanez, batzuk or gelditu dira baztarrean.

Laz.— Alde batera gauza txarra da
peligroan ibiltzia,
nagusi jauna, asi baiño len
orra nere iritzia:
txerri onek du mutur luzia
edo oso itxusia,
nai dezuena egizu baiña
ez naiz ausartzen iltzia.

Las.— Txerri beltz ori ilda odolkitz
etxean nai degu ase,
aspalditxoan nola baigeunden
jaki goxo oien gose.
Txerria berez umilla dala
aitortuko dizut auxe:
bere azalez beltza da oso
nagusia bezelaxe.

Laz.— Arto pixka bat ekarri zazu,
bota dagoen lekuan,
aurrerapen bat lenagokua
oraintxen daukat goguan:
Bizkai aldean garai batean
egiten zuten moduan,
mazo aundi bat ekar zazu ta
neuk joko det, bai, buruan.

Las.— Txerriak gizen gutxi du baiña
etzaio falta giarrik,
alde batera etzendukazun
zuk ori esan bearrik.
Sinistu gero, ez leike eduki
olako txerri igarrik,
mazoa gora altxatzeko zuk
bai al daukazu indarrik?

Laz.– Zu ez bildurtu, mazo aundia
altxako det nola-ala;
badakit ortan nunbait nerekin
fiatutzen etzerala.
Zeure musaje berdiña dauka:
ezurra eta azala;
alde batera pentsatzen negon
zure senidea dala.

Las.– Nere senide kalkulatzuten
dezu gutxi gora-bera,
zuk dakizuna danok bizirik
mundura sortuak gera.
Txerria iltzea nai nuke eta
zuk egin zazu aurrera,
tiroz iltzea obe kutxilloz
atrebitzen ez bazera.

Laz.– Ez dakit bada, lagun Lasarte,
nundikan nora zabilten,
pentsu asko ez du gastatu nunbait
ori gizendu t'azitzen.
Tiroarekin esan didazu
eta jarri naiz arritzen,
karnizeroak tiroarekin
ez du txerririkan iltzen.

Las.– Saiatu zaitez txerria iltzen,
izan zaitea apala,
zerez al zera zu lotsatia
edo erabat makala?
Sinistu zazu ori il eta
zerbait eskura leikela:
gero etxera eramateko
emango dizut gibela.

Zaragi ardoa

ZARAUTZEN, 1985-eko abenduaren 15-ean, onako gai au eman omen ziguten:

— Lasartek Lazkao-Txikiri zaragi ardoa saldu dio.

Au ere oso motzean esplikatutako gaia dego. Ez du esaten nun egiña zan ardo famatu ura, edo nundik eraman nuen nik Lazkao-Txikiri saltzeko. Argibide gutxirekin asi giñan kantari. Baiña ulertu erreza genduen gaia, ta orrek asko laguntzen dio bertsolariari bat-bateko bertsogintzan.

Guk oltzaduraren gaiñera igo ta kantari astera-koan jakiten genituen gaiak, txanda zetorkigunean antxe bero-beroan. Bitartean gordeta edukitzen zituzten kargua zeukatenak. Ala bear luke gaiñera.

Dana dala, onela kantatu genduen:

Laz.— Nere lagun au beti izan da
umilla eta apala,
lagun urkoa serbitzen ere
jatorra eta leiala.
Zagi ardo bat eskuratu dit
eskatu ta bereala,
lenen traguan igerri diot
Riojan egiña ez dala.

Las.– Lazkao-Txiki, eskuan dezu
ardo goxo ta epela,
sinistu zazu zuretzako nik
propio egin detela.
Zagi ardoa saldua dizut
gizon jatorrak bezela,
jakin ezazu ardozaletan
nerez naparra naizela.

Laz.– Zagia ere erdi ustua,
ez du ekarri gaiñezka;
bapo pagatu eta ondoren
darabilzkit milla kezka.
Izanez ere ardo onena
bataiatutzen errez-ta,
eta, Lasarte, ardo ontatik
mozkortu bildurrik ezta.

Las.– Aspalditxoan ez nuen jaso
olain arrazoi treberik,
Lasartek ez du orain artean
baztertu gizalegerik.
Iñola ezin zenezake zuk
billatu ardo oberik,
zeruan ere ez baida sartzen
bataiorikan gaberik.

Laz.– Alde batera badaukazu zuk
santu umillen itxura,
ni bezelaxe oso altua
gaiñera etzaude pisura.
Zagi ardoa bataiatuta
katolikuen modura,
aurten egin dun legorteakin
zuk nun billatu dezu ura?

Las.– Ardozalea zera zerez da
laister bear zaitut ase,
edarietan izaten dira
emen onenbeste klase.
Zaragi ortan zer gertatzen dan
esango dizut belaxe:
dagola bera argal xamarra
nagusia bezelaxe.

Laz.– Gure Lasarte ardoa saltzen
nola atrebitu ote da?
Negoziante jartzen asia
dago urtetik urtera.
Nik abixu bat eman nai dizut
zimur baidaukat kartera:
zenbat dan esan da ordainduko det
emendik illabetera.

Las.– Emen ez gera izketan asi
prezioen gora-beran,
ondo gogoan artu ezazu
nik orain zer esan dedan:
ardo ederra zagian dezu
zuk edateko aukeran,
ortik piska bat txupatu zazu
ea mejoratzen zeran.

Laz.– Len esan dizut zeuk e ez dezu
nik dedan ainbeste pixu,
zer diferentzi dagon biotan
ederki asko dakizu.
Eta ardo au galdetzen dizut
nork zuri emana dizu?
Zeuk txanpaina edaten dezu ta
ardo saldutzen dezu.

Las.— Nere ardoa, Lazkao-Txiki,
det nik etxean egiña;
erabakia emango dizut,
nere lagun atsegiña.
Zartzerako komeniko zaizu
olako edari bat piña,
obe zenduen lendikan ortik
edaten asi baziña.

Arkibidea

Itzaurrea	7
Zaldibiko Bentaberri	13
Ordiziko <i>Gau-txori</i>	18
Gaixorik	23
Telleintxo	26
Gaintza	30
Lazkaomendi	34
Faubrikan	40
<i>Piensos Cometa</i>	43
Baserria	46
Asmo onak	53
Uste gabeko okerra	55
Lazkaomendin bertsoan	61
Lazkaomendiko omenaldia	68
Irudia	72
Beasain eta Ordizi	74
Arriarango Albisu anaiak	83
Lazkao-Txikiren liburua	92
Alejandro Azpiroz	94
Doneztebe	100

Arantzazu eta Urbia	105
Gaztelu	111
Urdiain	116
Donostia	123
Arrate	127
San Isidro egun batez	130
Tresna berria	135
Ataun	140
Olaberri	150
Lazkao-Txiki zanari lau bertso	158
Joxe Migel, lagun zarra	161
Apaiza eta tabernaria	167
Pake-egilleak	170
Galtzak ia galduan	173
Erlekistenaduna eta kuranderoa	176
Itxua eta itxu-aurrekoa	179
Aguazilla eta larru gorrizkoa	182
Gerrara joan bearra	185
Apaiz egin?	187
Uztapideri	191
Oporraldia	193
Egunkariko iragarkia	196
Txerria il bearra	199
Zaragi ardoa	202
Arkibidea	206



Manuel Lasarte

Manuel Lasarteren liburu berri au lagun batek bere lagun miñari egiten dion omenaldia, aitortpena eta azken agurra da.

Lagun bat mundu ontatik joandakoan, besteak biotzean naigabea eta utsunea, eta aren oroitza ezin burutik kendu. Ala, idazteari ekiten dio etxeo bakardadean, alde egindako lagunaren oroipenak papereratzen: alkar nun eta nola ezagutu zuten, alkarrekin nola eta zer kantatzen zuten, alkarrekin erriz erri nola ibiltzen ziran, eta abar.

Esan bearrik ez dago Lasartek ez dituala emen Lazkao-Txikiri buruzko zer kontatu guziak ixurtzen. Baiña liburu batek bere neurriak ditu, eta aietara errenditu bear

Ala ere, auxe da itzaren bidez gizaki baten argazkia egitea, eta Lasartek duan euskera gozo, errikoi eta aberatsaren bidez egin ere. Oraindaiñoak aski ez balira, Euskal-Erriak Leitzako bertsolariari zor dion mesede berria, alegia.

ISBN 84-89080-02-X



9 788489 080027

G-